



Sandra Carrascori,  
Isaias Carrascoren  
alabari, elkarrizketa

Jose Maria  
Arizmendiarrietaren  
kanonizatzea



## Etxezarreta eremua herriari emateko nahia

83 hektareako "altxorra" den esparrua erosteko  
eskatu diote Arrasateko Udalari / 10

Ezkerrean: Alvaro  
Arregi, Itsaso Beitia,  
Josemari Velez de  
Mendizabal eta Jose  
Angel Barrutiabengoa;  
eta eskuman: Antton  
Zabaleta, Nalara  
Corcuera eta Aitor  
Zubiaga, Etxezarretan

JAGOBA DOMINGO

# Zauritudun istripuak ugaritu egin dira

lazko datuekin alderatuta, %30 handitu da zaurituak izan dituzten auto-istripuen kopurua, gehienetan gidarien hutsegiteek eragindakoak / 4

**Izan daitezkeen  
kaleratzeak salatzeko  
lanuzteak egingo  
dituzte Fagor CNAko  
langileek / 3**

**Oñatiko Aloña  
Mendiko  
Txirindularitza  
Sailak mende erdia  
bete du aurten / 36**

**Kerexeta  
eskoriatzarraren  
bizitza musikala  
gordetzen duen  
liburua landu dute / 21**

**Nazioarteko  
akordeoi-jotzailerik  
onenak Arrasaten  
lehiatuko dira gaurtik  
domekara / 40**

**Ziega jarriko dute  
Arrasateko Seber  
Altube plazan, eta  
preso ohiak izango  
dira bertan / 13**

### SINADURAK

 AITZOL ITURBE / 8	 ANDER BOLIBAR / 26
 JOSU ZUGASTI / 12	 XABIER ETXEBARRIA / 25
 SABIN ARANBURU / 17	 IDOIA ETXEBERRIA / 48



943 71 48 45

[www.hemen-garbiaketak.com](http://www.hemen-garbiaketak.com)

**Zure konfiantzako garbiketa enpresa**

Mantentze garbiketak,  
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroledegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiaketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiaketak.com)





# ORAIN EKONOMIA

## **Ekonomia Suspertzeko Plana**

200 milioiko inbertsioa gure enpreetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

**200M€**  
2015 > 2019

**Industria**

**Lehen Sektorea**

**Gizarferatzea**

**Kultura eta Turismoa**





Asteazkenean Garagartzako lantegi aurrean egindako prentsa agerraldiko irudia. ENEKO AZURMENDI

## Ordubeteko lanuzteak kaleratzeak salatzen

Fagor CNA Group taldeko Edesa Industrialeko langileek euren lan-jarduna eten eta prentsaurrekoa egin zuten, enpresak 40 langile inguru kaleratzeko duen asmoa ikusita. Euren ustez, kaleratzeak ez dute enpresaren "ustezko" arazoa konponduko

### Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Garagartzan kokatuko Fagor CNA lantegiko langileek eta Eskoriatzakoek ordubeteko lanuztea eta prentsaurrekoa egin zuten eguaztenean, enpresak sindikatuei iragarri dizkien kaleratzeen harira. Ez dute zifra zehatzik eman, baina 33 eta 45 langileri eragingo die. Egoera horren aurrean, langileen ordezkariak adierazi du kaleratzeak ez direla enpresaren "ustezko" arazoari aurre egiteko konponbidea. Gure ustez, irtenbide gehiago daude, elkarlanean arituko bagina. Kaleratze traumatiko hauen aurrean, beste neurri batzuk proposatu dizkiogu enpresari, baina ezezko erantzuna jaso dugu", azaldu zuen Ricardo Perezek, Garagartzako Fagor CNAko langile batzordeko presidentek.

### Produkzioaren jaitsiera

Fagor CNA Groupek LAB eta ELA sindikatuei jakinarazi zenez, produkzioak jasandako jai-

tsiera izan da kaleratzeak iragartzeko arrazoia. Jaitsiera horrek talka egiten du 2016ko apirilean enpresak emandako produkzio datuekin. Izan ere, 2015eko apirilekoekin alderatuta, ekoizpena bikoiztea lortu zutela jakinarazi zuten.

Dena den, kaleratzeena ez da izan ekoizpen jaitsierari aurre egiteko hartutako lehen neurria. Zentzu horretan, urriaren 26an enpresak suspentsioko enplegu erregulazioko espediente bat ezarri zuela azaldu zuen Perezek.

"Egosketako langileak hiru astez egon dira inaktibo eta garbiketako langileak ez dira urriaz gozotik lanean hasi".

Bestalde, Perezek nabarmendu du proiektu honetan beste ak-

**33 ETA 45 LANGILE ARTEAN KALERATZEKO ASMOA HELARAZI DIE ZUZENDARITZAK SINDIKATUEI**

tore estrategiko batzuk ere badaudela, hala nola MCC bera, lurzorua jabea dena, Fagor S. Coop marka komertzialaren jabea eta Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomikoko Saila. Langileek salatu dute ez dutela ezagutzen enpresaren bideragarritasun planik eta ez dakitela balizko inbertitzaileak dagoen".

Mondragon taldeak hauxe jakinarazi du: "CNA taldean lanean ari diren lehengo Fagor Etxetresna Elektrikoetako langileek aukera edukiko dute berriz ere talde kooperatibora bueltatzeko. Horrela erabakitzen dutenak birkokatze zerrandan sartuko dira".

### Abenduaren 12an lanuztea

Datorren astelehenean ordubeteko lanuztea egingo dute Fagor CNA Groupen Basauriko, Eskoriatzako eta Garagartzako lantegietan. Zuzendaritzak abenduaren 9an edo 12an zehaztuko dio langile batzordeari zenbat langile kaleratuko dituen.



Gurutze Gorriko boluntarioak informazioa banatzen, Arrasateko Eroskin. I. S.

## Bazterkeria egoeran dauden familientzat opariak batzen

Debagoieneko Gurutze Gorriak hirugarren urtez antolatu du ekimena eta aurten 189 familia lagunduko dituzte

### X. G. DEBAGOIENA

Gurutze Gorriak eta Oñatiko Oinaztu Aisialdi Elkarteak *Beren eskubideak jokoan* kanpaina abiatu dute, bazterkeria egoeran dauden familietako haurrek oparirik gabeko Gabonak izan ez ditzaten. 0 eta 15 urte arteko haurrak dituzten 189 familia lagunduko dituzte. "Debagoieneko udalerrietako gizarte zerbitzuekin harremanetan jartzen gara, eta bazterkeria egoeran dauden familien kontaktuak helarazten dizkigute. Eskutitza bidaltzen diegu, eta euren erabakitzen dute opariak jaso nahi dituzten edo ez".

### Oparien bilketa

Opariek baldintza batzuk bete behar dituzte: berriak izatea, sexistak ez izatea, belikoak ez izatea, kooperatiboak (ez individualista) izatea eta hezitzaileak izatea. Baina horretaz gain, txekak erosiz edo kontu korrantean

diru sarrerak eginez lagundu daiteke. "Jende gehienak dirua ematearen edo txekeen alde egiten du. Askorentzat, zaila izaten da baldintza guztiak betetzen dituzten opariak aukeratzea, eta laguntzeko modu eraginkorra da", esan du Andrea Sanzek, Gurutze Gorriko boluntarioak.

"Banaketa abenduaren 22an eta 23an egiten dugu, Olentzero etorri baino lehen. Opariak gurasoei ematen dizkiegu zuzenean, gero euren Olentzerok ekarritakoak balira bezala banatu ditzaten. Helburua da haurrak ez daitezela ezertaz konturatu eta beste edozein haurrek jasotzen dituzten bezala jasotzea", adierazi du Elena Ibarrondok, Gurutze Gorriko boluntarioak.

Abenduaren 19tik 21era opariak paketatzen arituko dira, eta dei egin dute boluntario gehiago lortzeko, baita opari bilketaarako ere: (943 76 55 76, 09:00-15:00ak bitartean).

## 'Beren eskubideak jokoan' kanpaina

Jostailu bilketa Arrasateko Eroski hipermerkatuan egingo da abenduaren 2an, 3an, 9an, 10ean, 15ean, 16an eta 17an. Boluntario jardun nahi dutenek, deitu 943 76 55 76 telefonora (09:00-15:00)

### 0 eta 15 urte artekoentzako jostailuen baldintzak

- Jostailu berriak izatea, sexistak ez izatea, belikoak ez izatea, kooperatiboak (ez individualistak) izatea, hezitzaileak izatea.

### Laguntzeko beste bi moduak

- 5, 10 edo 20 euroko txekak erosiz.
- 3035 0001 51 0010018156 kontuan *Jostailu berria* izenpean diru sarrera eginez.



Debagoiengan izandako istripuetako bat; bi autoren arteko txokea izan zen, Arrasateko Gesalibar auzoan, hutsegiteek eraginda. GOIENA

# Egunean istripu bat baino gehiago

431 istripu izan dira Debagoiengan aurten –Zumarragarainoko errepideak barne–. Azaroaren 30era arteko datuen arabera eta iazkoekin alderatuta, %10-15 handitu da kopurua. Nabarmenagoa da zaurituak izan dituzten istripuen kopuruan antzemandako igoera: %30 ingurukoa. Arrazoi nagusia zuhurtzarik eza da

## Ubane Madera DEBAGOIENA

Euriarekin abiadura ez jaistea, aurreko ibilgailuarekiko distantzia ez errespetatzea, gerrikoa oker ipinita erabiltzea, manio-brak ez seinaleztatzea... gidatzeko orduan halako jokabideak izatea da Debagoiengan gertatzen diren istripuen eta ondorengo zaurien edo kolpeen eragile nagusia.

Bestela esanda, gidatzeko orduan arinkeriaz jokatzeko da uste baino sarriago. "Gidatzea jarduera oso ohiko bihurtu da. Eta ahaztu egiten dugu jarduera arriskutsua dela", azaldu du Peñakoba autoeskolako ugazaba Iban Peñakobak. "Adibidez, euriarekin, eguzkiarekin, hotzarekin... berdin gidatzen dugu. Ez dugu egokitzen abiadura klimatologia egoera desberdinetara", gaineratu du.

## Zaurituekin %30 gehiago

Azaroaren 30era arteko datuen arabera, Debagoiengan –Zumarragarainoko errepideak barne– 431 istripu izan dira. Handitu egin da kopurua iazkoarekiko, %10-15ean.

"Zauritudun istripuak joan den urtean baino askoz ere gehiago izan dira, %30 gehiago. Joan zen urtean 127 izan ziren eta aurten 159 daramatzagu. Zauriturik gabeko istripuei dagokionez, berriz, joan zen urteko zifraren azpitik gaude. 280 inguru izan ziren joan zen urtean, eta

**GERRIKOARI EZ ZAIO BEHAR BESTEKO ARRETARIK JARTZEN, USTE BAINO SARRIAGO OKER ERABILTZEN DA**

aurten oraindik ez gara horra heldu. Seguru aski, helduko gara; beraz, parra egingo dugu. Eta hildakoak dituzten istripu kopurua iazko berbera da: bi", jakinarazi dute Deba-Urola er-tzain-etxetik –Bergarako er-tzain-etxea–.

"Gertatzen diren lau istripu-tatik hirutan, arrazoiak hiru dira: bat, bi edo hirurak batera. Alkohola eta drogak; abiadura desegokia eta hutsegiteak. Zergatik handitu den zauritu kopurua? Trafikotik esaten dutena da hiru faktore horiei gehitu behar zaiela beste bat, istripua larria izateko. Esaten dute jendeak gerrikorik ez duela eramaten edo gaizki eramaten duela. Izan ere, gerrikoari ez zaiola behar beste arretarik jartzen, eta gerrikoak baditu bere neurriak. Bakoitzak gerrikoa egokitu behar

du bere gorputzera. Jarlekua mugitzen den moduan, edo bolantea ere erregulatu egin daitekeen moduan, gerrikoa ere erregulatu egin daiteke, eta ez diogu kasurik egiten, eta batzuetan ipinita eramanda ere, kalteak eragin ditzake, gaizki eramatearren. Hori bai, kalte larriago batetik salbatzen zaitu, baina...", gaineratu du Ertzaintzak.

## Euriaren faktorea

Istripuak artatzen eskarmentu luzea duten Gurutze Gorriko Elorregiko boluntarioek ere bat egiten dute gidarien arreta falta azpimarratzerakoan: "Azken batean, automatak bezala gidatzen dugu. Larregiko konfiantza dugu. Eta, adibidez, horregatik handitzen da istripu kopurua euria egiten duenean".

Izan ere, egoera horretan –euriarekin– nabarmen okertzen dira errepidearen baldintzak.

"Euria egiten duen lehen orduetan pasatzen dena zera da: egun lehorretan ibilgailuetatik jausi den olioia, erregaia edo ihes-tututik irteten diren hautsak gelditzen dira errepidean, eta, errepidea asfaltoa denez, barrura sartzen dira. Euria egitean, elementu horiek baino dentsuagoa da ura, eta olioak-eta azaleratu egiten dira. Horiek labainkorak direnez, autoak labaindu egiten dira. Horrez aparte, euria egiten jarraitzen badu, asfaltoak ez du ur guztia xurgatzen, bazterrean eramaten du, baina neurri batean; azalean ere geratzen



UBANE MADERA

## "Lepoko zartakoak dira gehienak"

**SONIA FLORES GURUTZE GORRIKO BOLUNTARIOA**

Urtetako esperientzia du Sonia Floresek istripuak artatzen Debagoiengan. **Zelakoak dira gehien ikusten dituzten istripuak?**

Arinak: abiadarengatik autoa labaindu eta zerbaiten edo beste auto baten kontra kolpea hartzea. Normalean, lepoko zartakoak izaten dira ondorioak. Izan ere, gaur egungo autoak gertu daude txokeak hartzeko abiada jakin batera arte: 50-80 km/h-ra arte; Ibilgailu batek IAT pasatzen badu, gidariaren edo auto barruan doazenen gaineko zauriak/eraginak ez dira larriak izango. Baina jakina, beti dago zorigaitza. Hau da, nahiz eta abiada txikian joan, kolpe txar bat hartzen bada, autoaren leihotik zerbait sartzen bada eta gorputzean sartu, baranda apurtu eta errekarra jausten bazara... halakoak aurrekusi bakoak dira, eta gertatzen dira.

**Zenbateraino saihestu daitezke istripuak egoki gidatuta?**

Arreta galdu ezean, seinaleak eta zirkulazio arauak errespetatuz gero, istripuen %70-80a saihestu ahalko lirake. IAT pasatzea oso garrantzitsua da, ze adibidez, han abisatzen dizuete erruberak aldatu beharra duzula. Akaso zeu ez zara konturatu.







# Basogintzaren gainean ikasteko jardunaldiak

Bergaran eta Oñatin baso jardunaldiak egingo dituzte abenduaren 12an, 14an eta 17an, herri bietako udalek eta Hazi Fundazioak antolatuta. Administrazio, erakunde eta elkarte desberdinetako ordezkariak eta adituek hartuko dute parte

## Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

Hazi Fundazioak eta Bergarako eta Oñatiko Udalek baso jardunaldiak antolatu dituzte datorren asterako. Batez ere, basoen jabeek zuzendutako basogintzako oinarriko ikastaroa da honako hau, baina gaian interesa duen edonor joan daiteke.

Hiru egunetan egingo dituzte jardunaldiak: hain zuzen ere, abenduaren 12an (astelehena), 14an (eguztiena) eta 17an (egubakoitza).

## Saio teorikoak eta irteera

Abenduaren 12an eta 13an saio teorikoak egingo dituzte, eta bertan, adituen eskutik hitzaldiak eta mahai inguruak entzuteko aukera izango da. Lehen eguneko saioak Oñatiko Santa Ana aretoan izango dira eta bigarren egunekoak, berriz, Bergarako udaletxean. Hilaren 17koa irteera izango da, eta bertan, Arrasateko Zaburdi eta Oñatiko Lezesarri inguruko basoak bisitatuko dituzte.

Parte hartuko dutenetako bat Basoa Fundazioko Jorge Askasibar izango da, eta hark nabar-



Arrasaten, Musakolako Eroskiren atzean dagoen basoa bisitatuko dute. GOIENA

mendu du basogintza "balioan jarri" behar dela eta hori dela jardunaldi hauen egitekoa. Nabarmendu du baso jabeek zein administrazioek badihardutela esfortzua egiten, nahiz eta arlo honetan arazo nagusia belar-naldi erreleboa den. Askasibarri egindako elkarrizketa aldizkari honetako 25. orrialdean irakurri daiteke osorik.

## Izen ematea

Baso jardunaldiotan parte hartzea doan izango da, baina antolatzaileek aurrez izena ematea eskatu dute. Horretarako, Fraisoro eskolara deitu (943692166 telefono zenbakira) edota [fpfraisoro@hazi.eus](mailto:fpfraisoro@hazi.eus) helbide elektronikora mezu bat idatzi beharko dute saioetara joateko interesa dutenek.

## Ibarrean, biztanleen %6,30 dira Espainiako Estatutik kanpokoak

Eustaten arabera, 2015ean baino 80 gehiago daude, baina, proportzionalki, gutxiago dira (%6,37 ziren iaz)

### L.K./M.T. DEBAGOIENA

Hego Euskal Herritik zein Espainiar estatutik kanpo jaiotako 4.668 atzerritar bizi dira egun Debagoiengan, Eustatek kalera-tutako datuen arabera. 2016ko urtarrilaren leko populazio estatistikaren arabera dira datu horiek. 2015ean baino 80 atzerritar gehiago dauden arren Debagoiengan, proportzionalki, gutxiago dira (%6,37 ziren iaz).

### Herriz herri

Honakoak dira Debagoieneko herriz herriko datuak, 2015eko-eko aldearekin: Antzuola: 91


(-13), %4,09; Aramaio: 65 (-9), %4,2; Aretxabaleta: 403 (-16), %5,77; Arrasate: 1.902 (+60), %8,68; Bergara: 1.131 (+30), %8,68; Elgeta: 81 (-2), %7,37; Eskoriatza: 237 (-11), %5,78; Leintz Gatzaga: 16 (=), %6,53; Oñati: 742 (+41), %6,58.

### Gehienak hegoamerikarrak

Atzerriko biztanleen artean, %36 hegoamerikarrak dira, Espainiako batez bestekoa (%23) baino dezente gehiago. Multzo horretan, biztanle gehienak Boli-iviakoak, Kolonbiakoak, Nikaraguakoak eta Paraguaiakoak.

## EAEko estatistika mapa

ITURRIA EUSTAT



BIZTANLEEN DUAL ESTADISTIKA 2016KO URTARRILAREN 1EAN

## Chernobil elkarteak 40 harrera familia lortu nahi ditu udarako

Abenduaren 19an iritsiko dira Gabonak Euskal Autonomia Erkidegoan igaroko dituzten haurrak

### M.T. DEBAGOIENA

2017ko udarako harrera-familiak lortzeko kanpainari hasiera eman dio dagoeneko Chernobil elkarteak. Datozen asteetan, informazio bilerak egingo dituzte informazioa emateko eta elkar-teen lana azaltzeko.

Ukrainan, Txernobyngo zentral nuklearraren istripuak kutsatutako gunean bizi diren hurrek aire garbia arnastea du helburu elkarte honek. Aurten 30 urte bete dira istripu hartatik, eta elkarteak hogeigarrenez jarri du martxan harrera plana.

Elkarteko boluntarioek Ukrainatik atera beharra duten 40 kasu larri topatu dituzte, eta harrera-familia aurkitu nahi diete "derrigorrez".

### Gabonetako egonaldia

Datorren abenduaren 19an Loiura iritsiko dira Gabonetako oporrak Euskadin igaroko dituzten 30 haurrak. Harrera-familiak eurek eskatuta antolatzen du elkarteak Gabonetako programa, eta parte hartzea borondatezkoa da. Urtarrilaren 21era arte izango dira hemen haurrak.

## Jardunaldien egitaraua

Hiru egunetan egingo dituzte basoaren gaineko jardunaldiak eskualdean. Lehen bi saioak teorikoak izango dira eta azkenengoan, berriz, irteera bat egingo dute.

### Abenduak 12, Oñati (Santa Ana aretoan)

- **15:00-15:45** Concepto de bosque, Jorge Askasibar (Basoa fundazioa).
- **15:45-16:30** Bertako basoa, Jon Zulaika (Naturtza-india elkarte).

- **16:30-17:15** Kontserbazioa barne hartzen duten plangintzak, Iñigo Moreno (Eguzki-Ihintza).
- **17:15-17:30** Atsedena.
- **17:30-18:15** Gaitzak, Amaia Urkola (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- **18:15-19:00** Laguntza lerroak, Maialen Galparsoro/Valentin Mugertza (GFA).

### Abenduak 14, Bergara (Udaletxean)

- **15:00-15:45** Explotación forestal, Fernando Otazua (Gipuzkoako Baso Elkarte)

- **15:45-16:30** Bosque mixto, Jesus Garitazelaia (baso kudeatzailea)
- **16:30-16:45** Atsedena.
- **16:45-19:00** Mahai ingurua. Moderatzailea: Jorge Askasibar. Parte hartzaileak:
  - Fernando Otazua
  - Jesus Garitazelaia
  - Jon Zulaika
  - Kepa Albisu (Central forestal)

### Abenduak 17

- Irteera Arrasateko Zaburdira eta Oñatiko Lezesarria.



## Tigrea meriendatzera dator

MANEX AGIRRE

[HTTPS://GOO.GL/1G9XFV](https://goo.gl/1G9XFV)

Esan izan didate kalean, ezagunek, normalean adinekoek, honelakorik: "Hara, umeak hazi dituzu jada eta!". *Hazi* aditza aldaera iragankorrean erabilia, nolabaiteko aitortza adierazten didatela iruditzen zait, ondo egindako lan bati esker ona, eta halako plazer perbertso batez puztu egiten naiz, gajoa ni; zer gutxi behar dugun lo-ezak eta desesperazioak une batez ahazteko, ume txikidun guraso sufrituok.

Orain, hazkuntza-lanek hala aginduta, lehen begiratzen ez genuen postuetan begiratzen dugu Durangon, eta ez da faena bat, dimentsio berri batera sartzeko giltza baizik. Merkatua merkatua da, eta dena ez da harribitxi, baina umeentzako literaturan gauza

benetan ederrak ditugu gaur egun, eskura eta euskaraz (iritsi-berriaren poz inozente eder hori, badakizue). Klasiko batekin itzuli gara aurten etxera, *Meriendatzera etorri zen tigrea*, Judith Kerr-ena (Kalandraka).

Espoilerrik gabe, hona hemen ipuinaren abiapuntua. Ama eta alaba etxean daude meriendatzen. Norbaitek tinbrea jo du, harrituta daude, ez baitzuten inor espero. Hara non, alimaleko tigre bat den, bere tamainako gosea dakarrena, eta edukazio bikainez, bere burua auto-gonbidatzen du meriendatzera. Ama-alabek, izututa leihotik salto egin beharrean, natural egiten diote harrera, eta aulkia eskaini, tea har dezan. Umore anglosaxoia du ipuinak borborka, eta funtzionatu egiten du, bai helduengan, bai umeengan.

Liburuarekin bueltaka gabilta umea eta biok aste

honetan, eta gozamen hutsa da, serio. Eta gainera, tigre eta guzti, umea hazten ari naizela sumatzen dut, eta badudala nire lekua lan horretan. Ordea, horrek berez dakarren arriskuaz azkar ohartzeara hobe: aditzak, iragankorretik iragangaitzera pasatu behar duela, ezinbestean, eta, denborarekin, gero eta gehiagotan, gurasoak tratatit kenduta (batzuetan traba besterik ez dugu egiten), umea hazi egingo dela, besterik gabe, natural.

## Mila pauso, mila esker!

### ITXARO ARTOLA

ARRASATEKO EUSKALGINTZAREN IZENEAN  
ARRASATE

Arrasateko Euskalgintzaren izenean, eskerrik asko eta bejondeizuela Euskararen Eguneke ekitaldian parte hartu zenuten guztioi.

Arrasate Musikaleko Banda,  
Lore Gazteak eta  
Arrostaitzeko dantzariak,

Portaloiko kanta zaleak, Patxi Montero eta Herrixa Dantzaneke lagunak, Udaxpe taldeko txistulariak, sokadantza osatu zenuten euskaltzale eta dendariok, plazara gerturatu zineten herritarrok, ospakizun festa eder bezain esanguratsua lortu zenuten denon artean.

Izan bedi eredu eta akuilu pausoak ematen jarraitzeko, urtean 365 egunez, euskararen erabileran. Baietz izan!

## Austriarren abilezia

LUIS ARANBERRI 'AMATIÑO'

[HTTPS://GOO.GL/L4F4TQ](https://goo.gl/L4F4TQ)

Erreferendumak joeran omen dauden honetan, atera bai kalera mikrofonoa eskuan hartuta eta galdetu jendeari pasatu ahala: nongoa zen Hitler? Eta hamarretik bederatzik erantzungo dizu: alemana. Ondotik, berriro galdetu: eta Beethoven? Eta gehienek austriartzat joko dute. Distortsio hau omen da

sekula Herri batek historiari sartu dion ziririk handiena.

Austriako agintarien erabakia da Adolf Hitlerren jaiotetxea erabat itxuraldatzea, nostalgik jotako neonaziek bertaraino erromes joaterik izan dezaten. Baita –nik uste–, bide batez, Hitler zenaren gaineko turismo-arriskua murrizteko ere. Austriak ez du Hitlerren memoria nabarmenagirik hurbilean nahi. Eta ez gizarte ezkertiarrik petoena edo aurrerakoirik ereduagarriena delako, arazorik nahi ez duelako baino.

Benetan zein txantxetan, auzoko austriarrei ezin ukatuzko abilezia bikoitza leporatu ohi diete alemanek oro har eta historialariek gehienbat. Austriak ez baitu soilik lortu munduak Hitler militar austriarra alemaniar austriarra Beethoven alemaniar musikari handia austriarra bailitzan azaltzea ere.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus)

# Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna





ZABALIK

AITZOL ITURBE BERISTAIN

# Eskerrik asko, Kuba!

Nire ezagutza apurretik, Kubari buruz.

Batetik, horrelakoetan "bi aldeetakoak" erakusteko jarrera duten komunikabideei ezinezko egin zaie kubatarrek Fidelekiko eta iraultzarekiko duten atxikimendua ezkutatzea.

Bigarrenik, Fidel horren pertsonaia garrantzitsua bada, berak eta bere herriak aurrera daramaten eta munduko botereei horrenbeste min ematen dien proiektu politikoarengatik da. Finean, interes orokorra gutxi batzuen interesen gainetik jartzea bezain gauza sinplean datza. A, eta ez gaitezen nahasi, ez die min ematen –soilik– ezin dutelako Kuba esplotatu, mundu osoarentzako herrien eta pertsonen askatasunaren eredu bizia delako baizik.

Hirugarrenik, barregura sartzen zait gure "demokrazietatik" Kubari lezioak ematen dizkiogunean. Batetik, gure buruzagiek TTIP sinatu eta multinazionalen esku jartzen gaituzten

## BERAIEN BIZITZEK, GUREK EZ BEZALA, EZ DUTE SARRASKIRIK ERAGITEN PLANETAN

bitartean, Fidelek Obamari esan berri diolako Kubak ez duela beraien laguntzarik behar, beharrezko duten gehientsuena ekoizteko gai direlako. Bestetik, Kubari "irekitasun politikoa" eskatzea begiak itxita edo intentzio oso txarrez hitz egitea delako.

Ezinezkoa da mundu nagusiki kapitalista batean – kapitalismoaren bihotzetik 100 kilometrora –, etengabeko blokeo eta jazarpena jasanaz –600 heriotza saiakeratik gora Fidele aurka, konkista saiakerak, Guantanamo...–, sozialismorantz jotzen ari den herri bati normaltasuna eskatzea. Lezio gutxi, beraz, egin dezagun mundu sozialista bat eta ondoren eska diezaiozun Kubari irekitzeko.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Kubaren elkartasun internazionalista. Beraien bizitzek, gurek ez bezala, ez dutelako sarraskirik eragiten planetan, batetik; eta bere buruarentzat erabil ditzakeen errekursoak bera baino egoera okerragoan daudenei laguntzeko erabiltzeagatik, bestetik. Gurean GKEek egiten dutena Kuban estatuak egiten du. Galdetu bestela sahararrei, vietnamdarrei, angolarrei, palestinarrei... edota ebola gordinen jasan duten herrialdeei.

Eskerrik asko, Kuba! Agur eta ohore, Fidel! Gora, Euskal Herria sozialista!

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## ZEUK ESANA

### Basurde-kopurua hazi egin da eta haien ehiza-denboraldia hilabete luzatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak; ze diozu?

#### BATGEHIXAU

DEBAGOIENA

Basurdearen irrintzia, ehiztariaren izua!

#### WINCHESTER 73

ARRASATE

Ba, kontuan hartuta basurdeak haurdun egoten direla martxo inguruan, astakeria hutsa iruditzen zait haien ehiza-denboraldia luzatzea apirilera arte.

Sarraskia izango da gure basoetan, eta ehiztariak dira irabazten duten bakarrak.

#### AIMAR DEFONDO

ARRASATE

Epe bat baldin badago ehiza mota horretarako, zertarako luzatu? Haurdun dauden basurdeak akabatuko?

Basurdeen ehiza-epearekin hasi badira, zergatik ez beste espezie batzuetara hedatu?

#### BAGABIGAHIGA

DEBAGOIENA

Galdera honela ere egin dezakegu: Gipuzkoako Foru Aldundiak ala Gipuzkoako baserriarrek luzatu dute?

Izan ere, argi dago nork egin duen presioa Foru Aldundian epe hori luzatzeko. Basurdeek sekulako triskantzak egiten dituzte baserri inguruetan: ortuetan, larreetan, zelaietan, baserriko abereengan...

Nik neuk argi daukat nork luzatu duen epe hori: baserriarrek.

Hala ere, duda bat daukat: ehiztariak ados daude? Eta denak akabatzen badituzte? Datorren urtean zer?

Arma, tiro, pum!

### HURRENGO ZENBAKIAN: GABONETAKO ZUHAITZAK, NATURALAK ALA ARTIFIZIALAK?

Iritzia emateko posta elektronikoa: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) / Webgunea: [goiena.eus](http://goiena.eus).

# goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura), Leire Kortabarria (Ekonomia).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.  
Erredaktore burua  
Ubane Madera.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Gaiatz Arana.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

#### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## PROTAGONISTA

# "Ikastolen aurrekontuen %5 estaltzen dugu otarreekin"

**BEÑAT ETCHEBEST** EPERRA IKASTOLAKO ORDEZKARIA

**Mireia Bikuña** ARRASATE

Zuberoako ikastolen alde dirua batzeko, Gabonetako otarreak erosteko kanpaina azken egunetan sartu da. Abenduaren 11 da saskiak eskatzeko azken eguna, domeka. Beñat Etchebesti kanpainaren garrantziaz galdetu diogu.

**Domeka baino lehen, non eska daitezke otarreak?**

*Ikaskoli.eu* atarian sartu eta han eskatzen diren pausoak jarraitu besterik ez dago. Domeka izango da eskariak jasotzeko azken eguna. Hilaren 16an otarreak prestatuko ditugu eta 19an egingo dugu banaketa, ohiko lekuetan.

**Bi otarre dituzue aukeran. Biak ere Iparraldeko produktuekin.**

Ardi-gazta, ahate-gibela, bizkotxo-poltsa, ezti, txerriki-patea eta txerriki-odolkia dira produktuak. Otarreak 41 eta 52 eurokoak dira.

**Nolakoa da erantzuna?**

Egia esan, oso ona. 2003an hasi ginen otarren



Eperra ikastolako kide Beñat Etchebest. **BEÑAT ETCHEBEST**

salmentarekin eta hazten joan den ekimena da. Iaz, 1.500 otarre saldu genituen. Izugarria izan zen. Aurten, motelago gabiltza. Oraingoz, 1.100 eskaera jaso ditugu, baina pozik gaude.

Iparraldeko produktuak direnez, gehienbat, hegoaldean saltzen dugu: Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan. **Diru-sarrera garrantzitsua da zuendako?**

Zuberoako bi ikastolendako diru ekarpen garrantzitsua da. Gure aurrekontuaren %5 da. Badirudi kopurua txikia dela, baina guretzat oso inportantea da. Iaz, adibidez, langile baten jarduna ordaindu ahal izan genuen otarreen salmentarekin.

**Eta gainerako aurrekontua nola estaltzen duzue?**

Beste hainbat ekintza egin behar izaten ditugu. Izan ere, Hezkuntza Ministerioaren laguntzarekin ordaindu ezin diren irakasleen jardunak eta egoitzaren beraren mantenua eta beste hainbat gastu gurasoen ekarpenei esker estaltzen ditugu: zaintzaileak, garbitzaileak, garraioa, kantina... Gure probintziako haurren %15 ikastolan daude. 150 ikasle inguru.

**Zeintzuk dira ekintza horiek?**

Pastoralak egiten ditugu, beste jai edo ekitaldi batzuk daudenean ikastolaren kantina ipintzen dugu... Herri batzuek laguntzen gaituzte. Euskaldun edo euskaltzale diren enpresek ere bai. Baina ekarpenak oso gorabeheratsuak dira. Akaso, 3.000 euroko ekarpena egiten dute edo ez dute ezer ematen. Datu deigarri bat: bi haurretatik batek euskaraz ikasten du, baina herritarren %80k ez dute dirurik ematen.

## HAU BE BADOGU!

**#51DA Durangoko Azokako traola, nagusi**



Sare sozialetan nagusi izan da Durangoko Azokaren #51DA traola, azokak iraun duen bost egunetan. Goienak, aurten ere, Azoka Telebistan parte hartu du:

@durangokoazoka: "#51DA @azokatelebista-k 100 elkarrizketatik gora, eta egunero 10 orduko emisioa izan du. Hedabide ezberdinetako elkarlanaren fruitua da".

**40 urte bete ditu Atotxako ikurrinak**



Realaren eta Athleticen arteko derbian, ikurrina eskuan zutela atera ziren berdegunera Kortabarria eta Iribar kapitainak. 1976. urtea zen, eta ikurrina legez kanpokoa zen oraindik. Sare sozialetan gertakariaren 40. urtemuga gogoratu dute.

**Kritikak, 'El padre de Caín' telesailari**

Tele5 kateak *El Padre de Caín* telesaila estreinatu du eta "GAL zuritzen duela" salatu dute askok (Rafael Vera Estatuko Segurtasunerako idazkari ohiak idatzitako liburuan oinarritua dago). Gaia *trending topic* izan da eta martitzeneko emanaldi ikusiena EAEn.

@pilizabala: "Cainen aita? Europako interes ekonomikoko taldeen aita esango nuke nik" (itzulita).

@gabrielrufian: "Rafael Vera #ElPadreDeCain egiten dabilen bitartean beste gauza batzuetan ez dabilela da berri ona" (itzulita).

## ITURRI ONETIK

## Zeinek esne gehiago jetzi

Antzuolako eta Arrasateko baserritar banak apustua egin dute, 15-20 minutuan zeinek esne gehiago jetzi. Jokoa dute "norberaren ohorea". bihar, zapatua, da norgehiagoka bitxi hori, Antzuolako plazan, 13:00etan. Behiak Eskoriatzatik eramango dituzte.

Ez Dot Moztuko Bizarra elkarteak antolatuta du apustua, euskal presoena eta iheslarien aldeko Kalera Kalera ekimenari atxikimendua adierazteko. Hori horrela, apustuaren aurretik, 12:30ean elkarretaratzea egingo dute.

## GORA ETA BEHERA



G.M.

**Eta gurpil aulkiak nondik pasatuko dira?**



"Batzuek uste dute espaloia aparkatzeko ere badela, eta arratsalde-gauean eta igandeetan, udaltzain gutxiago daudenean, aprobeztatzen dute bertan aparkatzeko. Okerrena da 200 metro gorago aparkalekua dagoela", diote Aretxabaletako Txarapeatik; gurpil aulkiarekin errepidera jaitsi behar eta ia lurrera erori izana ikustea ere tokatu zaio.





Alvaro Arregi, Josemari Velez de Mendizabal, Jose Angel Barrutiabengoa, Naiara Corcuera, Antton Zabaleta, Itsaso Beitia eta Aitor Zubiaga, erortzeaz dagoen Etxezarretako eraikinetako baten barruan. JAGOBA DOMINGO

#### Jokin Bereziartua ARRASATE

Gaur egun Etxezarreta moduan ezaguna den eremua bisitatzen duen herritarrek sagasti-etxea izan zenaren arrastoak eta XIX. mende bukaeran eraiki zen lorategi botanikoaren lekuko den begetazioa ikusi ahal izango ditu. Leku ikusgarria izan arren, itxura goibela dauka egun, ez dagoelako behar den moduan zainduta.

Hasteko eta behin, eremuaren azalera handiak ematen du atentzioa. 83 hektareako azalera duen lursaila da Etxezarreta, Arrasateko ekialdean kokatua. AP-1 autobidearen sarrera ingurutik hasi eta Kortapoto deritzon mendi magal guztia hartuz Elorregiraino-San Prudentzio-iristen da. Muga egiten du, beraz, Oñatiko eta Bergarako udalerriekin. Ingurumen ikuspegitik begiratu, Naturtzaindiak uste du lursail "oso interesgarria" dela. Kasu erabat ezohikoa da Etxezarretarena, Gipuzkoan batez besteko lursailen azalera askoz txikiagoa izaten delako; lurraren jabea oso atomizatuta dago eta hori arazo izaten da ingurumen hobekuntzaren ikuspegitik proiektu eraginkorrak martxan jartzeko.

#### Pribatua eta zati bat babestua

Lursailaren barruan gunek babestua dago, Arrasateko Udalen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) jasotzen duenez. Eraiki ezin den lurzoruaren eremu banaketan, babes

# Ondare pribatua "altxor" bihurtzea

Udalak Etxezarretako eremua erosteko dagoen "aukera aparta" aprobetxatu behar dela diote Besaidek eta beste zenbait eragilek; alderdi politikoei eskatu diete aurrekontuetan gaia sartzeko, kudeaketa era eta diru-laguntza lerro posibleak jakinaraztearekin batera

bereziko eremu bezala dago jasota (2.8.Etxezarreta). Hau da, lursailaren beheko alde, erreka ertza eta bertako basoa dagoen tokia. Gainontzekoa basogintzarako lurzorua da eta *insignis* pinuaren landaketa dago bertan. Pinudiak hartzen du gaur egun mendiaren zati handiena, 65 hektarea, hain zuzen ere. Pinu horiek 1976an landatutakoak dira eta zuraren aprobetxamendurako zuhaitz mozketak egiten hasita daude.


#### Ondare natural handia

Naturtzaindiak egindako txosten teknikoan hiru atal nabarmen izaten dira ingurumen ikuspegitik Etxezarretako duen aberastasuna deskribatzeko.

Lehenik eta behin, Europar Batasunaren intereseko bi habitat mota daude: haltzadia eta txilardia. Haltzadia ibaiari lotutako baso mota da, Debarroan gune gutxitan kontserbatzen dena. Etxezarretakoa kontserbazio egoera onean dago –esku-mako ibai ertzean–, Debarroko haltzadi interesgarrienetakoa da. Bertan aurkitu da landare bioaniztasun mailarik handiena Arrasateko udalerriri dagokionez. Ibai ekosistema hobetzen jarraitzeko –legeak hala agintzen du, Naturtzaindiak gogora ekarri duenez– ezinbestekoa da haltzadia kontserbatzea eta haren egoera hobetzea: "Horretarako, ibai bazterra lurzoru publikoa izatea garrantzitsua da". Txilardia ere babestu beharreko ha-

## Ondare natural handia duen 83 hektareako eremua

ITURRIA: NATURTZAINDIA





bitat mota da Europar Batasunaren arabera; gaur egun goi tentsioko linearen azpian gertatzen da txilardia.

Bigarrenik, hariztia mantentzen du Etxezarretak. Gipuzkoan, Arrasate barne, ia desagertzeraino murriztu dira hariztiak: "Zorionez, Etxezarretan mantendu egin da bertako basoaren testigu bikaina, ez delako egon gizakiaren esku-hartzerik hamarkada batzuetan. Hori altxor bat da".

Hirugarrenik, Rafael Ariza Etxezarretak XIX. mende amaieran eraikitako "garrantzi handiko" lorategi botanikoa dago. Gaur egun ere begetazio ikusgarria dauka, zuhaitz espezie konposizioa, horien adina eta tamaina aintzat hartuta. Ariza Etxezarretak lorategi ederra sortu zuen erreka bazterrean eta aniztasun handiko arbola exotikoak landatu zituen: sekuoia erraldoiak, Atlasko zedroak, Lawsoneko nekostak, araukariak... Askok 100 urte baino gehiago dituzte eta beste ale batzuk galdu egin dira. Sagastietatik gertuago, meriendarako mahaia jartzen zen lekuan, garapen handiko zuhaitzak daude: ereinotzak, makal kanadarrak, gorostiak, magnolioak, haginak, izeiak, Jupiter zuhaitza...

**Azaleratu beharreko "altxorra"** Etxezarreta eremu publiko bihurtzearen aldekoek diote "aukera aparta" duela Arrasateko Udalak



Etxezarretako liburutegiko dokumentuekin, tartean 1906ko aldizkari bat. J. DOMINGO

"ingurune paregabe" hori erosteko: "Bertako ondare historikoa aitortzea eta balioan jartzea, ingurumena babestea eta hobetzea eta herriari aisialdirako kalitatezko espazio bat eskaintzea ahalbidetzen du Etxezarretak". Etorkizunean arrasatearrendako aisialdirako natur-gune bat izan daitekeela sinetsita daude: "Azaleratu behar den altxorra da Etxezarreta: bere lorategi ederrarekin, ibaiari lotutako aisialdi gunearekin eta baso zoragarriarekin. Inguruaz gozatuz, kirola egiteko, lagun artean egoteko, umeekin jolasteko, ibilaldiak egiteko, irakurtzeko... Eta hau guztia herritik irten barik". Gaineratu dutenez, gaur egungo bidegorriak -Vasco Navarro trenaren bidea aprobetxa-

tzen duena- jende asko erakartzen du eta ez litzateke esfortzu handirik egin beharko herritarrak bertara erakartzeko.

#### Kudeaketa eta diru-laguntzak

Etxezarreta 18 jabez osatutako komunitate batena da gaur egun eta komunitate horren bozemaileak Diputazioko basoen zuzendari ohi Julian Unanuek daraman enpresaren eskuetan utzi zuen kudeaketa: "Jabeek mozketarekin eta salmentarekin dirua irabaziko lukete, 40 urte barru ez dira-eta hemen egongo".

Sustatzaileek diote eremua publiko egiten bada kudeaketa modua Udalaz kanpokoa izan daitekeela: "Zaintza erakunde batekin borondatezko akordio bat sinatu daiteke, betiere, bio-

niztasunaren kontserbazioa helburu duen erakunde batekin". Proposatzen dute, esaterako, kanpoko erakunde horrek kudeatzea lursail guztia, basoa barne, eta Udalak kudeatzea etxe ingurua eta lorategia. "Lursailaren eremu ezberdinen ezauzgarriak kontuan hartuko lirateke eta helburuen araberako zonifikazioa egingo litzateke, esate baterako, kontserbaziorako eremua, erregenerazio-eremua eta aisialdirako eremua definituz", gaineratu dute.

Bestalde, eremua erosteko diru-laguntza lerroak daudela gogora ekarri dute. Udalari proposatzen diote bereziki Gipuzkoako Diputazioak basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko laguntza lerroaren barruan, natura babesteko eta bertako landaredia sustatzeko helburuarekin ematen den laguntza dela interesgarriena: "Sartutako espezieak hazkunde ertainekoak eta bertakoak direnean -eta Etxezarretan hariztia birsortu beharko litzatekeenez, horrela izango litzateke- diru-laguntza % 90ekoa izan daiteke". Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean ere badira diru-laguntza lerroak.

Hau guztia aintzat hartuta, anbizioa eskatu dute: "Gure ondorengoendako proiektu bikain bat gauzatzeko aukera du Udalak eta horretarako gure laguntza guztia izango du. Anbizioa izan dezagun gai honekin".



J.D.

## "Borondatea eta anbizioa behar dira"

AITOR ZUBIAGA BESAIDE ELKARTEKO PRESIDENTEA

Zubiaga buru-belarri dabil azkenaldian Etxezarretako proiektuarekin, sinetsita dago aukera aparta dela. **Zergatik izan behar du orain? Zergatik dago gaia une erabakigarrian?** Bagenekien jabeen aldetik eremua saltzeko interesa zegoela, baina pinuen mozketak hasita daude egurra aprobetxatzeko. 65 bat hektarea hartzen du pinudiak eta hain da handia saila bideragarritasun plan bat eskatzen zuela. Plan horretan jasotzen da *Abeto douglas* pinua landatzea. Ez badugu ezer egiten berriro hasiko dira landatzen. Hori gertatu aurretik gura dugu Udalak bere egitea eremua, publikoa izanda beste era batera kudea daitekeelako. Helburua da arrasatearrek etorkizunean parke eder bat izatea, baina jakin behar dugu borondaterik eta anbizioz dagoen edo ez. **Nola doaz harremanak Udaleko ordezkariarekin?** Alderdiekin egon gara eta egunotan ari dira proiektua aztertzen. Sustatzaile izan gabe, EAJ beste bide batzuk ari da aztertzen eta EH Bilduk, Baleiek eta Irabazik sartu dituzte gaiarekin lotutako emendakinak 2017ko aurrekontuei begira. Giro adiskidetsua behar dugu taldeen artean, liskarrik gabe. Alderdien arteko adostasuna posible dela uste dugu; herriaren onerako izango da.

## Sustatzaile sare zabala

Besaide Mendizale Elkartea aritu da orain arte proiektuaren gidari lanetan, baina badira beste zenbait eragile ere: Naturtzaindia, Sustraiarri edo Arrasate Zientzia Elkartea, kasu. Ekimenera batu dira, gainera, Josemari Velez de Mendizabal idazle ezaguna eta Alvaro Arregi Arrasateko alkate ohi. Eta, argazkian egoterik izan ez badute ere, beste izen esanguratsu batzuen babesa ere jaso du egitasmoak. Esaterako, Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista ezagunak bat egiten du proiektuarekin.

## Rafael Ariza Etxezarretaren ondarea

Etxezarreta eremuaren lehen erreferentziak 1773koak dira, baina XIX. mende amaierakoak eta XX. mende hasierakoak dira istorio interesgarrienak. Rafael Ariza Etxezarretaren garaikoak, hain justu. Severina Etxezarreta eta Rafael Ariza Espejo zituen guraso eta harreman hartatik, Rafael bera eta Severina arreba jaio ziren, Madril; gaur egun Etxezarretako lorategian daude lurperatuta. Gurasoengandik herentzian jaso ostean, 1902an etorri zen Rafael Etxezarretara bizi izatera. Kultura maila altuko gizon aparta zen eta oso ezaguna egin zen Arrasaten. Felix Arano maisuaren lagun-mina zen eta baita Biteriren jarraitzaile sutsua ere. Etxezarretako liburutegian



Ariza Etxezarreta. VELEZ DE MENDIZABAL

gai eta hizkuntza askotako milaka liburu gordetzen zituen, eta Pio Baroja edo Gregorio Marañón bezalako idazleak sarri joan ohi ziren bertako liburutegira. Diotenez, Pio Barojak *El cura de*

*Monleón* idatzi zuen bertan. Bide, portu eta kanalen ingeniari zen eta etxe erditik pasatu behar zen trenbidea erreka bazterrean desbideratzea lortu zuen horretarako planoak zuzenduta eta egokituta. Rafaellek gogor heldu zion sagardo ekoizpenari eta bereganatu zituen teoria eta teknikei esker Arrasatek kanpo ere saltzea lortu zuen. Kontuan hartu behar da *Sagasti-Echea* -izen horrekin zen ezaguna orduan- Euskal Herri zein Europa mailan, baserri puntakoetako bat zela teknologikoki; basogintzan, abeltzaintzan zein hegaztien hazkuntzan. Botanika zen haren beste pasioetako bat; aniztasun handiko lorategi ederra sortu zuen. 1934an hil zen eta orduan hasi zen galtzen sagasti-etxe eta Etxezarretako ondarea.

# Espaloiak autorik gabeko guneak izateko lanean

Abenduaren 18ra arte, espaloi gainean aparkatzen duten gidariei debekua gogora ekarriko die Udalak eta ondoren isunak jartzen hasiko dira; Mugikortasun Plan berriaren lehen diagnosiaren arabera, oinezkoentzat arazo nagusia dira espaloi gaineko ibilgailuak

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

Aparkalekua aurkitzea ezinezkoa zaienean, gidari askok autoa espaloi gainean aparkatzen dute. Badago, salbuespen gisara, hori ahalbidetzen duen gune bat; Araba etorbidean, autoak espaloi gainean aparkatu daitezke horretarako propio marraztutako aparkalekuetan. Salbuespenak salbuespen, baina, espaloi gainean aparkatzeko ohitura errotik aldatu gura du Udalak eta horretarako lanean dihardu buru-belarri. Gorostiza auzoa (Malbinak) da adibide garbi bat, eta, horregatik, alde aurretik autoen haizetakoetan espaloian aparkatzearen debekuz ohartarazten zuten oharrak jarri ostean, azaroan hainbat isun jarri zituzten udaltzainek.

Munar inguruan, argazkian ikus daitekeenez, hainbat auto daude espaloi gainean aparkatuta eta horietan asteon jarri dituzte informazio-oharrak. Bandoak ere jarri dituzte hainbat ataritan. Udal Gobernuaren asmoa da abenduaren 18ra arte eustea informazio kanpainari. "Ondoren, egoera bera errepikatuko balitz eta autoek lekuz kanpo aparkatzen jarraituko balute, Udalak, ezinbestean, araudiak jasotako penalizazioa jarri beharko die".

**Ondo aparkatzea helburu**

Isunei dagokienez, arau-haustearen arabera izango da ordaindu beharreko kopurua. Oinezkoen bidea oztopatzen ez bada eta autoa ez badago erabat espaloira igota, 50 euroko isuna ezarriko da. Aldiz, ibilgailuaren lau erruberak espaloi gainean badaude eta autoak oinezkoen igarobidea oztopatzen badu, isuna 200 eurokoa izango da.

Gobernuaren arabera, kasu horietan ohikoena izango da garabiak eramatea autoa, horrek dakarren 92 euroko gain-kostuarekin. Gobernuak argi utzi gura



Espaloi gainean aparkatutako hainbat auto Aragoa kalean, asteon. J.B.

## KANPAINA AMAITU OSTEAN ONDORIOAK AZTERTU ETA HORREN ARABERA HARTUKO DIRA ERABAKIAK

izan du asmoa ez dela isunak jartzea, gidariak ondo aparkatu dezatela lortzea baizik: "Kanpaina amaitzerakoan aztertuko ditugu ondorioak zeintzuk izan diren eta horren arabera hartuko ditugu erabakiak. Akaso, informazio kanpaina luzatu egin beharko dugu edo kale jakin bateko bizilagunekin elkartu beharko gara... Aztertuko dugu".

**Oinezkoek salatutako arazoa**

Udal Gobernuak dio azken helburua dela gaizki edota espaloi gainean aparkatzen duten ibilgailuen kopurua murriztea eta, modu horretara, oinezko guztientzat segurua izango den herri irisgarriagoa eta atseginagoa eraikitzea.

Izan ere, Mugikortasun Plan berria idazten ari da Udala eta horren barruan "arreta berezia" jarri dio egungo aparkalekuen

egoerari: "Ugariak izan dira antzeman ditugun arazoak, baita herritarrengandik jasotako kezak ere. Ibilgailu asko dira espaloi gainean aparkatzen dutenak eta horrek izugarri kaltezen ditu herriko auzoak eta espaloiak". Gaineratu dute oinezkoen segurtasuna ere arriskuan jartzen dutela: "Zenbait eremutan, tokirik ez dutenean, errepidera irten behar izaten dira aurrera jarraitu ahal izateko. Mugikortasun Plana garatzeko egin berri den diagnosis oinezkoek identifikatu duten arazo nagusia izan da ibilgailuak espaloietan topatzearena".

**'Eskolara oinez' kanpaina**

Bestalde, Agenda 21 ekimenaren barruan kokatzen den *Eskolara oinez* kanpaina ere aipatu du Udalak. Kanpaina horren barruan, autobusa edota gurasoen autoa alde batera utzi eta zenbait ikasle oinez joan ziren eskolara irailan, betiere, helduek lagunduta. Bada, ekimen horretako ondorioetako batzuk izan ziren zenbait ibilgailu topatu zituztela espaloi gainean; diotenez, horrek ume eta gaztetxoek segurtasuna arriskuan jartzen du.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

## Erdararen alde, askatasunean!

Bai, niri erdara gustatzen zait. Erromatarren kultura ederrarekin lotzen gaitu eta hori Europa guztiak zaindu beharko luke. Diotenez, gaztelarak gorde du latinaren fonologia zintzoen; eta, horregatik, ondasun baliotsua da.

Dena dela, kontuan hartu behar da oso zaila dela ikasteko, batez ere aditzak: *ir, voy, yendo, vamos, id, vayamos, fuisteis...* guztia aditz bakar bat jokatzeko! Euskaraz aditz taula batekin konpon daiteke aditzen paradigma guztia, baina posible ote da hainbeste irregulartasunekin gaztelera hizkuntza moderno bat izatea? Kar, kar! Denon artean, jendea motibatu egin behar dugu erdara ikastera, oso ipuin eta abesti politak dauzkalako (*El Quijote, Living la vida loca...*). Baina derrigortu gabe. Izan ere, derrigortzeak jendea kontrako jarreretara eramane dezake, eta bada garaia gaztelaren mundua askatasunarekin lotzeko.

Nahi duenak ikas dezala, trabarik gabe eta diru-laguntzekin, baina akatsa da gaztelera bezalako hizkuntza bat, Berlinen, Londresen, Beijinen, Washingtonen... erabilgaitza dena, eskoletan eta lan munduan inposatzea.



IMANOL SORIANO

## Euskara ahoan, eskutik eskura

Euskalgintzak antolatuta, kalejiran, kantuan eta dantzan irten ziren hainbat arrasatear Euskararen Eguna ospatzeko. *Baietz 1.000* erronka lortu izana ospatzeaz gain, *Batzen* dantzara ere batu ziren hainbat herritar. Portaloi taldearen eskutik euskal kantak ere entzun ziren eta amaitzeko soka dantza egin zuten euskalgintzako hainbat ordezkari eta merkatari.

ARRASATE IRRATIA



## Aitor Furundarena eta Josune Murgoitio

Datorren astean, Hauspoz elkarteko presidente Aitor Furundarena egongo da *Igo autobusera!* saioan, asteburuan ospatuko diren akordeoi lehiaketek eman dutena laburtzeko. Era berean, Josune Murgoitio kazetari eta idazle arrasatearra ere etorriko da, eta *Colores Prohibidos* izenburu duen bere azken liburua aurkeztuko du.

## Belako taldearen zuzenkorako sarrerak

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, kontzertua eskainiko du Mungiako (Bizkaia) Belako taldeak abenduaren 15ean gaztetxean (22:00). Kontzertu horretarako sarrerak zozketatuko dira egun berean; gainera, *Colores Prohibidos* liburuaren ale bat ere zozketatuko da. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo [irratia@goiena.eus](mailto:irratia@goiena.eus).



# Kartzelak "behingoz" husteko ekimen berriak

Euskal preso eta iheslari ohiek 'Kalera, Kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera' lelo duen dinamika abiatuko dute bihar Usurbilen, urtarrilaren 8ra arte; Arrasaten hainbat ekintza izango dira 15etik 17ra: itxialdia, ziega baten irudikapena eta manifestazioa

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

Euskal preso eta iheslari ohiek Euskal Herri mailan martxan jarri duten ekimena da *Kalera Kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera*, preso eta ihesean jarraitzen dutenei babesa eskaintzeko. Bihar, abenduak 10, Kaleragunea jarriko dute Usurbilen, urtarrilaren 8ra arte; bertan, itxialdia egingo dute preso eta iheslari ohiek, baina ekimenak izango du oihartzuna Debagoienan ere, Arrasaten bereziki.

**Itxialdia, ziega eta auto-karabana**

Abenduaren 15etik 17ra, itxialdi irekia egingo dute Kulturatego klaustroan. "Euskal preso eta iheslari ohi andana elkartzeaz gain, gure leloarekin bat egiten duen herritar orok ateak zabalik izango ditu itxialdian parte hartzeko", adierazi du Arrasateko preso ohien ordezkariak.

Horrez gain, egun horietan ziega bat jarriko dute Seber Altuben, eta preso ohiak ziega horretan egongo dira txandaka. Herritarrek ziega baten egoteak zer dakarren ikus dezatela lortu gura dute horrek: "Urtea joan urtea etorri egunero 22 ordu ziega baten egotea erraza dela uste duenarentzat, ziega bisitatzera gonbidatzen dugu, begiak irekitzen lagunduko diolako". Era berean, abenduaren 17an, auto-karabana egingo dute Leintz Gatzagatik Arrasatera. Ondoren, Arrasaten manifestazioa egingo dute: "Preso, iheslari eta deportatuak behingoz etxean nahi ditugula aldarrikatuko dugu. Deialdi berezia egingo dugu; ahalik eta manifestazio jendetsuena izateaz gain, kandela bat pizturik duten edalontziez eta *Kalera-Kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera* leloa erakusten osatu gura dugu ibilbidea".

**Leloa, abesti ezagunetik hartua**

Zergatik duen ekimenak *Kalera-Kalera! Bakea eta askatasuna*



Zabarte, Letona, Garai, Ansoategi, Arrieta eta Ormaetxea preso ohiak. XABI GOROSTIDI

## PRESO OHIAK SEBER ALTUBEN JARRIKO DEN ZIEGAN EGONGO DIRA HILAREN 15ETIK 17RA, TXANDAKA

*irabaztera* izenburua? Honela azaldu dute: "Euskal Herrian aski ezaguna den leloa delako. Frankistek euren buruari amnistia legea onartu ziotenean, amnistia horrek ez zituen kontuan hartzen frankismoaren aurkako borrokan edota Euskal Herriaren eskubideen aldeko borrokan aritutako gizon eta emakumeak. Herritarren mobilizazioak lortu zuen hauek Espainiako kartzeletatik askatzea. Ordukoa da, izan ere, *Kalera-Kalera* abestia. *Zai dago ama, zai aita, zai kide ta lagunak, ator, ator, Euskadira, ator ator etxera*. Kanean gaudenoi dagokigu presoak kaleratzeko borrokatzea".

**Presoen baldintzak, "txarrera"**

ETak borroka armatuaren erabilera alboratu zuela bost urte baino gehiago bete direnean, ekimenaren deitzaileek nabar-

mentu dute presoen egoerak "txarrera" egin duela: "Sakabana eta urrunte politikak bere horretan diraute, eta baita isolamendu politikak ere". Uste dute gatazkaren ondorioak gainditzeko "ezinbestekoa" dela presoen eta iheslarien gaia konpontzea. Josu Arkauz arrasatearrak kalean beharko lukeela ere gogoratu dute: "Ez zitzaien zigorra taxuz du bete baina oraindik ere bahiturik jarraitzen du Espainiako kartzeletan. Estatuak bere legalitatearen errespetatuko balu Josu etxean legoke, baina tamalez badakigu non jarraitzen duen eta zein baldintzetan".

Bestalde, dispersio politika "ulertezina" dela diote preso ohiak: "EAJko eta PSOeko buruzagi ezagunek publikoki esan dute dispersioarekin amaitu beharra dagoela. Frantziako presidente izateko hautagai François Fillonek ere publikoki esan du dispersioarekin amaitzeko prest dagoela. Horregatik, nekez ulertu daiteke presoak etxean nahi ditugunok gure zilborrari begira geratzea. Behingoz etxean nahi ditugulako, lagundu presoak etxera ekartzin".



Neska-mutikoak Herriko Plazan, askotariko gozokiak harrapatzen. ENEKO AZURMENDI

## San Nikolas: 'gozoki zaparrada' plazan, auzoetan eta dendetan

Litxarrerien erdia bidezko merkataritza babesten duten dendetan erosi du Udalak; beste erdia, herriko saltokietan

**J.B. ARRASATE**

*San Nicolas Coronado, Arzobispo de Bari es, A la Luna, noche y día, Etxeko andre noblia, Egizu, egizu pilia, San Nikolas, triskilistras, Dame una castaña y no quiero más. Aquí estamos cuatro, cantaremos dos, Para San Nicolas, por amor de Dios, Belengo Portaleko ate zabaletan, Hotzak ikaraz dago, Jesus laztoetan. (bis). Angelitos somos suspi-suspiramos, Lukainka, txorizo... (Neskai) (Mutilai) bapez!* Abesti horren hitzak oso ezagunak egingo zaizkie egungo ume arrasatearrei, baina baita euren gurasoei eta aitona-amonei ere. Izan ere, abenduaren 6an ospatzen den San Nikolas eguna aspalditik errotuta dagoen ohitura da Arrasaten.

Bolo *ofiziala* Herriko Plazan egin zuten; umez, gurasoz eta aitona-amonez beteta zegoela eta abesti famatua gogotsu abestu ostean –ezinbesteko baldintza

litxarrerria-zaparrada has dadin–, udal ordezkariak askotariko gozokiak jaurti zituzten udalatego bakoititik eta eliza ondotik; 0 eta 5 urte arteko eliza ondoan jaso zituzten gozokiak eta 5 urtetik gorakoek, berriz, balkoi azpian. Gozokien erdia bidezko merkataritza babesten duten dendetan erosi zuen Udalak eta gainerakoa, herriko saltokietan.

Auzoetan –Musakolako Herri Eskolan, kasu– eta herriko askotariko komertzioetan ere egin ziren boloak.

**Gurasoak, gurasoez kezaka**

Boloa umei zuzendutako ekitaldia izan arren, oraindik ere guraso batzuk beste guraso batzuekin haserre agertu ziren Herriko Plazan. Umeendako egokitutako gunean sartu eta gozokiak hartu zituztelako kexu agertu ziren; gaiak zeresana izan du sare sozialetan ere.

## Santa Eulalia jaiak ospatuko dituzte asteburuan Bedoñan

Gaur, patata-tortilla eta postre lehiaketa izango dituzte Laramendi elkarteak (19:30); bihar, ume eta gaztetxoendako buruhandiak, ohe elastikoak eta *Hi selfie!* lehiaketa (11:30), txokolate eta gaztaina-erre jana (17:00) eta auzo afaria izango dituzte (21:00), besteak beste; etzi, amaitzeko, toka txapelketa (12:00) eta meza nagusia izango dira (13:00).

## Otaloratik Orlarterako eskaileretan mural berria: sei aukera

Arrasateko MuralArt muralisten taldeak sei zirriborro aurkeztu dizkio Udalari, Otalora eta Orlartere arteko eskaileretan egingo den mural berrirako. Orain herritarrek aukeratu beharko dute euren gustukoena; botoa emateko aukera egongo da abenduaren 12tik 17era BAZen zein Udalaren webgunean. Lanen aurrekontua 2.305 euro da.



# "Liga hastean, ez genuen espero lider egoterik"

Mondrate areto futbol taldeak pare bat denboraldi behar izan ditu Gipuzkoako Txapelketako maila gorenera iristeko, eta, ligako hamaika jardunaldi jokatuta, arrasatearrak lider daude: "Taldea moduan hobeto jokatzea falta zaigu"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Mondrate taldea 2013-2014 denboraldian sortu zuten, aparteko asmo handi barik: "Areto futboleko jokatu gura genuen, lagun artean", dio Jonathan Rasok: "Ez genuen aparteko anbizioirik, eta hasieran koadrilakoek osatzen genuen taldea". Areto futbolak Arrasaten zuen hutsunea bete dute, harrobia lantzeko infantil eta kadete mailetako taldeak sortu dituzte, udako campusak egiten dituzte eta lehenengo taldea birritan igo dute mailaz: "Lagun talde bat izaten jarraitzen dugu, baina jada ez gara koadrilakoak bakarrik; areto futboleko jokatu gura duen edonork zabal-zabalik ditu ateak".

**Pauso bat aurrera eman dute**

Iaz zazpigarren postuan amaitu zuten liga, *play-off* postuetatik 8 puntura. Igo berriak ziren, eta kategoriara moldatzeko urtea izan zen. Aurten, berriz, beste aurrerapauso bat eman dute; oraingoan, hamaika jardunaldi jokatu dituzte, eta bakarrak dira zortzi garaipen eskuratu dituztenak; Gipuzkoako Txapelketan agintzen du talde mondragoetarrek: "Liga hasterakoan ez genuen espero horren ondo ibiltzea, baina partiduek aurrera egin ahala gora egin dugu, eta hor eustea da asmoa". Asteburuan 5-1 irabazi zioten Jaixkiri erretratuan partiduen une bat-, eta, oraingo asteburuan atsedean hartu ostean, datorren astean Lasarten izango dute hitzordua.

**'Playoff'-ak helburu**

Talde arrasatearrak zehaztu du dagoeneko urteko helburua zein izan behar den: "Lehenengo lau taldeen artean sailkatu behar gara. Horrek *play-off*-a jokatze-ko aukera emango liguke. Eta komeni da lehenengo edo bigarren sailkatzea, hirugarren eta laugarren sailkatzen direnen



Kevin, zapatuko norgehiagokan, Jaixkiko kontrarioaren aurrean. IMANOL SORIANO

kontra jokatu beharreko kanporaketa partidua etxean jokatze-ko eskubidea ematen duelako horrek. Hala, lehenengo sailkatuta laugarrenaren kontra jokatuko genuke partidu erabakigarria, eta etxean jokatzea abantaila handia da".

Horiek, baina, maiatzeko kontuak dira, hamabost jardunaldi geratzen dira oraindik eta 45 puntu asko dira: "Hau oso luzea da, eta eustea da kontua. Ustedut kontrario gogor batzuen kontra jada jokatu dugula, baina beste batzuk geratzen dira.

Eta garrantzitsua izango da liga amaierara indartsu iristea, igorera fasean sasoiaren egoteko".

**Euskadiko Txapelketa, urrun**

Helburua lortuta arrasatearrek Euskadiko Txapelketa izango lukete zain, hau da, UDA Aretxabaleta eta Eskoriatza dauden kategorian: "Gauza ederra izango litzateke bertara ailegatzea, baina orain ez dugu hori buruan. Gainera, kategorian horretara igotzeko ekonomikoki ere esfortzu handiagoa egin behar da". Pausoz pauso joango dira.

## Zarautzen arnasa hartu ostean, MUK Santurtziren bisita bihar

Lau partidu jarraian galdu ostean derbi gipuzkoarrean lortu zuten arrasatearrek bolada txarra etetea

**X.U. ARRASATE**

Bolada txarra arduratzen has-teko modukoa bilakatu aurretik, MU saskibaloi taldeak arnasa hartu zuen Zarautzen, gipuzkoar- rren arteko derbia irabazita (57-64). Gainera, fitxarekin zituzten arazoak gaindituta, azken fitxaketa Riki Mendizabalek debuta egin zuen talde zuri-mo- rearekin, jokatutako 18 minu- tuetan 12 puntu batuta.

Bihar, berriz, sailkapenean koska bat gorago dagoen San- turtzi izango da Iturripen (18:30). Bizkaitarrak, gainera, sasoi- ko

daude, joan den astean Venta de Baños taldearen gainetik pasa ziren eta (90-58).

**Bazkide kanpainarekin aurrera**

*Ihes egin ezazu alde ilunetik!* lelopean, Ointxe!-ko ordezkari- ek Gabonak arte eutsiko diote baz- kide kanpainari. Helburua klu- ba diruz laguntzeko babes- lortzea da, besteak beste, 50. urte- rreneko ekimenak egin ahal izateko. Babesle izateko 30 euro ordaindu behar dira, eta, horri esker, debalde ikus daitezke partiduak.

## Abenduaren 16an, Santamas Pilota Txapelketako finalak

Herriko pilotari gaztetxoek –guz- tira 51 pilotari ibili dira– asteak daramatzate Santamas Pilota Txapelketako kanporaketa parti- duak jokatzen. Dagoeneko oso aurreratuta dago txapelketa, eta oraingo astean eta datorrenean –aste barruan– jokatuko dituzte finalerdietako partiduak.

Arrasateko Pilota Elkarteko arduradunek abenduaren 16rako aurreikusitako finalak, 19:00etan hasita. Egun horretan, prebenjamin, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetako pilotari- ek jokatuko dituzte fina- lak. Ondoren, eta bailarako gai- nontzeko klubekin batera, Ga- bonetako Kopa izango dute jo- koan, opor egunetan.

## Irene Murua saskibaloi jokalaria selekzioarekin dago

Ointxe!-ko jokalaria Irene Murua aukeratu dute Espainiako se- lekzioko hautatzaile Isaac Fer- nandezek eta Anna Montañan- ek egunotan Zamoran jokatzen dabil- tzen torneoan parte har- tze- ko –Juan de Menaren ome- nezkoa–.

Txapelketa atzo hasi zuten, eguena, eta hiru egun iraungo du, bihar, zapatua, amaituko dute eta. Egunotan, Espainiak Italiarekin, Turkiarekin eta Gaz- tela eta Leonekin neurtuko ditu indarrak. Arrasateko taldeko ordezkaria izan da hautatzaileek aukeratu duten euskal jokalaria bakarra –16 urtez azpikoetan–. Arrasateko taldean kadete erren- dimenduan jokatzen du Murua.

*Sipi Sipi*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

*Lore*

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta

**beinke**

arrasate



# Hirugarren diskoa kalean

Dirty Brothers taldeak hirugarren lana aurkeztu berri du, *Mondra Calling* du izena eta 8 eurotan dago salgai

**Ibon Carmona** ARRASATE

Punk eszenan ezaguna den taldeak diskoa kaleratu du. Lana CD formatuan aurkeztu da, baina urtarrilerako biniloan ere egongo da eskuragarri.

**Autoekoiztutako lana**

Arrasateko laukotea duela biz-pahiru urte murgildu zen proiektuan. Taldeko abeslari eta gitarra jole Asier Salaren esanetan, hasierako fase hartan bi kanta sortu zituzten, eta diskoak jarraituko zuen ibil-bidea markatu zuten horiek. "Diskoa gure kabuz ekoiztu dugunez, marjina handiagorekin aritu gara lanean, eta erabakiak lasaia hartu ditu-

gu. Gustura gaude amaierako emaitzarekin", gaineratzen du. Taldeak lokalean egin ditu abestien grabazioak, baina, nahasketen grabaketei dagokienez, horiek Shot! estudioetan egin dituzte.

**Hirugarren diskoa**

Taldearen estiloa mantendu egiten da letretan eta melodietan. Hala ere, bizitako esperientziak kontuan izanik, lan berri hori amorreraren handienarekin grabatu dutena da. "Atera genuen aurreneko diskoko kanta gehienak bertsio akustikoak ziren. Bigarren lana, batez ere, gure kantez zegoen osatua, eta, azkenengo honetan, linea ja-



Alkorta, Sala eta Agina CD berriarekin DIRTY BROTHERS

rraitzen dugun arren, CDa orokorrean gogorragoa da", dio Salak.

Letrak idazterakoan, taldeko kideek euren egunerokotasunean bizitzen dituzten kontu ezberdinak hartu dituzte oinarri. Jon Alkorta baxu jotzailearen esanetan, letra horietako gehienak euskaraz daude idatziak, baina ingelesez eta gaztelaraz idatzitakoak ere badaude. Horrez gain, abesti batzuetarako inguruko lagun kolaborazioak izan dituztela esan du.

**CDa eskuratzeko hainbat modu**

Dirty Brothers-en lan berria Durangoko Azokan erosteko aukera izan da. Hortik harago, eskainiko dituzten kontzertuetan eta Arrasateko alde zaharreko tabernetan jarriko dute salgai diskoa.

Asier Salaren esanetan, oraindik ez dute zehaztu zein taberna izango diren CDa salduko dutenak. Hala ere, diskoa erosteko intentzioa duena taldearen Facebook orrialdearekin jarri daiteke harremanetan.

## Askotariko ekitaldiak egongo dira Akordeoi Lehiaketan barruan

Hauspoz elkarteak antolatutako Arrasateko Akordeoi Lehiaketan beste edizio bat hasiko da gaur, domekara bitartean (informazio gehiagorako, ikus 40. orrialdea). Horrekin lotuta, gaur, 13:30ean hasita, harrera ekitaldia egingo zaie, udaletxean, kanpotik etorritako akordeoilariari.

Lehiaketekin batera, bi kontzertu eskainiko dira gaur: batetik, Arrasate Hiria lehiaketako iazko garaile Janne Valkeajoki-rena (Kulturate, 20:00) eta, bestetik, Orquesta Joves Acordionistes del Valles talde kataluniarrarena (Aita Menni Ospitaleko aretoa, 17:30). Lehenengoari dagokienez, Hauspoz elkarteak lehen-dakari Aitor Furundarenak esan du lehiaketetako errepertorio mugatuarekin alde-ratuta, proposamen artistiko bat eskainiko dela. Bigarrenaren harira, guztion ohitura musikaletan sartzen den kontzertua dela dio Aitor Furundarenak.



## HOTEL JATETXEA SANTA ANA

Uribarri 37 (Udala bidean) Arrasate  
Erreserbak: **943 79 49 39**  
[www.santaanamondragon.com](http://www.santaanamondragon.com)

**Santamas bezperan afariak emango dira.**



## GABONETAKO MENUAK

### MENU 1

Olasko-entsalada epela gaztarekin  
•  
Perretxiko eta kipula nahaskia  
•  
Entrekota plantxa hornigaiarekin  
edo  
Bakailaoa plantxan barazki-panatxearekin  
•  
Jijona-turroi izozkia  
edo  
Gazta-tarta marmelada-frutarekin  
•  
Errioxako ardoa, urtekoa  
•  
Kafea

**22 €**  
(BEZa barne)

### MENU 2

Iberikoak  
•  
Perretxikoak eta berakatz freskoak papillotean  
•  
Bieira betea eta gainerrea  
•  
Legatza plantxan panatxearekin (½)  
•  
Solomilloa plantxan hornigaiarekin (½)  
•  
Krema frijitua turroi-izozkiarekin  
edo  
Mango-sorbetea cavarekin  
•  
Sonsierra ardo ondua (botila bat hiru pertsonarentzako)  
•  
Kafea

**33 €**  
(BEZa barne)

**Eguneko menua: 18,50 € (kafea eta BEZa barne).**

**Gabonetako opor bezperan eta Errege egunerako menu bereziak.**

**Karta**

**Enpresentzako catering-a (kafea, etxeko pastak, pintxoak, arrazioak...)**

**Etxera eramateko janaria prestatzen dugu.**

**Neguan, jangelan zerbitzatuko da: Plater konbinatuak eta ogitartekoak.**





Pasa den egubakoitzean San Martin elizan egindako kontzertuak itxi zuen omenaldi ekitaldien zikloa. IMANOL SORIANO

## Herriko musikari kuttuna, luze eta zabal omenduta

Apiriletik abendura bitartean ekintza ugari antolatu ditu Aramaioko Udalak Bizente Goikoetxea musikaria omentzeko. Haren heriotzaren 100. urteurrenean Goikoetxearen izena eta izana gogora ekartzea izan da xedea, eta Udalak balorazio positiboa egin du

### Xabi Gorostidi ARAMAIO

Orain arte Bizente Goikoetxea izena ezaguna izan zitekeen Aramaioko gazteentzat, herriko plazak edo abesbatzak, besteak beste, haren izena daramatelako. Baina izenaz harago, Goikoetxeak egindakoak eta bizitakoak ez dira izena bezain ezagunak.

Aurten 100 urte bete dira Goikoetxea hil zela, eta Aramaioko Udalak antolatu dituen ekintzek hori izan dute helburu: Bizente Goikoetxea nor zen eta zer egin zuen gogora ekartzea. Aipagarria da Aramaiotik kanpo, Valladoliden, Amurrioren eta Gas-



J.M. Velez de Mendizabalen liburuaren aurkezpeneko argazkia. MIREIA BIKUÑA



Ekainean Sabin Salaberrik zuzendutako kontzertuan goraino bete zen Aramaioko San Martin eliza. GOIENA

teizen ere izan direla Goikoetxea omentzeko ekitaldiak.

### Estatuatik azken kontzertura

Apirilaren 16an hasi ziren musika sakratuko maisua omentzeko ekitaldiak, nahiz eta aurretik San Martin eskolan ere herriko konpositorea ezagutzeko ekimenak ere egin ziren. Bertan, Lorentzo Askasibar elgetarrak Goikoetxearen omentzeko estatua berritua inauguratu zuen, hura izan baitzen 62 urte lehenago lehen estatua egin zuena. Ekitaldi berean, besteak beste, bertso musikatu bidez erreparatu zituzten Goikoetxearen bizitzako pasarteak.

Ekainaren 18an Aramaioko Bizente Goikoetxea abesbatzak, Araba abesbatzak eta Gasteizko Camerata hari-taldeak Sabin Salaberrik moldatutako *Missa in honorem Inmaculada Conception* obra eskaini zuten, goraino betetako San Martin elizan.

Goikoetxearen bizipenak belaunaldiz belaunaldi transmititzeko liburua idatzi zuen Jose Mari Velez de Mendizabalek. Liburuaren aurkezpen ekitaldian, Goikoetxearen lana sakon ezagutzen duten Sabin Salaberri, Rafa Mendialdua eta Floren Unzueta musika adituekin mahai ingurua egin zuten. Azkenik, pasa den egubakoitzean, Bizente Goikoetxea abesbatzak eta Arrasateko Parrokiakoak emandakoa bateratua egin zuten urte osoko ekintzak borobiltzeko.

### Balorazioa eta esker ona

"Herriko ekintzak aurrera eramateko, hainbat herritar inplikatu dira eta horiei guztiei eta erakunde babesleei esker izan da posible Aramaioko musikagile honi merezitako omenaldia eskaintzea", azaldu du Udalak.

## Adif-ek egin behar dituen desjabetzeen berri eman du

Zabola eta Untzilla auzoetan eragindako kalteak konpontzeko erabiliko dituzte lurrak

### X.G. ARAMAIO

Azaroaren 30ean Estatuko Aldizkari Ofizialean publikatu zituen Adifek Zabola eta Untzilla auzoetan urgentziaz egin behar dituen desjabetzeak.

AHTa eraikitzeko fasean eragindako kalteak konpontzeko bideratuko dira desjabetzeak. Urtebete baino gehiagoz Aramaio eta Arrasate lotzen dituen errepide nagusia itxita egon zen, eta horrek zirkulazio guztia Zabola eta Untzilla auzoetatik desbideratzea eragin zuen. Denbora tarte hartan, ohikoa baino askoz zirkulazio jario handiagoa izan zuten bi auzoek, eta horrek kalte nabariak sortu zituen errepidean. "Egia esan, ez dakigu zehazki zein lan egingo dituzten. Udalari helarazitako lehen proiektuaren eta zirriborroaren artean ezberdintasunak daude. Orokorrean, bide estutasun batzuk zabaltzera, soroak txukuntzera eta Untzilla aldean kanalizazio lan batzuk egitera bideratuko dira desjabetzeak", adierazi du Martin Arriolabengoak, Hirigintza zinegotziak.

### 14 lursail, 415 metro karratu

Estatuko Aldizkari Ofizialean publikatutako agirian zein lursail erabiliko dituen zehazten du Adifek. Hamalau lursail desjabetuko ditu guztira, 415 metro karratuko eremua bereganatzeko. Gehienak desjabetze txikiak izango dira. Izan ere, hamalau lursailetatik hamarri 20 metro karratu baino gutxiagoko desjabetzeak egingo dizkiete. Aipagarria da desjabetuko duten azaleraren %60 lurjabe bakarrenak direla.

### 15 egun alegazioak egiteko

Desjabetzeak izango dituzten lurjabeek 15 eguneko tarte izango dute Gobernuaren Ordezkariordeztako Arabako egoitzan idatzizko alegazioak aurkezteko.



Estatua berritua, eta egilea. GOIENA

# "Ezusteko atsegina izan da selekzioaren deia"

**JONE OIANGUREN HOCKEY JOKALARIA**

Hamasei urteko aramaiorak 18 urtez azpiko Espainiako izotz hockey selekzioaren deia jaso, eta abenduaren 5etik 8ra Valdemoron izan da estatuko hoberenen artean

**Xabi Gorostidi ARAMAIO**

Ahizpa Ainhoarekin batera Gasteizko Sumendi taldean jokatu du. Eta han erakutsitako maila txukunak fruitua eman ostean, lehen aldiz deitu dute estatuko onenekin trebatzeko.

**Espero zenuen Espainiako selekzioaren deia jasotzea?**

Ba, ez nuen espero, egia esan. Aurretik selekzioan aritzen ziren atezainen maila oso altua izan da. Ni baino hobeak zirela uste nuen, baina, azkenean, deitu egin didate.

**Nola jaso zenuen albistea?**

Hasieran, ez nuen sinetsi ere egiten. Izan ere, aitak mezu bidez bidali zidan konbokatutako jokalarien zerrenda, eta bertan nire izena ikustean poz-positib jarri nintzen.

**Onen artean aukeratua izateko lan eta esfortzu handia egingo zenuen aurretik.**

Nire kasuan, hau da izotz hockeyan jokatu dudana hirugarren denboraldia, eta entrenamendu eta ordu asko eskaini dizkiot. Horrez gain, nire dohainak hobetzeko, aitak Finlandiara joatea proposatu zidan, eta iaz abenduan astebeteko ikastaroa egin nuen han. Teknikakazioa hobetzeko ezin hobeto etorri zitzaidan, izotz hockeyan tradizio luzea duen herrialdea baita Finlandia.

**Zer-nolako esperientzia izaten ari da Valdemoroko kontzentrazioa?**

Astelehenetik osteguneraino iraungo du kontzentrazioa, eta, egia esan, nahiko gogorra izaten ari da. Atzo [astelehena] lau ordu eta erdiko lan-saioa egin genuen izotzetan, eta ondoren atal fisikoa ere landu genuen. Gaur, adibidez, beste hiru ordu egin ditugu izotzetan eta ostean berriro ariketa fisikoak. Esperientzia aberasgarria izaten ari da, baina aberasgarria bezain gogorra ere bai.

**Bi taldekideekin batera joatea langarria izan da zuretzat?**



Jone Oianguren Valdemoroko kontzentrazioan. AGUSTIN OIANGUREN

**"ESPERIENTZIA ABERASGARRIA BEZAIN GOGORRA IZATEN ARI DA NIRETZAKO"**

Beraiek absolutuarekin jokatu dute, eta nik, aldiz, 18 urtetik beharagoekin. Hala ere, bi taldekide gertu edukitzea laguntza handia izan da niretzako. Beste mentalitate batekin joaten lagundu didate, konfiantza handiagoarekin.

**Aurreko asteburuan emakumeen izotz hockeyko olinpiada aurreko txapelketa jokatu zen Donostian. Alde handia ikusi al zenuen Espainiaren eta tradizio handiagoa duten herrialdeen artean?**

Igartzen da besteek urte askoz gehiago daramatzatela izotzetan. Pukera lehenago heltzen ziren, kontrol gehiago zuten, jaurtiketa hobeak... Jokoa alderdi gehienetan igartzen da hori. Baina egoera horretan Espainiako atezainak lan handiagoa izaten du, eta txundituta utzi ninduen hark erakutsitako maila apartak.

**Atezainek babes ugariarekin jokatu dute. Arriskutsua da hockeyko atezain izatea?**

Nik uste dut ezetz. Daramatzagun babesekin oso zaila da min hartzea. Hasieran, harritu egin zaitezke pukak aurpegiko babesean ematen dizunean. Baina gero, ohitu egiten zara. Dirudiena baino seguruagoa da.

**Atezainek jaurtiketak gelditzeaz gain, taldekideei aginduak ematen al dizkiezue?**

Guk jokoaren eta zelaiaren ikuspegi garbiagoa dugu, eta, aginduak baino gehiago, abisuak ematen dizkiegu gure taldekideei.

**Nola ikusten duzu izotz hockeyaren egoera Euskal Herrian?**

Pixkanaka gorantz doala uste dut. Lineako neska askok izotzera jauzia egin dute, eta bada-bil poliki-poliki indartzen.

**Oihartzun bera al du nesken eta gizonen hockeyak?**

Aldea badago. Gizonezkoek liga amaitzean *play-off*-ak jokatu dituzte. Nesken kasuan, talde gutxiago daudenez, bost partiduko liga jokatzera mugatzen gara. Bigarren buelta eta *play-off*-ak izanez gero, gehiago jokatzeko eta gure jokoa hobetzeko aukera izango genuke.

**Demode Quartet-ek 'Epa!' azken lana aurkeztuko du bihar**

Txirritola Euskara Elkartearen eskutik Demode Quartet lauokoteak *Epa!* izeneko azken lana aurkeztuko du zapatuan Aramaion. Kultura Etxean izango da, 19:30ean, eta sarrerek 5 euroko prezioa izango dute.

Lau ahotsekin osatutako ikuskizun musikalak egiten dituzte, eta musika, koreografia eta umorea dira ikuskizunaren osagai nagusiak. *Epa!* da euren bigarren ikuskizuna eta bertan euren estiloa mantendu dute. "Azken lan honetan, esku-soinua biologatik ordezkatu dugu eta Itoiz-en, Lertxundiren eta Leteren abestiak ditugu Aretha Franklin-en, Queen-en eta Madonaren abestien ordez".

**1.000-10.000 biztanle arteko herrietan langabezia baxuena**

Ekonomia gaiak lantzen dituen *Expansion* aldizkariak, *Datos-macro.com-en* bitartez, Hego Euskal Herriko eta Espainiako langabezia datuak landu ditu udalerriz udalerriz.

Bertako emaitzen arabera, Euskal Herri zein estatu mailan, 1.000 eta 10.000 biztanle arteko herrietako zerrendan, langabezia tasa baxuena du Aramaiok (%2,51ekoa). Zerrenda horretan segidan doaz Bujaraloz (Aragoi), %3,75 eta Viladrau (Katalunia). Euskal Herriko filtroa aplikatuz, Zigoitia izango zen bigarrena (%4,25) eta hirugarrena Zeanuri (%5,52). Beraz, datu pozgarriak dira Gorbeialdeko Kuadrillako biztanleentzat.

**Sukaldaritza ikastaroa Jubilatuen Elkartean**

Datorren astelehenetik asteazkenera egongo da zer ikusi eta zer ikasi Alaiak Jubilatuen Elkartearen egoitzan.

*Janari osasungarria sukaldatzen ikasi* izeneko ikastaroa antolatuko dute. Saioak 17:00etan hasiko dira, eta gazte, heldu zein adindun pertsonengan elikadura osasungarri batek sor ditzakeen onurak landuko dituzte.



NIRE USTEZ

SABIN ARANBURU

**Metodologia**

Edozein eztabaida politikotan edo filosofikotan bakoitzak erabilitako metodologia zentro bilakatzen da. Arrazoiketa guztia bakoitzak errealitatea interpretatzeko formetan datza, hots, zein ikuspuntutatik hitz egiten den; hau da metodoa.

Zentzu horretan, berdin dio parlamentuko edota tabernetako eztabaidez hizketan ari garen. Bakoitzaren ikuspegia plazaratzen da, "etsaia" konbentzitu nahian, egia handiena aurkitzearen borrokan.

Nola zehazten da, ba, irabazle eta galtzaile postua?

Ba al daude guda hau baloratu eta epaitzeko arau arrazionalak?

Nola zehaztu daiteke argumentu bat bestea baino hobea izatea?

Jarraibide arrazionalen bat existitzen bada, hori objektibotasuna izango litzateke.

Beraz, debatzeko gaien errealitate objektibora gehien gerturatzen dena izango litzateke hobeen argumentatzen duena, hau da, irabazlea.

Baina objektibotasuna bada epaile, galdera potolo bat datorkit burura: existitu daiteke doktrina (edo metodo) zientifiko eztabaidaezin bat, errealitatearen objektibotasun arrotzenez oinarriturik?

**Mairuelegorretari buruzko dokumentala domekan**

1963a ezkerko Gorbeia mendiko Mairuelegorreta kobazuloan ospatzen den jaiari buruzko ikus-entzunezko proiektatuko dute.

Kultura Etxean izango da, 19:00etan. Euskal Jaian urte urte Euskal Herriko musikari eta bertsolari erreferenteek parte hartu izan dute; Mikel Laboa, Pantxo eta Peio, Hertzainak, eta abarrek.



# Hildakoen senideek aurrera egiteko zerbitzua

Abenduan beharrea otsailean egingo du batzar orokorra San Martin-San Jose kofradiak, Jaurlaritzak araudia aldatu duelako; heriotza baten aurrean senideei zerbitzu ematea eta laguntzea helburu duen erakundeak bazkide gehiago gura ditu

## Mirari Altube ARETXABALETA

Abenduaren 8an egin izan du batzar orokorra San Martin-San Jose kofradiak urte askoan, aurtentzen baina atzeratu egin dute otsailera. Jaurlaritzak egindako eskaeretako bat izan da hori, urte naturala bukatu eta diru-kontuak itxi ostean egitea batzarra; beste hainbat eskaera betetzeko ere eguneratu egin behar izan du elkarteak.

## Bazkide gehiagoren beharra

3.950 bazkide inguru ditu gaur egun 1855ean sortutako kofradiak. Hildakoei azken agurra era duinean emateko sortua izan zen: "Baina elizarekin ez du inolako zerikusirik, izena bakarrik", dio Iñigo Olabe diruzainak. Auzolana egiten zuen elkarteak izan arren sasoi baten, orain borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bat da (BGAE edo EPSV) eta horiendako zehaztutako araudia bete beharra du. "Lan handia tokatu zaigu: estatutuak eguneratu, txosten aktuarioa egin... Eta inbertsio batzuk egin beharra ere bai: informatikako ekipoak, kontuak eramateko laguntza enpresa bat hartu...", dio Olabek. Deustuko unibertsitateko Amancio Beltzuen adituak egin die txosten aktuario hori: "Gure taldea aztertu zuen: zenbat alta, baja, hildakoak, balantze ekonomikoa... Eta ondorioa izan da diru gehiago izan behar dugula gordeta". Horren ondorioz kuoten igoera etorri da aurtentzen; hain zuzen maiatzean egindako ezohiko osoko bilkuran jakinarazi zieten bazkideei: "Gure erreserba 300.000 eurokoa da eta eskatzen digute 600.000 euro izatea. Horregatik, kuotak igotzera derrigortuta gaude hurrengo lau urteotan. Izan ere, hildako bakoitzaren zerbitzuak 1.900 euro balio du".

Bazkide kopurua gehitzea ere gura dute; aurtentzen 50 bazkideetik gora hil dira-eta: "Titularrekin izena emanda seme-alabak egoten



Maite Ortiz de Zarate presidentea eta Iñigo Olabe diruzaina. MIRARI ALTUBE

dira. Horiek etxetik alde egiten dutenean komeni da eurak sar-tzea bazkide eta jarraipena ematea", dio Olabek, eta gaineratu du Maite Ortiz de Zarate presidentea: "Gure gurasoendako ezinbestekoa zen kofradian izena emanda egotea: "Ehorzketa behintzat ordainduta izateko". Baina orain ez diote halako garrantzirik ematen, ez direlako herrian bizi... Kanpoan bizi arren laguntza berdin-berdin ematen zaio familiari".

## Bitartekari lanak

Zortzi lagunek osatzen dute zuzendaritza; hona: Maite Ortiz de Zarate (presidentea), Josu Urkia, Mirari Aiastui, Mila Oskoz, Iñigo Olabe (diruzaina), Joseba Gonzalez de Martin (idazkaria), Martxi Perez eta Txarli Gomez; azken lau horiek elkarteak utziko dute otsailean. Bitartekari lanak egiten dituzte horiek eta gertutasuna eskaintzen dute: "Une zailak izaten dira eta askotan galduta egoten dira senideak. Halakoetan laguntzeko eta zalantzak argitze-ko gu gaude, gutako edozeini deitzea nahikoa da", dio presidentea. Zerbitzuak, ostera, Arrasateko ehorztetxearekin dituzte hitzartuta.

## Zerbitzuak

### Herrian hil eta ehorztea

- Zerraldoa etxean; hil autoa; kanposantura joateko autoak; eskelak herrian; senitartekoei 500 euroko laguntza; elizkizuna eginez gero 100 euro parrokiari, eta egin ezean, familiari.

### Herrikan kanpo hildakoak (EAEn edo Iruñeko ospitaletan)

- Hileta eta ehorzketa Aretxabaletan Herrira ekartzea eta herriko zerbitzu guztiak.
- Hileta Aretxabaletan eta ehorzketa kanpoan EAE barruan garraioa (hildako tokitik EAera garraioa ez da ordaintzen) eta herriko zerbitzuak.

### Kanpoan hil eta ehorztea

- Herriko zerbitzuan hitzartuta.

### Hileta zibila

- Herriko zerbitzuan hitzartuta.

## Gabonetako erakusleho lehiaketa astean jarri dute abian

Abenduaren 30a arte egongo dira apainduta eta aditu baten erabakia kontuan hartuta bi sari banatuko dituzte

## M.A. ARETXABALETA

Egunotan apaindu dituzte erakuslehoak merkatariek eta dagoeneko gertu dituzte Gabonetako lehiaketarako. Horretarako ez dago izenik eman beharrik, hortaz, komertzio guztiak izango dituzte kontuan epaimahaiko kideek. Hori bai, abenduaren 30a arte izan beharko dute apainduta. Hain zuzen orduan banatuko dituzte sariak.

## Ohiko produktuekin apainduta

Epaimahaia osatuko du aditu baten eta honako ezaugarriak

hartuko ditu kontuan: kalitatea, publizitate mezuzaren imajinarioa, originaltasuna, eraginkortasuna eta argien erabilera, besteak beste. Gainera, dendako ohiko produktuekin egon beharko du apainduta erakusleho horrek.

Bi sari banatuko dituzte. Erakusleho onenak plaka bat jasoko du iazko irabazlearen eskuetatik eta 300 euroko bonua Aretxarteko dendetan gastatzeko. Euskarazko Gabon mezurik onena duenari, ostera, 150 euroko bonua emango diote.



XABI URZELAI

## Edukiontzia erreta Murubiden

Edukiontzia erre zituzten domeka goizaldean, 04:30 inguruan, Murubide plaza eta Bedarreta auzo bitartean dagoen aparkalekuan. Suhiltzaileek itzali zuten su hori eta inguruan aparkatutako auto batek kalteak jasan zituen. Erretako lekuan porlana bota du egunotan Udalak, lekua txukuntzeko —han zegoen eskailera bat kendu— eta berriro edukiontzia jartzeko.

## 90 urteko bazkideak omenduko dituzte Basotxon martitzenean

Santa Luzia eguna ospatuko dute Basotxo erretiratuen elkarteko kideek martitzenean, abenduaren 13an, eta, urtero legez, 90 urteko bazkideak izango dituzte gogoan; aurtentzen bederatziti.

Ekitaldia 17:00etan izango da eta ohorezko aurrekua eskainita ekingo diote omenaldiari. Ondoren, Basotxoko kantu taldeak abestuko du, eta gero, opa-

riak jasoko dituzte omenduek zuzendaritzako kideen eskuetatik. Koldo Gaztañaga akordeoi-lariak giroa du ekitaldia eta dantzan egiteko aukera izango da. Bukatzeko, txokolatea banatuko dute guztiendako.

Abenduan beste hainbat ekitaldi dituzte Basotxokoek. Eguaztenean, esaterako, Mutrikura joango da kantu taldea Gipuzkoako erretiratuen abesbatzen topaketara. Eta hilaren 20an, Bilbora doaz, Arriaga antzokira, Cabaret musikala ikustera.

# Ererikoak saihestea, osasuna irabaztea

Ikastaroa antolatu dute 'Atxabalta Mugi' egitasmoaren barruan ererikoak prebenitzen ikasteko, oso ohikoak izaten direlako horiek adinean aurrera egin ahala; abenduaren 14 goizean izango da, Arkupen, eta izena aurrez eman beharra dago

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Ererikoak prebenitzea eta erorketen kopurua murriztea helburu jarrita ikastaroa antolatu dute Udalak, osasun zentroak eta Osasun Publikoak. Eguaztean, abenduaren 14an egingo dute, 10:00etatik 12:00etara, Arkupen, eta plaza mugatuak direnez aurrez eman behar da izena. Horretarako, osasun zentrorako jo (943-71 19 59) edo, bestela, Basotxo erretiratuen elkartera (943-79 78 46).

**Bizimodu osasungarria**

Estatistikek diotenez 65 urtetik gorakoen artean lesio-eragile nagusienak dira ererikoak. Eta adin-talde horretakoen erdiek, urtean behin, gutxienez ererikoren bat izaten dute. Gainera, erorketen ondorioak ez dira bakarrik fisikoak izaten, baita psikologikoak eta sozioekonomikoak ere. Kontu horren garrantziarekin jabetzeko eta eror-



Herritarrak gertu *Atxabalta Mugi*-k deitutako ibilaldirako. MIRARI ALTUBE

keten zergatiaren gainean konzientzia hartzeko antolatu dute hain zuzen ere ikastaroa.

Era berean, bizimodu osasungarria izatea eta ariketa fisikoak egitea zein garrantzitsua den

azpimarratuko diete gerturatzen diren guztiei, edozein adin izanda ere. Eta gaur egun eskura dauden laguntza teknikoak eta berrikuntzen gainean ere jardungo dute hizlariek.

## Egitaraua

- **10:00 Ererikoak prebenitzeko aholkuak.** Jone Iribecampes (Erizaina).
- **10:25 Euskarriak eta erabilera egokia.** Maria Victoria Anitua (Aretxabaleta botika).
- **10:50 Teleasistentzia eta etxez etxeko laguntza.** Mirari Aiestui eta Bego Arenaza (Gizarte langileak).
- **11:05 Aktibitate fisikoa** (Saio praktikoa). Iñaki Olaetxea (*Atxabalta Mugi*-ko aholkularia).
- **11:30 Ererikoan ostean zelan zutitu.** Izaro Ormazabal (Ospitaleko fisioterapeuta).

## "Ererikoekin datoz haustura konplikatua"

**IÑAKI OLAETXEA** 'ATXABALTA MUGI'-KO AHOULKULARIA



**Zein animatuko zenuke ikastarora?**

Batez ere, nagusiak, 65 urtetik gorakoak, eta orekarik ez eta jausteko arriskua dutenak; hau da, makuluekin dabilzanak, mugikortasun arazoak dituztenak...

**Adin horretan ereriko bat oso txarra da, ezta?**

Ereriko bat dutenen portzentaje handi batek hausturekin bukatzen du; haustura konplikatuekin, gainera. Horietako askok osteoporosia

dute eta kosta egiten zaie gero errekuiperatzea.

**Hainbat alderdi landuko dituzue ikastaroan.**

Bai, ereriko baten zergati guztiak ukitu gura ditugu. **Zelako harrera izan du *Atxabalta Mugi*-k?**

Orain, 55 lagun dabilta. %30 inguru Osakidetzatik bidalita etorri dira guregana eta gainerakoak euren kabuz. Bi ibilaldi antolatu ditugu eta ia 25 lagun elkartu dira bietan; hortaz, pozik gaude.

## Gabonetako parkerako begiraleak behar ditu Udalak

Urtarrilaren 3an eta 4an jarriko dute Ibarra kiroldegian eta hamahiru lagun egongo dira zaintzaile lanetan

**M.A.** ARETXABALETA

Urtarrilean egingo duten Gabonetako parkerako hamahiru begirale behar ditu Udalak. Curriculumak udaletxean utz daitezke edo honako helbide honetara bidali: [gazteria@aretxabaleta.eus](mailto:gazteria@aretxabaleta.eus). Azken eguna abenduaren 21a da.

Baldintza bi bete beharko dituzte ezinbestean: 18 urte bete izatea eta euskaraz ondo jakitea. Horrez gain, honako hauek baloratuko dituzte: ikasketak: pedagogia, irakasle-ikasketak, haurrekin zerikusia dutenak...

(3 puntu); begirale titulua (5 puntu); Gabonetako parkean esperientzia (urte bakoitzeko 2 puntu); Aretxabaleta udaleku irekietan esperientzia (urte bakoitzeko puntu bat); udaleku itxiak (urte bakoitzeko puntu bat); eta EGA izatea (puntu bat) Aretxabaleta-koek, gainera, lehen-tasuna izango dute.

**Urtarrilaren 3an eta 4an**

Aurten, lehenengoz, urtarrilean jarriko dute parkea; 3an eta 4an, hain zuzen ere. Goizez eta arratsaldean egongo da zabalik.



M.A.

## Bertso liburua 2015ekoendako

Bertso liburua jaso dute 2015ean jaiotako neska-mutikoen Lekaixoka bertso eskolako partetik. Ia berrogei umeren argazkiekin eta bakoitzari egindako bertso banarekin osatu dute liburua eta joan den egubakoitzean banatu zieten gurasoei, hain zuzen, Goio, Beñat eta Gari Arrieta musikariek gurututako ekitaldi goxoan. Oso pozik agertu ziren guztiak opariarekin.

## Bertikal jostailuak arrakasta izan du Chicagoko ferian

Aretxabaletan bertan sortutako Bertikal jostailua Chicagoko jostailu feriararen eraman dute, eta, ekoizleen esanetan, arrakasta handia izan du. Hala, AEBetan merkaturatzen hastekotan dira. Otsail inguruan Alemaniako ferian ere izan ziren; han ere harrera beroa egin zioten eta Europako hainbat herrialdetan dabilta saltzen.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



# "Diskoko sehaska kanta benetan gustuko dut"

**IGOR SAN JUAN** MUSIKARIA

Lehenengo diskoa kaleratu du Gaztelupeko Hotsak-ekin kantari eta gitarra-joleak: *Izarrik gabeko zerua*; estilo asko batu dituen lana da aretxabaletarrarena

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aretxabaletarra eta aramaioarra da Igor San Juan (1970), eta lehen diskoa kaleratu eta Durangora joatea bat izan dira.

**Zeure diskoarekin Durangon; sekula halakorik pentsatuta zenuen?**

Bai, zera! Handia da gero stand batean neure diskoarekin egotea. Orain arte lagun artean gitarra jo eta etxean lan egin izan duenarendako izugarria da. Halakorik ez dut uste beste inoiz gertatuko zaidanik.

**Oraindik inork gutxi ezagutzen zaitu, Debagoieneko zenbaitek bakarrik, seguru asko. Baina gustura diskoak izan duen harrerarekin?**

Bai, neure etxean eta beste lauk ezagutzen naute, hori hala da. Baina bai, oso pozik nago.

**Lan handia dago diskoaren atzean...**

Bai, bai, luzea izan da prozesu guztia. Gogotsu jardun dugu, baina kosta egin zaigu bukatzea; izan ere, diskoa grabatu duen teknikaria, Juanan Ros, kontu askotan ibiltzen da eta ezin izan dugu hasi eta bukatu egin. Hala ere, oso giro ona izan dugu grabazio guztian.

**Taldetxo batek lagundu dizu, ezta?**

Bai, jazz hirukote batek. Musiken ikasitako musikariak dira hirurak, bertutetsu batzuk. Gipuzkoan ingeniari asko ditugula diot nik, baina musikariak ere bai orain, eta izugarriak, gainera. Lehen, talentudunak zeuden; orain, baina, ikasitako musikariak, eta zelakoak, gainera. Teknikaria irakaslea da eta haren bitartez ezagutu ditut. Salamancako kontrabaxu-jotzaileak, Sevillako bateria-joleak eta Gasteizko piano-joleak egin didate lagun; azken hori ikaragarria da, bigarren jazz diskoa kaleratu du laster. Eta pentsa, jazz hirukote horren gainean sartu ditugu nire ahotsa eta gitarra...

**Izarrik gabeko zerua da diskoa. Ez du izarrik zure pareko zeruak, ala? Nahiko esistentzialista geratu da, ezta? Baina badu bere zen-**



Igor San Juan musikaria Durangoko Azokan, diskoa esku artean duela. TXOMIN MADINA

## "JAZZ HIRUKOTE BATEK LAGUNDU DIT GRABATZERAKOAN, HIRURAK MUSIKARI BERTUTETSUAK"

tzua... Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* liburuan agertzen den esaldia da; handik hartu dut. Portada, ostera, Iñaki San Migel marrazkilari eta diseinatzailerarekin aretxabaletarrak egin dit. Libre utzi nion eta ideiarri jarraitu dio hark ere.

**Jazza, bossa nova, swinga, balada bat dago, sehaska kanta bat ere baduzu... Nahaste handia, ezta?**

Bai, hala da. Nire gustukoena sehaska kanta hori da; kontrabaxua, bukaeran piano doinuak... Musikazale moduan oso gustuko dut. Mikel Azkarate saxofoi-jotzaile bergararraren laguntza izan dut beste abesti batean, eta dotoreak dira haren doinuak ere. Gustuko dut denetik jotzea, eta halakoa da diskoa ere.

**Doinuak eta letrak, biak zeureak? Letra guztiak ez. Jon Benitoren *Bulkada* liburuko poema bat, esaterako, oso gustuko dut, *Bar-***

*neko hitza*, baina nik letra moldatu egin diot eta *Isiltzen dudana* jarri diot. Beste baten letra da Gerardo Markuleta oñatiarraren *Batak ez du bestea kentzen* eta Jon Sarasua aretxabaletarrarena ere badut beste bat.

**Aspalditik zabilta musikagintzan eta orain diskoa etorri da. Ametsa egia bihurtu da?**

Zerbait grabatu gura nuen, eta hazten joan da kontua. Baina bai, ametsa izan da eskuetan diskoa izatea. Izan ere, nik hasi egiten ditut proiektuak, baina bukatu sekula ez, eta, kasu honetan, emaitza esku artean dut.

**Olentzerori eskatzeko opari polita...**

Bai, horixe. Maketa bat atera nuen garai baten eta han jarri nuen umeen eta 60 urtetik gorakoen artean nintzela espezialista; kar, kar, kar... Orain, ez dakit non egongo naizen... Edozeinek entzuteko moduko diskoa dela uste dut.

**Eta kontzertuak noizko?**

Oso lanpetuta nabil, ikasten hasi naizelako, eta ez dakit. Gainera, taldearekin batera elkartu behar ko naiz eta ez da erraza izango hori, baina badugu gogo. Aretxabaletan eta Aramaion gustura joko nuke.



Janne Valkeajoki akordeoilari iaz, Arrasaten. IMANOL SORIANO

## Valkeajoki akordeoilari finlandiarraren kontzertua bihar

**M.A.** ARETXABALETA

Arrasate Nazioarteko Akordeoi Lehiaketako iazko txapeldun Janne Valkeajoki (Finlandia, 1992) gaztearen kontzertua izango da bihar, zapatua, 19:30ean, Arkupen (debalde). Goi mailako musikaria da eta akordeoilari klasikoen artean interesgarrietakoa. Hainbat txapelketatan parte hartu izan du, Finlandian bertan zein nazioartean.

**Bach-en eta Ravel-en obrak**

Johann Sebastian Bach musikari handiaren hainbat pieza joko ditu Valkeajokik; besteak beste, *Allemande*, *Courante* eta *Sarabande*. Cecilia Damström-enak beste hainbat, *The Rhomb*, eta *The Ascending Line*, adibidez; eta ekitaldia bukatzeko, Maurice Ravel konposatzaile ziburraren doinuak ekarriko ditu; besteak beste, *Fugue* eta *Forlane*.

## Amaia Elizagoienek ipuina kontatuko du bihar, liburutegian

*Ameli* eta *Xirrikitu*en jostunek ipuin musikatuarekin etorriko da Amaia Elizagoien ipuin kontalari nafarra bihar, zapatua, Udal liburutegira; 11:30ean izango da kontaketa (debalde).

Eskarmentu handia du Elizagoienek, eta oraingoan, magiaz betetako amatxiren istorioa kontatuko die neska-mutikoei musikak lagun eginda.

## Mujika eta Perez de Arenazaren pintura erakusketa Arkupen

Gurutze Mujika aretxabaletarrak pintura-olioak jarri ditu ikusgai Arkupen eta Rakel Perez de Arenaza arrasatearrak akuarelak. Estilo ezberdinetan gai berbera landu dute: natura eta paisaiak. Hilabetea bukatu artean izango dituzte lanok erakusketa aretoan: astelehenetik egubakoitzera goizez (11:00-13:00) eta arratsaldez (18:00-20:00) eta zapatuetan goizez.

## Kontzertua egingo dute hilaren 17an, Mikel Unanue gogoan

Aretxabaletako hainbat musikari elkartuko dira abenduaren 17an, egubakoitza, Mikel Unanue gogoan izateko. Herriko Plazan izango da kontzertua, eta han izango dira honako hauek: Iñaelektrik (21:00), *Xistor* Igor San Juan (21:30) eta Akulu (22:00). Uztailean hil zen Unanue, eta orain, lagunek eta senideek kontzertuarekin izango dute gogoan.

## Zirku tailerreko emanaldia izango da abenduaren 28an

Xabi Larreak gidatutako zirku tailerrean jarraitzen dute lanean hainbat neska-mutikok; hain zuzen, bihar, hilak 10, eta datorren zapatuan, hilak 17, saio bana izango dute, Arkupen.

Ikasitako guztiaren berri eman gura diete gero senideei eta herritarrei, eta, horretarako, emanaldia egingo dute abenduaren 28an, Arkupen (12:30).



Valentin eta Blanca Gomez, Jesus Kerexetaren ilobak, Durangoko Azokan liburu aurkezpena egiten. VALENTIN GOMEZ

# Bizitza musikala liburuan gordeta

Jesus Kerexeta Azkoaga pianista eta autodidaktaren bizitza eta kantuak batzen dituen disko-liburua argitaratu berri dute haren iloba Valentin eta Blanca Gomezek, Iñaki Salvador musikari donostiarraren eta Itziar Barredo pianistaren laguntzarekin batera

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Jesus Kerexeta Azkoaga eskoriatzarren *Bizitzaren abestiak* liburua kaleratu berri dute, haren haurtzarora eta gaztarora eta haren musika batzen dituen, hain zuzen ere. Kerexeta piano-jolea zen, kantu asko sortu zituen. Eskoriatzako estankoa bizi izan ziren izebei eskainitakoak dira asko, eta beste asko, emazte Bego Iasiri, Mendraka eta Argiñeta auzoei eta Elorrio eta Eskoriatza herriei, besteak beste.

Musikari autodidakta izan zen Kerexeta, eta piano-jole aparta. Liburuak haren bizitzako hainbat pasarte eta argazki batzen ditu, baina bereziki hark sortutako kantuak partituretara pasatzea izan da lanaren helburua. Hain zuzen ere, Kerexetaren egin zuen konposizio lan handiaren testigantza idatzia utzi dute egi-lek liburuaren bitartez.

**Pianoa jotzen bere kabuz ikasi**

Lau urte zituenetik bederatzirtera arte, Eskoriatzako abadearekin hasi zen pianoa ikasten Kerexeta, eta gero, bakarrik jarraitu zuen ibilbidea, kontserbatoriotik pasa gabe. Abilezia handiarekin jotzen zuen, eta piezak partituretan idatzi barik konposatzen zituen; hala ere, hauen konstantzia geratu da, grabatu egiten baitzituen piezak bobina handietan, disketeetan eta CDetan.

Liburua hainbat pertsonak urteetan egindako lanari esker

**"NI FALTA NAIZENEAN, ZUK ZAINDUKO DUZU NIRE MUSIKA, ZUREA BAILITZAN ZAINDU ERE"**

JESUS KEREXETA

argitaratu da, baina, batez ere, ilobek bultzatu dute proiektua: Valentin eta Blanca Gomezek. Liburuan ageri den moduan, Jesus Kerexeta bizi zenean, honela esaten zion iloba Blancari: "Ni falta naizenean zuk zainduko duzu nire musika, zeurea bailitzan zaindu ere".

Blanca Gomez piano ikasketak egindakoa da, eta zaletasuna partekatzen zuen osabarekin. Hil zenean eskuratu zituen osabaren piano grabazioak. "Handik bi urtera, Ignacio Villota osabaren gaztetako lagunak deitu gertatu zen galdetzeko, eta orduan hasi zen Kerexetaren musika berreskuratu eta gordetzeko proiektua", adierazi du Valentin Gomezek. Gero, Iñaki Salvador musikariarekin jarri zen kontaktuan, eta egitasmoaren zuzendaritza musikala haren esku geratu da. Horrez gain,



Jesus Kerexeta pianoa jotzen. VALENTIN GOMEZ

## Iñaki Salvadorren hitzak liburuan

Egitasmoaren zuzendaritza musikala egin du Iñaki Salvadorrek, eta hau da adierazi duena Kerexetaren musikaz: "Jesusen musikak ez dio muzinik egiten musika espresioaren ikusmirarik zabalenera ezta begiratokirik bizenari ere. Kontrakoa esango nuke. Begi-bistakoa da Kerexetaren musika kultura zabala, eta bertatik murgiltzen da jotzeko era erakargarri eta ausartetan. Garrantzi bera ematen die ideia baten sorkuntza eta burutzeari zein bat-batekotasunetik gertuko adierazpen eta forma askatasunari ere. Interpretarien hautaketa da hori. Ederra, adierazgarria eta interesgarria da bizipena entzutea berarekin bizi izan eta pianoan jotzen zegoela orduak eta orduak entzuten ziotenei. Horiek hainbat pasarte gogoangarri eta esanguratsu kontatzen dituzte eta horien artean baita Jesusen ez zuela sekulan berdin jotzen pieza bat bera ere".

## ONDARE MUSIKAL MODUAN GERATZEKO EGINDAKO LANA DA JESUS KEREXETAREN DISKO-LIBURUA

piezak partituretara pasatzearen lana Mikel Gaztañagak egin du, eta diskorako interpretazioa, berriz, Itziar Barredo pianistak.

**Musikari oso lotuta**

Kerexeta 1922an jaio zen, Eskoriatzan, eta 2007an hil zen, Elorrioren. Eskoriatza, Abadiño eta Elorrioko udaletan aparejadore aritu izan zen arren, batez ere pianista zen. "Eguraldi ona egin zuenean, haren egongelako balkoia alderik alde ireki, eta orduak ematen zituen pianoa jotzen. Elorrioko plaza zeharkatzen zutenak entzule moduan geratzen ziren balkoipean entzuten...".

Elorrioren ezagunagoa izan arren, erlazio handia zeukan Eskoriatzako izebekin. "Batez ere gaztarora egin zuen Eskoriatzan, hogeita bost urte ingu-

ru zituen arte gutxi gorabehera. Elizan musikarekin lotutako ekintzaren bat bazegoen, beti joaten zen bertara... ", adierazi du Valentin Gomezek.

**Musika eskoletara zabalpena**

Hamazazpi kantu batzen ditu diskoak eta liburuan kantu horiek partituretan irakurtzeko aukera dago. Dagoeneko Durangon, Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolan... banatu dituzte disko-liburuak. Musika ikasten ari diren ikasleentzat, profesionalentzat edo musikarekiko zaletasuna duten guztientzat prestatutako lana da.

"Lanaren helburu nagusia osabaren musika partituretara pasata irakaskuntza-tresna bihurtzea da. Eta ondare musikal moduan, musika eskoletara zabaldu nahi dugu, erabilpena ikusten badiote erabiltzeko. Horrez gain, haren desioa zen konposatu zuen musika nolabait gordeta geratzea; beraz, hala egin dugu. Guretzat ere, familiarentzat, altxor handia da", adierazi du Valentin Gomezek.



# Jai giro aparta izan da Euskararen Egunean

Euskaldun Berrien Plazaren inaugurazioa, herri bazkaria, kontzertuak... giro aparta izan da Eskoriatzan ospatu den Euskararen Nazioarteko Egunean. Elkarte ezberdinek Udalaren laguntzarekin antolatutako ekimen guztiak arrakastatsuak izan dira

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzan ospatutako Euskararen Nazioarteko Egunean, trikiti doinuekin kalejiran hurbildu ziren herritar ugari Euskaldun Berrien Plaza inauguratzera.

Dantzariak ohorezko aureskua egin zuten bertan lehenengo, eta Hankamotx taldeko bertsolariak euskarari kantatu zioten.

Horrez gain, Euskaldun Berrien Plazan Ixotu gazte taldeko kideek egindako marrazkiaren nondik norakoen berri eman zuten. Bertan, txantxangorria, txoriak eta esaldi bat margotu dituzte, *Euskararen hegaltzean batuko gara* leloarekin.

**Euskaldun berriak pozik**

Ekitaldi instituzionalean, herritar ugari batu ziren; besteak beste, udal ordezkariak, eskualtegiko kideak eta ikastetxeetako neska-mutikoak eta gurasoak. Bestalde, plazaren

**EUSKALDUN BERRIEN PLAZAN, MARRAZKIA EGIN ETA ESALDIA IDATZI DUTE IXOTU EUSKARA TALDEKOEK**



Euskaldun Berrien plazako inaugurazioan, ohorezko aureskua eginen. IMANOL SORIANO

izena erakutsi zuten euskaldun berriak oso pozik agertu ziren. Honela azaldu zuen Mari Mar Arevalok: "Nire garaian eskolan ez zen euskara asko ematen. 18 urterekin euskaltegira joatea erabaki nuen, euskara pixka bat ikasi eta sakontzeko. Horrez gain, barnetegian ere izan naiz... Izugarritzko ohorea da gurekin akordatu izana, eskerrak eman beharrean gauden...".

**Tio Teronen semeen arrakasta** Arratsaldean, berriz, Tio Teronen Semeak taldearen *FreshCool* kale espektakulua izan zen Herriko Plazan, eta herritarrei asko gustatu zi-

tzaien ikuskizuna izan zen. Plazan jarritako karpa barruan egin arren, barrualdea eta kanpoaldea jendez bete zen. Ikuskizunari hasiera emateko, hainbat herritarri dantzak egin zizkieten, eta ondoren, dantza ezberdinak egin zituzten taldekideek.

**Eguna amaitzeko emanaldiak**

Euskararen Egunari amaiera emateko, gauean bi kontzertu izan ziren. Lehenbizi, Jasan herriko taldeak eskaini zuen kontzertua, eta ondoren, Akerbeltz taldeak jo zuen. Herritar asko batu zen karpa azpian dantza egiteko, eta erromeriak arrakasta aparta izan zuten.

## Gabonetako argiak abenduaren 15ean piztuko dituzte

Herria argizatzearekin batera, gaztetxoentzako hainbat ekintza izango dira Herriko Plazan, 17:00etatik aurrera

**I.B** ESKORIATZA

Iaz, Eskoriatzan jartzeko Gabonetarako argi eta dekorazio berria erosi zuen Udalak, eta, duela bi aste inguru herriko kaleetan zehar jarri zituzten arren, oraindik piztu barik daude argiak.

Horretarako eguna abenduaren 15a, eguna, izango da. LED teknologia daukaten argiak piztuko dituzte, 18:30etan, argindar kontsumo minimoa daukatenak. Horren aurretik, 17:00etan, haurrentzako tailerrak izango dira Herriko Plazan. Ondoren,

18:00etan, txokolate-jana egingo da, eta, horretarako, nork bere edalontzia eramatea gomendatzen da. 18:30etan izango da esperotako argien piztuera, eta, horrekin batera, Willy Pompeiren ikuskizuna izango da. Ikuskizun horrekin umeez disfrutatuko dute gehien; izan ere, xaboi-burbuilak egingo dituzte, forma eta mugimendu ezberdinak eginda.

Ekitaldi guztiak Herriko Plazan egingo dira, baina, euria egiten badu, Joseba Iñurrategi pilotalekuan egingo dituzte.

## Lan egiteko begiraleak behar dituzte Gabonetako parkerako

Eskoriatzarrek preferentzia izango duten arren, jendea hautatzeko hainbat baldintza jarri ditu Gazteria Sailak

**I.B** ESKORIATZA

Eskoriatzako Gazteria Sailak adierazi du abenduaren 27an eta 28an Manuel Muñoz kiroldegian egingo den Gabonetako parkean lan egiteko begiraleak behar direla.

Hainbat ekintza izan ohi dira urtero, eta parkean egin behar diren begirale lanak egiteko ezinbesteko bi baldintza jarri dituzte: batetik, euskara jakitea, eta, bestetik, 18 urtetik gorakoa izatea. Horrez gain, aintzat hartuko da: denbora libreko begirale titulua izatea -5 puntu-,

begirale izateko ikasten jardutea -3 puntu-, irakasle-ikasketak eginda izatea edo horretarako ikasten jardutea -3 puntu-, udal-ekintza egiteko moduan esperientzia izatea -puntu 1-, eta Eskoriatzako Gabonetako parkean begirale aritutakoa izatea eta udal-ekintza esperientzia izatea -puntu 1-.

Izena emateko azken eguna abenduaren 20a izango da, eta interesa duenak [gazteria@eskoriatza.eus](mailto:gazteria@eskoriatza.eus) helbidera curriculumak bidali edo 943 71 46 88 telefonora deitu dezake.

## Herri bazkaria arrakastatsua izan da

Euskararen Eguneko herri bazkarian 130 lagun inguru batu ziren. Bertan, paella aparta jateko aukera izan zuten, eta batzuek, gainera, errepikatze aukera izan zuten. Hala ere, ez zen ezer soberan geratu.

Bazkalostean, Imanolek eta Unaik trikiti doinuak jarri zituzten, eta auzolanean dena jaso ondoren dantza egitera animatu ziren herritar asko.



Euskararen Eguneko herri bazkarian. ESKORIATZAKO TXOSNA BATZORDEA

## Hiru orduko mendi irteera egingo da domeka honetan

Hezkuntza Foroak antolatuta, *Eskolore Pausoz Pauso: Makila eskuen eta ibili basuen* mendi irteera egingo dute abenduaren 11n, domekan. 10:00etan, Herriko Plazatik irtenda, Alberja-Nebra-Ganboralde hiru orduko ibilbidea egingo dute. Parte hartzeko ez da izenik eman behar, baina haurrak bakarrik ezingo dira joan mendi irteerara.

## Udal bulegoak itxita egongo dira gaur, egubakoitza

Eskoriatzako Udaleko bulegoak, eta, horrenbestez, Erregistro Nagusia, itxita egongo dira gaur, egubakoitza, abenduaren 9a, egun osoz. Hori horrela, Eskoriatzako Udalarekin lotutako edozein eperen, betebeharren edo eskubideren muga egun horretan suertatuz gero, hurrengo lanegunera arte luzatuko da epea.

# Kuatruenako etxeetara pasatzeko lanak hasita

Gipuzkoako Diputazioak egingo dituen lanak hasi dira dagoeneko. Eskoriatzatik Kuatruenaraino doan bidegorritik urbanizaziora pasoa egingo dute. Gainera, semaforoa eta oinezkoen babesguneak jarriko dituzte bertan, besteak beste

## I.B. ESKORIATZA

Gipuzkoako Diputazioak martxan jarri ditu Aingeru Guardatik gora, Gatzagara bitartean, GI-3310 errepidean, Eskoriatzako bidegorria amaitzen den tokitik Kuatruenako etxeetaraino pasoa egiteko lanak.

Oinezkoen pasoa bi elementu garrantzitsu jarriko dituzte: batetik, botoia izango duen semaforoa jarriko dute, eta oinezkoak, arrisku barik pasako dira alde batetik bestera. Bestalde, oinezkoen babesguneak jarriko dituzte, autoen abiadura murrizteko helburuarekin.

Gainera, errepide zati bat handitu egingo dute goranzko norabidean, eta espaloia egingo dute. Bestalde, bidegorria luzatuko egingo dute pixka bat, Kuatruenako etxeak hasten diren zatiraino. Guztira, 80.000 euroko aurrekontua dute lanek, eta hilabete inguru iraungo dute. Ordura arte, bi semaforo jarri dituzte zirkulazioa erregulatzeko.



Hasi dira bidegorritik Kuatruenara pasoa egiteko lanak. I.B.

## Beharrezko neurria

Eskoriatzatik Kuatruena urbanizazioraino bidegorria dago eta alde batetik bestera jendea pasatzen da. Bertatik autoak abiadura handiz pasatzen dira eta oinezkoen segurtasuna arriskuan jartzen da. Eskoriatzako Udalak egindako hiri-berritze planean herritarrek egindako proposamenetako bat da ekimen hau.

## Bi semaforo gehiago

Aurrera begira, Gastanai baserri ondoko Santa Columba baselizan aurrean, GI-3310 errepidean ere jarriko dute semaforoa, autoen abiadura murrizteko eta oinezkoen pasoa egiteko. Horrekin batera, eta arrazoi beragatik, Marulandako bidegurutzean ere jarriko dute semaforoa.

# Saskibaloiko seniorrek aurkari gogorra izango dute aurrean

Atletico San Sebastianen kontra jokatu dute eskoriatzarrek, bigarren faseko laugarren jardunaldian

## I.B. ESKORIATZA

Senior mailako Eskoriatzako saskibaloiko taldeko neskek Ayma Goierriren aurka 42-71 galdu zuten pasa den astean. Lan ona egin arren, ez zen nahikoa izan eta galdu egin zuten. Denboraldi-aurrean haien kontra jokatu tako partiduan osten, eskoriatzarrek bazekiten ez zela partidu samurra izango. Hala ere, ez zuten uste halako porrotik jasoko zutenik. Hainbat jokalarik min hartuta ditu taldeak eta horien ordeztu gazte mailako hiruk jardun zuten.

Asteburu honetan, berriz, atsendaldia izango dute eskoriatzarrek, eta hurrengo partidua etxean jokatu dute, Atletico San Sebastianen aurka, abenduaren 16an, 20:15ean. Sailkapenean, aurkariak bosgarren postuan daude lau punturekin eta etxeok, aldiz, hirugarren postuan daude, bost punturekin. Aitziber Soriano Txori jokalariren esanetan: "Emaizta txar batetik gatoz, baina, betiko moduan, irabaztera irtengo gara kantxara, goiko postuetan mantentzeko asmoz..."

# Atxorrotzeko tenentziari buruzko dokumentala

Nabarralde elkarteak Gipuzkoa osatzen duten hiru tenentziari buruzko trilogia egiten ari da, eta aurten, Atxorrotzekoaren gainekoa egingo dute. Hain justu, abenduaren 16an, ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute Ibarraundin, Atxorrotzeko tenentziaren gainekoa -errege edo jaun batek bere basailuari egindako lurren lagapena, beti jaunak jabetza galdu barik eta inolako jaraunspen-eskubiderik gabe-. Aurkezpenarekin batera, Atxorrotzi buruzko erakusketa egongo da bertan: *Atxorrotx, urrea eta odola Arlabaneko igerobidean*. 11:30ean hasiko da ekitaldia, Iñaki Sagredo arkeologoaren hitzaldiarekin.



Iaz, 2015ean, izan zen lehen aldiz Hustu Ganbara! azoka. GOIENA

# Abenduaren 18an egingo dute bigarren eskuko azoka, plazan

Norberak etxean eduki baina erabiltzen ez dituen tresnak eraman ditzake Hustu Ganbara! azokara, salerosteko

## Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Abenduaren 18an, domeka, egingo dute Hustu Ganbara! azoka, 12:00etatik 14:30era. Bigarren eskuko azoka da hau. "Ikusten baduzu etxean daukazun objektu hori, erabiltzen ez duzuna, beste norbaitek erabili dezakeela, azoka honetara ekarri, seguru norbaitek aprobetxatuko duela. Gainera, prezioak sinbolikoak dira, oso merke egoten dira gauzak", azaldu du Itsaso Eginok, Hustu Ganbara ekimenaren antolatzaileetako batek.

Antolakuntzatik nabarmendu dute "mota guztietako objektuentzat" lekua egingo dela. Hala ere, ohartarazi nahi izan dute ez direla onartuko abereak, landareak edota matxuratutako gauzak.

## Irabaziak, herriarendako

Azoka honetan ateratako dirua herrian zenbait ekintza antola-

tzeko bideratuko dela azpimarratu du Eginok. "Hemen kontua ez da norberak ahalik eta etekinik handienak ateratzea. Biltzen den dirua guztiontzako izango da, herrian kontzertuak, hitzaldiak edo beste mota bateko ekitaldi kulturalak antolatzeko erabiliko dena", zehaztu du antolakuntzako kideak.

## Aurten bigarrenez

Iaz sortu zen Hustu Ganbara! azoka, *Dokudorlak* izeneko ekitaldia diruz laguntzeko asmoarekin, eta, orduko arrakasta ikusita, aurten azoka errepikatzea erabaki dute. "Iazkoa ondo egon zen, herritarren artean giro ona sortu zen, eta hori da garrantzitsua", azaldu du Eginok. Herri mailako zerbait dela gaineratu du. "Guk ez dugu espero jendetza etortzerik, baina gure artean festa giroa lortzea da helburua, ondo pasatzea".

# Gatz Museoak bisitari ugari izan dituela eta, arduradunak pozik

Aitor Larrañaga museoko arduradunak azaldu duenez, jende ugari ibili da zubi aste honetan.

"Pasa den asteburuan bisitari asko eduki genituen eta astean zehar ere bai. Logikoki, jaiegutetan jende gehiago ibili da baina astelehen eta asteazkenean ere izan ditugu bisitak. Balorazioa positiboa da", azaldu du

Larrañagak. Gaztelazko bisitak gehiago izan dira eta Larrañagaren esanetan, alde guztietatik etorri dira. "Bailara ingurutik eta hiriburuetatik -Bilbo, Gasteiz eta Donostia- etorri dira gehienbat, eta Espainia aldetik etorritakoak ere izan dira". Bisitari perflari dagokionez, gehienbat bikoteak eta familiak izan dira.

Oro har, aurten iaz baino bisitari gehiago izan dituztela azpimarratu du arduradunak.





Olentzero eta Mari Domingi, Bergarako udaletxean. IMANOL SORIANO

## Gabonetan jendea herrian ibil dadin nahi du Udalak

Egitarau oparoa prestatu dute, askotarikoekin, "bergararrek herrian geratu eta bertan kontsumi dezaten". Kultura eta kirol ekitaldi eta sasoiko ohiko pertsonaien arteekin batera, Laboratorium museoak ere antolatu ditu ekintzak; dibulgazio saioak tartean

### Julen Iriondo BERGARA

Kultura ekitaldiei dagokienez, hilaren 26an izango da aurrenekoa, *Baserrian Amets*, 3 eta 6 urte arteko umeentzako antzez-lana, Eidabe taldearena. Patatak eta arrautzak dendatik datozela uste duen neskatoa da protagonista, eta asteburua amonarekin baserrian pasatuta ikasiko du nondik datozen elikagaiak. 17:00etan izango da, Zabalotegin eta 4 euroko sarrerarekin.

Leku eta prezio berean, hilaren 28an *Haizearen herrira* ikusizuna izango da, bi pertsonaia ezagunekin: "Pupu eta Lore poz-pozik daude, aitona Manolo etorri baita bisitan, bere gitarra, kantu eta jolasekin. Gauza oso gutxirekin, mundua dantzan jartzeko kapaz da aitona Manolo: musika eta irudimen apur bat", diote saioaren azalpenean. Berriki hildako Imanol Urbietaren kantuak ditu oinarri ikusizunak, "haurrek eta aitona-amonek elkarrekin jolas egin dezaten propio sortuak". Bi

emanaldi izango dira, 16:30ean eta 18:30ean.

Zabalotegikoekin amaitzeko, Oliver magoaren saioa izango da urtarrilaren 8an, 17:00etan

Laboratorium museoak antolatuta ere hainbat ekintza egingo dituzte Gabonetan. Azkenetik hasita, familientzako irteera ornitologikoa egingo dute Salburuara, eta Arabako Zientzia Naturalen Museora bisita ere bai, urtarrilaren 3an; abenduaren 30ean, berriz, ugaztunak gaitzat hartu eta familientzako tailerra egingo dute Laboratorium museoan bertan, 10:30ean; eta hauen aurretik, abenduaren 27an, dibulgazio saioa egingo dute Manu Hernandezekin: "Iaz izan zuen arrakasta ikusita berriz ere gonbidatzea pentsatu dugu. Esperimentuak egiten ditu, gauza praktikoak, eta zientzia bidez esplikatzen ditu", dio museoko Rosa Errazkinek. Familiei zuzendutakoa izango da saioa, eta 12:00etan hasiko da. Hiru gauzotarako izena eman

behar da, [laboratorium.eus](http://laboratorium.eus) helbidean.

Eta hauekin batera, kirola ere izango da –hiruko saskibaloia hilaren 26an eta 27an; San Silbestre solidarioa 31n; lauko hockeya urtarrilaren 2an; eta infantilen saskibaloio torneooa 3an eta 4an–; Olentzero eta Mari Domingi, nola ez, hilaren 24an –Osintxun eta Angiozarren ere bai–; eta Errege kabalgata urtarrilaren 5ean –Elosuan baita ere, ipuin kontaketa ostean–.

Ume eta gaztetxoentzako Bedelkarrek jarritako atrakzioek eta jolas parkeak –abenduaren 28an, 29an eta 30ean eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an osatzen dute Gabonetako eskaintza –egitarau osoa: [goiena.eus/bergara](http://goiena.eus/bergara) helbidean–.

Ondare, Kultura eta Jai batzordeko buru Maite Agirrek egitaraua aurkezterakoan adierazi du bergararrak herrian geratzea eta bertan kontsumi dezaten nahi dutela, bide batez, antolatutakoekin.

## "Nire esperientziatik, lagundu nahi dut bergararren beharretan"

IRUNE GALARRAGA EAJ-KO ZINEGOTZIGAIA

Karguari uko egin dion Iñaki Arregi ordezkaturako du

### J.I. BERGARA

Soraluzetarra, 13 urte daramatza Bergaran; lanbidez Aita Menni ospitaleko erizain zuzendaria da. Abenduko osoko bilkuran hartuko du kargua.

### Nola hartzen duzu ardura berria?

Ez nuen espero tokatuko zitzaidanik, baina animoz eta ilusioarekin nago. Niretzako erronka da, erronka interesgarria; pertsona baikorra naiz eta ahal dudan gehiena laguntzeko prest nago, hori da nire helburua.

### Udal kudeaketan edo politikan aurrez esperientziarik bai?

Ez. Zerrendetan gehiagotan joan izan naiz, baina gehiago ez. Kudeaketan dudan esperientzia nire lan arlokoa da.

### Ze arlotan nahi zenuke zure ekarpena egitea?

Ni erizaina naiz eta duela zortzi urtetik zuzendaritzan dihardut; eta hori dut gustuko, gizarte arloa. Hor nire ekarpena onuragarria izan daitekeela uste dut, nire esperientzia arlo horretakoa delako. Gainerakoan, beste kideek badaramate urte eta erdi agintaldian, eta inguruko esperientziaren laguntzarekin egokituko naiz dagokidanera.



Iruñe Galarraga. IRUNE GALARRAGA

### Eta ardura berriak zer emango dizula uste duzu?

Herriaren kudeaketa nolakoa den barrutik ikusteko aukera. Orain arte beti kanpotik begiratu dut, eta kanpotik erraz ikusten da beharrak eta zeintzuk diren. Orain, barrutik saiatuko naiz nik ikusten ditudan hobetu beharreko gauzak hobetzen. Eta ikasi egingo dut; denek esaten didate bizi beharreko esperientzia dela. Jendearekin lan egiteko gogoia dut, herritarren beharrak ezagutu eta nire esperientziatik laguntzeko.



MAI

## Garbi SLS enpresa BECen

Goiena komunitatea / Miguel Altuna Institutua / BERGARA

VII. Meeting Point Sefed egin zuten abendu hasieran BECen, eta bertan izan ziren MAIko Administrazio eta Finantzetako ikasleak, EAEko hamasei ikastetxetako 600 ikasleren artean. Garbi SLS enpresa simulatua eraman zuten BECera, eta benetako enpresa moduan jardun ahal izan zuten bertan.



# "Belaunaldi erreleboa da basogintzaren erronka"

**JORGE ASKASIBAR** BASOA FUNDAZIOKO PRESIDENTEA

Hazi Fundazioak eta Oñatiko eta Bergarako udalek baso jardunaldiak antolatu dituzte datorren asterako. Basoa Fundazioko presidente Jorge Askasibarrek hartuko du parte

**Maite Txintxurreta** DEBAGOIENA

Basoa Fundazioko presidentea da Jorge Askasibar. Oñatin eta Bergaran egingo dituzten baso jardunaldietan hitzaldia eskainiko du eta moderatzaile lanetan ere arituko da.

**Zeri buruz arituko zara jardunaldietan?**

Euskal Herrian eta, batez ere, Gipuzkoan basoek azken 40 urteetan izandako bilakaera aztertuko dut. Arlo honetan administrazioek eta baso langileek egin duten esfortzuari buruz mintzatzeko naiz.

**Bilakaera horren barruan, zer nabarmenduko zenuke?**

Baso hostotsuak ugaritu egin dira nabarmen, eta koniferak murriztu egin dira, *insignis* pinua tartean. Izan ere, espezie lokalen alde eginiko apustuak eman ditu bere fruituak, eta paisaia orekatzen doa. Gipuzkoan eta Bizkaian, basoen %80 mendi pribatuetan daude. Ondorioz, lehenago, horiek antolatzeke orduan irizpide nagusia etekin ekonomikoa zen. Gaur egun, berriz, ingurumen zein gizarte irizpideak ere hor daude. Gizartearen borondate ona igaritzen da basogintzaren arloan.

**Zer egiten duzue Basoa Fundazioan?**

Batetik, fundazio moduan, gure laguntza eskaintzen dugu administrazioarekin eta bestelako elkarteekin basoaren iguruko proiektuak aurrera eramateko, eta bestetik, basogintzari buruzko informazioa zabaldu eta gizartea gai honekiko inplikatu dadin bilatzen dugu. Zentzu horretan, baso jardunaldi hauek oso garrantzitsuak dira. Horrez gain, egurraren erabilera bultzatu nahi dugu, industrian, eraikuntzan... Eta horretan ere hobetuz goazela uste dut; izan ere, gaur egun egurra duela 30-50 urte baino presenteko dago. Hori da bidea, Alemaniara, AEBetara edo Eskandinaviara begiratzea besterik ez dago. Gainera, basoak mantentzea garrantzitsua da; izan ere, arbolek CO2a oxigeno bihurtzen dute.

**Basogintzan badago belaunaldi erreleborik?**

Ez, eta hori da basogintzak duen arazorik eta erronkarik handiena gaur egun. Ez dago orain basoan lanean hasten den jende gazterik. Arazo oso serioa da hori. Baserri munduan orokorrean gertatzen den arazoa da hau, eta basoetan are gehiago.

## Gabon-apaingarriak egiteko tailertxoak Eguazteneko Azokan

Gabonak gerturatzeko doazela-eta, urteko garai honetarako apaingarriak eskuz egiteko bi saio antolatu dituzte, biak ere eguazteneko azokaren baitan. Hala, lehena datorren eguaztenean izango da, hilak 14, 18:00etatik 19:30era bitartean, Oxiron-doko azokan. Bigarren saioa, berriz, abenduaren 21ean izango da, ordu berean.

## Isidro Monzoni buruzko liburua aurkeztuko dute

*Isidro de Monzon, sormen berezi bat Euskal Herrian 1975-1985* liburuaren aurkezpena izango da eguaztenean, abenduak 14, Olaso dorreko ganbaran, 19:00etan. Euskal kostaldean artzain bordetan oinarritutako arkitektura estiloa zabaldu zuen bergararraren lana du hizpide liburuak. Aurkezpenarekin batera solasaldia ere egingo dute.



Jorge Askasibar, Basoa Fundazioko presidentea. J. ASKASIBAR

**ARGIA**

Zer emateko prest zaude?      Eta zer jaso nahi duzu?

**INDARTU DEZAGUN  
INDARTZEN GAITUENA**  
EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA

[www.argia.eus/eginargiakoa](http://www.argia.eus/eginargiakoa) #ArgiaJendea



# Txapa Irratia, herritarrek herritarrendako egina

Bergarako irrati libreak hiru hamarkada baino gehiago daramatza uhinetan, etxeko marka diren irratsaio beteteranoak mantenduz eta saio berriak emanez. Gogorarazi dute herritar ororentzat zabalik daudela irratiko ate eta mikrofonoak

**Maite Txintxurreta** BERGARA

97.20 frekuentzia da irrati kate-rik kuttunena hainbat eta hainbat bergararrendako. Kartzela zaharretik emititzen diren uhin libreek 32 urte daramatzate *txapada* ematen.

2016-2017 denboraldian ez dira falta Txapako parrillako beteterano diren irratsaioak, tartean *Berbenir* edota *Kolax*, biak ere hamar urtetik gora daramatzatenak uhinetan. "Duela urteak hemen hasitako jende askok mantentzen du Txaparekin lotura. Probatzen duenak, sarri, jarraitu egiten du", dio Txapako kide Lander Juaristik.

Dena den, saio berrien freskura ere topa daiteke 97.20an. Denboraldi honetan bi estreinaldi izan dira: *Halabalooza* eta *Nere Kuttunak* irratsaioak. Hala, denboraldi honetan Bergaran ekoiztutako 18 irratsaio emititzen dituzte Txapan. Horrez gain, irrati librean Arroza sarearen baitan dago Bergarako irratia, eta, horren bitartez, beste toki batzuetako irratietan ekoiztutako saioak ere ematen dituzte, eta Txapak ere bere ekarpena egiten du sare horretara.

**Irrati kate bat baino gehiago**

Txaparen eginkizuna ez da soilik irrati kate bat izatea, hortik



Txapako kideak, aurtengo denboraldia aurkezteko ekitaldian. IMANOL SORIANO

harago doa, "kolektibo bat da", dio Juaristik. Hala, aurrerantzean ere "herriko eragile izaten" jarraitu nahi dute. Izan ere, urtean zehar hainbat kontzertu edota kultura ekitaldi antolatzen ditu Txapak, bi helbururekin: bata, autofinantzaketa, eta bestea, berriz, herriko eskaintza kulturala zabaltzea. Gainera, antolatzen dituzten kontzertu guztiak irratian ematen dituzte.

Txapa Irratiaren izenean antolatzen dituzten kontzertuez gain, badira jaialdiak antolatzen dituzten irratsaioak ere. Horren

adibide da, esaterako, Tapoi Fest, *Jar Itzazu Tapoiak* irratsaioak antolatzen duen hardcore jaialdia, aurtengo bosgarren edizioa izan duena. Euskal Herriko hardcore zale ugari gerturatu dira Bergarako hitzordu honetara. Haus Of Beatseko lagunek berriki antolatutako elektronika jaialdiak ere jende ugari erakarri du.

Autofinantzaketari dagokionez, esaterako, azken Erramu Zapatuko herri bazkaria prestatu zuten Txapakoek, eta atzera ere antolatzeko asmoa dute.

## 'Halabalooza'

Musika da Xabi Sanchezek, Asier Kortabarriak eta Alayn Carazok egiten duten *Halabalooza* irratsaioaren muina. Joan den denboraldian *Indieoilar sukarra* irratsaioa egiten zuen Carazo eta *Cabaret Voltaire* egiten zuten Kortabarriak eta Sanchezek elkartzea erabaki zuten, saio bateratu bat egiteko, eta hala sortu zen *Halabalooza*, azken horrek azaldu duenez. Beraz, hirurak ere esperientziadunak dira.

Aipatu bezala, musikari buruz jarduten dute, eta hainbat estilo hartzen ditu barne irratsaioak: "Hasiera batean, indie musikara bideratu nahi genuen, baina, azkenean, hori baino zabalagoa da, gustuko dugun edozein taldez aritzen gara, edozein estilotakoak", diote. Hala, musikaren gaurkotasanaz mintzatzen dira, jaialdiak edo kontzertuak iragartzen dituzte, atera berri diren diskoak buruz berba egiten dute... Dena den, tarteka "klasikoak" ere entzun eta jorratzen dituztela azaldu du Sanchezek. Kide bakoitzak gustuko dituen kanta edo diskoak eramatean ditu, eta horiek entzun eta komentatzen dituzte guztien artean.

Domketan entzun daiteke *Halabalooza* irratsaioa, 20:00etan. Horrez gain, astelehenetan (18:00) eta eguaztenetan (01:00) errepikapenak entzun daitezke, eta uneoro [www.txapairratia.org](http://www.txapairratia.org) atarian zintzilikatzen dituzten podcastetara joz gero.

## 'Nere kuttunak'

Amaia Amasorrain da *Nere kuttunak* irratsaio berriaren gidaria. Irratsaio kulturala da honako hau, eta musika eta literatura ditu ardatz. Saio bakoitzean proposamen bat aurkezten du Amasorrainek, eta, gonbidatu batekin batera, liburu bati edo disko bati buruz aritzen dira solasean. Hala, liburu bati buruz dihardutenean, esaterako, pasarteak irakurtzen dituzte eta musikaz ari direnean, kantak jartzen dituzte.

Orain arteko saioetan, esaterako, RIP musika taldeaz, Anariren *Zure aurrekari penalak* diskoaz eta *El hombre en el castillo* liburuaz aritu dira saioan.

Bistan denez, saio batetik bestera lantzen den lanaren estiloa oso desberdina da; izan ere, irratsaio bakoitzean gonbidatua pertsona desberdin bat izaten da. Beraz, gustu guztietarako irratsaioa da honako hau. Hala, entzuleek liburu, entzule edo musika talde desberdinak deskubritzeko aukera izango dute.

Saioa egitera nola animatu zen galdetuta, Amasorrainek dio duela urte batzuk ere ibilia dela Txapan, eta, herritik kanpo egon ostean, berriro ere irratsaio bat egiteko gogoia zuela.

*Nere kuttunak* irratsaioa egubakoitzetan emititzen dute, 21:00etan, eta zapatu eguerdian (14:45) eta domekatik astelehenerako goizaldean (05:00) entzun daitezke errepikapenak.



NIRE USTEZ

ANDER BOLIBAR

## Zubiak lokatzetan

Badoaz. Zubi hau ere badoa. Hamar astez izan ditugu gurean. Hemezortzikotea izan da oraingoan, bederatzi hizkuntza komunitatetatik etorriak, guztiak hizkuntza aktibistak. Garabidek eta Huhezik gonbidatuak, Euskararen Herriak azken 60 urteetan bere hizkuntza eta nortasuna berreskuratzeko egindako pausoak

ezagutzera etorri dira, eta ariketan gutasuna pitzatu dute, edertu.

Beraien galdera xaxatzaileek gure kontraesanak azaleratzeaz gain, bidegurutze berrietarako biribilguneak sortzen dituzte. Murgiltze ereduarekin edo corpus bateratuarekin jaio garenok ez dugu atzera begiratu izan. Lan hau egin

izan zutenek ez dute belaunaldi berrienganako zama eta konfiantza neurtu.

Euskararen abenduko zubia eraitsita, denok gaude errekan, lokatzetan. Eta orain zer? Dabid Anautek "Euskalgintzaren Maltzaga" bezala bataiatu du kontsentsu garaia. Hitzunpolisean, Jon Sarasuak Urbian

kokatzen du euskalgintza, indarrak neurtu eta Aizkorrira igo edo ez erabakitzen. *Euskara irabazteko bidean* liburuan, Garikoitz Goikoetxeak sentsazioa, giroa eta nahia jartzen ditu erronka berrietarako ulergai.

Zubiak lokatzetan. Eta gu? Errekaren zein noranzkotan gaude?



Agorrosindik punturen bat eraman duen azken taldearen –Soraluze– aurkako partidua, aurtengo urtarrilaren 9an. IMANOL SORIANO

# Partiduko, batez beste, ia hiru gol sartuta, lider

Preferenteko taldea markak hausten ari da: Agorrosinen ez du galdu 2015eko azarotik –Urolaren kontra–, eta aurtengo urtarriletik etxeko puntu guztiak irabazi ditu. Denboraldi honetan, 11 gol soilik jaso ditu, eta 34 sartu; azkenekoan zazpi, Zestoari

**Julen Iriondo** BERGARA

Futboleko mutilen Erregional Preferente mailan hamabi jardunaldi jokatu dira dagoeneko, eta Bergararen zenbakiak ikusgarriak dira; batez ere etxean ateratako puntuei dagokienez –iaztik datorren bolada ona–, eta baita sartutako eta jasotako golei dagokienez ere.

Deigarriak aurreko asteburu-ko jardunaldian Bergarara laugarren sailkatu gisa zetorren Zestoari sartutako zazpi golak (7-0); are deigarriagoa kontuan izanda beste zazpi ikusiak ziztuztela zaleek Agorrosinen hiru partidua lehenago, Beasainen kontra, urri amaieran (7-1).

Gol gehien sartu dituen ligako taldea da Mikel Juaristirena, nola ez, 34rekin; bederatziko alde ateratzen dio bigarren gol gehien egin dituenari, Aretxabaletari. Baina asko sartu eta gutxi jaso, gainera; 11rekin, hiru taldek bakarrik jaso dute bergarrek baino gol gutxiago; Zestoaren kontraorekin, den-

boraldi honetan hiru aldiz utzi dute hutsean atea –Tolosak sartu zizkion hiru, baina beste inork ez gol bat baino gehiago–, eta horri garrantzia berezia ematen dio entrenatzaileak: "Golak ez jasotzeak ematen ditu puntuak; zuk sartu bai baina besteak gehiagotan asmatzen badu, ez dago punturik", dio Juaristik.

Kontrarioaren atean aukerak egin eta asmatzeak *laguntzen* du, dena den; Tolosak hiru sartu zizkion hartan, kasurako, irabazi egin zuten mahoneroek, lautan asmatuta. Hori kanpoan izan zen, baina denboraldiko 34 goletatik 26 etxean sartu dituzte. Etxean ari da bereziki ondo taldea: "Taldea konfiantza hartzen ari da poliki-poliki; baloia-

**BEHIN BAINO EZ DIOTE EGIN AURTEN GOL BAT BAINO GEHIAGO; ATEA HUTSEAN, BERRIZ, HIRUTAN UTZI DUTE**

rekin gero eta gauza gehiago ateratzen zaizkigu, bilakaera ona da. Etxean soltura handiarekin jokatzeko ari gara, eta emaitzak onak dira".

Golik sartu gabe bi alditan baino ez da geratu Bergara denboraldi honetan, Idiazabalen eta Zumarragan, eta albiste ona da golak egiterakoan ez duela taldeak jokalaria jakinekiko men-

pekotasunik –Zestoaren kontra, adibidez, Asis Peñak bakarrik sartu zituen bi–: "Hiruzpalau jokalaria ditugu lauzpabost golekin; atzeko lerrokoek ere sartzen dituzte, estrategian ere oso indartsu gaude".

## Kanpoan hobetzeko gogoa

Etxeko zenbakiak ikusgarriak badira, ez dira txarrak kanpo-koak, nahiz eta bai hobetzeko modukoak –sei partidutan garaipen, berdinketa eta porrot kopuru bera–; eta hori lortu nahi luke orain bergararren entrenatzaileak: "Agorrosingo berezitasuna da belar naturala, zelai handia... Nahi dugun horretara iristeko konfiantza badugu bertan. Kanpoan ez dugu konfiantza maila bera, zerbait badago hor".

Eta hobetzea garrantzitsua litzateke; hor daude iazko zenbakiak: etxean bost puntu soilik galdu –Urolaren kontra bederatzigarren jardunaldian eta Soraluzerekin hamabosgarrean–, goiko postuetako borrokan ibili zen azken unera arte Bergara, eta hori ez zuela lehen itzulian etxetik kanpo irabazi. Kanpoan finago ibili izan balitz...

Liga erdira urreratzen ari diren honetan, beraz, oraingoz ondo doaz gauzak aurtun. Mikel Juaristik dio gaur egun lider egotea "anekdota" dela, garrantzitsuena dela taldearen "dinamika" ona dela: "Nola irabazten ari garen, sentsazio onak ditugula, taldea konfiantza hartzen ari dela... Eta konfiantza horrek eramango gaitu hor egotera". Ez du ezkututzen helburua mailaz igotzea dela, baina ohartarazita "oso zaila" dela, kategoria "oso orekatua" dagoela. Pausoz pauso; hurrengo, Getariakorekin, Orion, domekan.

## Aurtengo 100 gimnastekin, erakustaldia

Bergarako eta Antzuolako gimnastak ari dira aurtun ere, ohi bezala, gimnasia erritmikoko Ariznoa klubean; irailean hasitako ikasturte berrian, baina, Oñatiko bost neska eta Legazpiko hiru ere batu zaizkie. 5 eta 20 urte arteko 100 neska dira denera Ariznoan ari direnak, eta hurrengo egubakoitzean erakustaldia egingo dute Labegarrietan, 18:30ean hasita.

Bi ordu inguruko saioa izango da, bi zatitan banatuta. Aurreneko zatian, talde bakoitzak bere ariketa egingo du, ohiko gimnasta arropekin. Bigarren zatian, berriz, Eguberrien aitzakian egindako arropekin egingo dute beste dantza bat.

Otsailean hasiko dira gimnastak lehiaketetan, eta ordura begira prestaketa nola doan ikusteko modua izango da erakustaldian. Txikientzat, berriz, guraso eta gainerakoen aurrean aritzeko aukera, lehiatu 10 urtetik gorakoek egiten dute-eta bakarrik.

## Gaur, Gipuzkoako Txapelketako hiru partidua frontoian

Udal Pilotalekuak Gipuzkoako Txapelketako hiru partidua hartuko ditu gaur, 19:30ean hasita. Infantilena izango da lehenengo partidua, eta Ormaiztegiako kontrarioa izango du Iker Etxanizek; Ander Etxaniz, berriz, Añorgako ordezkariaren kontra ariko da, kadeteetan; eta gazteetan, Gaztelekuoaren kontra Markel Gartzia.

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**disdira**

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 39 53





Duela urte batzuk elkarteak Aroztegin egindako erakusketa. GOIENA

# Beart-eko kideen lanak Aroztegi aretoan ikusgai

Bergarako Arte Elkarteak urtean zehar egindako artelanen erakusketa irekiko du gaur. Bertan, kontsaratutako artisten zein hastapen fasean dauden kideen lanak ikusi ahal izango dira. Margolanak izango dira nagusi, baina eskultura batzuk ere egongo dira

## Ibon Carmona BERGARA

Aroztegi aretoak Bergarako Arte Elkartearen lanen erakusketa jasoko du. Gaur 19:00etan inaugurazio ekitaldi xumea egingo da, eta, hortik aurrera, abenduaren 18 arte, martitzenetik domekara bitartean bisitatu ahal izango da erakusketa.

## 50 artista inguru

Elkarteko bazkide diren 70 pertsonetatik, 50 inguruk hartuko dute parte erakusketan, eta bakoitzak artelan bat izango du erakusgai.

Elkarteko lehendakari Juanjo Altunaren esanetan, parte hartuko duten kideen artean jubilatuaren profila da nagusi, baina

jende gaztearen presentzia ere egongo da. Horrez gain, lan guztiak ez direla pintura diziplinaren barruan sartuko esan du Altunak: "Iaz baino lan gehiago egongo dira, gehienak margolanak. Edozelan ere, elkarteko kide diren eskultore batzuen lanak ere bertan ikusi ahal izango dira".

## Teknika eta estilo ugari

Margolanei dagokienez, olio-pinturak izango dira nagusi, baina akuarelekin egindako lanak ere egongo dira. Lan horiek hainbat estilo jorratzen dituzte; besteak beste, paisaiak, askotariko natura hilak eta konposizio ezberdinak.

Eskulturen kasuan, hiru izango dira Aroztegin ikusi ahal izango direnak. "Horietako bi eskultura tridimentsionalak izango dira, eta paretan egongo dira eskegita", gaineratu du.

## 19:00etan inaugurazioa

Gaurko irekiera ekitaldian, Bergarako Arte Elkarteko kideek erakusketaren aurkezpen txiki bat egingo dute, aldi berean, herritarrei gonbita eginda.

Martitzenetik ostiralera, erakusketa arratsaldez egongo da irekita (18:00-20:30). Zapatueta, berriz, goizez (12:00-14:00) eta arratsaldez (18:00-20:30) egongo da zabalik eta domeketan, goizez (12:00-14:00) bakarrik.

## Akuarela erakusketa Raizabalen

Arantzazu Arregi bergararrak akuarelekin egindako 18 lan jarri ditu ikusgai Raizabal gozotegian. Ikusi ahal izango diren lanetan, Bergarako, Gipuzkoako eta beste herrialde batzuetako paisaiak izango dira protagonista. Gainera, interesa izanez gero, akuarela horiek erosteko aukera egongo da. Erakusketa abendua eta urtarrila bitartean egongo da irekita.

## Idigoras Nahikarin

Kontxi Idigorasen akuarela erakusketa datorren eguna arte egongo da zabalik Nahikari kafetegian. Bertan, artista bergararraren 22 lan daude ikusgai, gehienak paisaietan oinarrituak.



## Euskarazko produktu katalogoaren 1.700 ale banatu dituzte

Liburu, musika edo jostailu; oraingoa opari garaia izanik, euskarazko produktuen katalogoaren edizio berria osatu dute –hemezortzigarrena– Euskal Herriko 140 bat udal eta mankomunitatetako euskara zerbitzuek. Bergarako Udalak 1.700 ale banatu ditu; *katalogoa.eus*-en ere eskuragarri dago, 6.000tik gora erreferentziarekin.

## San Pedro parrokiako organoaren aldeko kontzertua domekan

Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunak elkarteak *Musikaz blai organoaren alde* dirua biltzeko kontzertua antolatatu du. Domekan, 19:00etan hasita, Luis Alberto Requejo klarinete jole portugaletarra eta Miriam Cepeda organo jole bilbotarrak musika emanaldi onuragarria eskainiko dute Santa Marinako parrokiaren.

## Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua

Bergarako Musika eskolak Gabonetako kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean (Udal Pilotalekua, 18:30). Guztira, eskolako taldeetan banatzen diren 350 ikaslek hartuko dute parte, gehienak haurrak dira. Talde bakoitzak 10 minutuko emanaldia egingo du, eta ondoren, elkarrekin kanta bat eskainiko diete bertaratutakoei.

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

UGARTE  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



10 urte  
baino gehiago  
Bergaran!

943 25 06 77

# Bertsolariak nor baino nor gehiago gaztetxean

Abenduaren 16an jokatu dute Bergarako bertsolari txapelketa, hirugarrenez Kopla Barik bertso eskolak antolatu duena. Aurten ez da kanporaketa saiorik izango, eta kartzela zaharrean erabakiko dute nor izango den 2016ko txapelduna

## Maite Txintxurra BERGARA

Abenduan sartu gara dagoeneko, eta, azken urteetan egin bezala, Kopla Barik helduen bertso eskolak Bergarako bertsolari txapelketa antolatu du.

Aurreko edizioetan egun desberdinetan herriko tabernetan kanporaketa saioak egin dituzten arren, aurten saio bakarrean erabakiko dute nork eramango duen txapela etxera.

Bada, aurtengo txapelketako hitzordu hori abenduaren 16an izango da, datorren egubakoitzean, gaztetxean, 22:00etan. Sarrera doan izango da.

Kopla Barik eskolak antolatzen duen hirugarren edizioa izango da, eta ikusle ugari erakarri ohi ditu. Lehenago Kortazar tabernak antolatzen zuen txapelketari jarraipena emateko asmotan heldu zioten Kopla Barikekoek.

## Parte hartzaileak

Herriko zazpi bertsolari izango dira taula gainean, guztiak ere txapelketa honetan esperientziadunak. Zehazki, ondorengoak izango dira: Jon Patxi Aiastui, Enaitz Alustiza, Jon Altuna Oxan, Unai Aranzabal, Iñigo Arzelus, Gari Lopez de Munain eta Eñaut Uriarte. Ohi bezala, Ibon Leibar Txinbo arituko da gai jartzaile lanetan.



Gari Lopez de Munain bertsotan iazko kanporaketa batean. IMANOL SORIANO

Iaz txapela jantzi zuen Iñigo Arzelus aurten ez da lehiakideen artean egongo. Bai, ordea, harekin batera buruz buruko finalera iritsi zen Gari Lopez de Munain. Hain zuzen, hura izan zen irabazlea duela bi urte. Iaz finaleko saiora iritsitako Asier Arriaran Txie-k ere ez du parte hartuko aurten.

Bakarkako agurrekin hasiko dute saioa –horiek ere puntuagarriak izango dira– eta ondoren ariketa desberdinak izango dituzte: zortziko txikian, handian, puntuka...

Ariketa desberdinetako puntuazioen arabera, bi onenak buruz buruko finalera iritsiko dira, eta bertan erabakiko dute zein izango den irabazlea.

## Umorea nagusi

Beti bezala, umore ukitua ez da falta izango bertso txapelketan. Hala, antolaketa taldeko Eñaut Alvarezek aurreratu du parte hartzaileei musika instrumentuak edota mozorroak ekartzeko eskatu dietela, horiekin bertso ariketa desberdinak egingo dituzte eta.

## 'Koaderno zuri', domekan Zabalotegi aretoan

Hika Teatro konpainiaren lana taularatuko dute, biolentzia matxistaren aurkako egunaren bueltan

## M.T. BERGARA

Azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Biolentziaren Kontra Nazioarteko Eguna izan zen, eta horren harira antolatutako egitarauko azken zita domekan izango da, abenduak 11, Zabalotegi aretoan. Sarreraren prezioa 8 euro izango da.

Hika Teatro konpainiak helduei zuzendutako *Koaderno zuri* antzezlan taularatuko du. Ama hil berritan, 20 urteren ostean berriro ere elkartzen diren Arrate eta Begoña izeneko bi ahizparen istorioa kontatzen du, eta Itziar Ituñok eta Miren Gojenolak interpretatzen dituzte ahizpok.

## Euskarazko liburuak merkeago datorren astean, Elkarren

Jardunen eskutik eta euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko, liburuak %50, %30 eta %15eko beharpenarekin erosi ahalko dira Elkar dendan hilaren 12tik 17ra. Bestetik, hilaren 15era arte jasoko dituzte, Jardunen egoitzan, hilaren 18an egingo den truke azokarako liburuak. Ordutegia: 9:00-13:00 eta 15:00-19:00 –gaur, egubakoitza, 18:00ak arte–.

## 'Ez dok Amairu' mugimendua hobeto ezagutzeko hitzaldia

Eguaztenean, hilak 14, 19:00etan, Ana Gandarak *Ez dok Amairuren garaia: hurbilketa bat* hitzaldia eskainiko du Laboratoriumen. Museoa ikusgai dagoen *Ikimiliklik* erakusketarekin lotutako ekimena da. *Ez dok Amairu*-k euskal kulturaren izandako eraginari buruz jardungo du Gandarak; gai honi buruzko tesia egin du Gandarak.

## 'Ilunabar literarioa', idazle eskolako ikasleen eskutik

Datorren egunean, abenduaren 15ean, *Ilunabar literarioa* izeneko ekimena izango da, 19:00etan, Irizar jauregian, Bergarako UNEDeko idazle eskolaren eskutik. Euskararen Egunaren bueltan antolatutako ekimen horretan eskolako ikasleek eta ikasle ohiek hartuko dute parte, eurek sortutako tesu edota olerkiak irakurrita.

## Iñigo Almandozen magia erakustaldia eta tailerra

Datorren astelehenean, hilak 12, Iñigo Almandozek magia erakustaldia eta ikastaroa eskainiko du Irizar jauregian, 18:00etan hasita. Migel Altuna Institutuko Bizikasi zerbitzuak antolatu du ikastaroa, eta izen ematea doan da. 943 76 93 94 telefonora deituta edo *info@bizikasi.com* helbidera idatzita apuntatu daitezke interesatuak.



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

**TXIPI**  
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09





Aiherran, antzuolarrez gain, zenbait debagoiendarrek ere hartu zuten parte. LANDA GARAPENA

## Lurraren transmisioa naturaltasunez egiteko

Antzuolarrak Aiherrako baserriarren eta lur-jabeen testigantzak jaso dituzte. Belaunaldi berriei baserriko lurrak modu naturalean nola transmititu eta lehen sektorearen etorkizuna nola bermatu jakiteko esperientzia berriak jaso dituzte

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Lurren transmisioan izandako esperientzia ezberdinak jasotzeko eta partekatze asmoz, Aiherran izan dira hainbat antzuolar. "Lurraren eskuragarritasun falta daukagu. Izan ere, lur publikoaren zein pribatuaren eskaintza eskasa da; lur-jabe pribatuen artean lurra errentan emateko mesfidantza handia

dago. Lurrekiko lotura sentimentala estua da, herentzia ondorengo banaketak baserrien eta lurren zatiketa dakar, eta, errentamenduak egiten direnean, haien iraupena eta inbertsiok egiteko ziurtasun falta izaten da. Iparraldeko esperientziak elkarbanatzea pentsatu dugu; izan ere, han fruitu positiboak eman dituzte aholkularitza-la-

nek. Hemen transmisiorako mekanismoak martxan jarri behar dira. Kontzientzian eragitea falta da gure inguruetako baserriak eta baserriarren etorkizuna bermatzeko. Horregatik, Aiherrara bisita egin dugu teoria praktikan ikusteko", azaldu du Antzuolan lehen sektorea bultzatzeko proiektuaz diharduen teknikari Miren Oianguerenek.

### Gazteengana heltzeko

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak lurren transmisioan uzten eta hartzen duten pertsonen artean kimika egon dadin lan egiten du eta transmisiorako ezaugarri batzuk bermatzen ditu. "Lehenik, prestakuntzarako denbora hartu behar da. Hau da, familiako aukerak aztertu behar dira, eta baserriaren etorkizunaren gaineko gogoeta egin. Oso garrantzitsua da lurra uzten duenaren eta hartzen duenaren arteko elkar ezagutza; biharko egunean sortu daitezkeen gaizki ulertuak ekidin daitezke eta. Egoera egokia sortzea eta transmisioaren nondik norakoak ongi azaltzea inguruan garrantzizkoa da; hala, haserreak eta bekaizkeriak ekidinez. Gomendagarria da hartzailak baserri mundua ezagutzea eta formazioa izatea. Baserrian lan egiteak aisialdirako tarte txikiak eskaintzen ditu, baina, gutxienez, tarte horiek izatea bermatu behar da. Bukatzeko, hartzailaren motibazioa eta gogoia izatea behar-beharrezkoa da".

### Irumendiko esperientzia

Aiherrako esperientzia jasotzen izan da Mikel Mujika. Irumendi elkarteko kideetako bat da. Egun, Irumendik 17 baserriko lurrak kudeatzen ditu eta prest daude erabiltzen ez dituzten baserriarren lurrak alokatzeko. Aiherran bizimodua lurrari estuago lotuta dagoela dio Mujikak eta han transmisioa errazagoa dela. "Antzuolan dagoen arazoa errelebo falta da. Baserriarrak zahartzen doaz eta gazte asko ez da animatzen. Egia esan, gure kasuan, errazagoa da jendea lanerako hartzen dugulako. Transmisio horretan harremana eta konfiantza sortzen da.

Gurea ez da esplotazio familiarra, lanerako baizik". Baina, dioenez, herriko baserrietan bada kezka eta beherakada hori: "Jendeak bizitzeko toki bezala ikusten du baserria, ez bizimodu gisa. Gazteak martxan jartzea komeni da; baina, horretarako, gazteak ere prest egon behar dira. Transmisio hori posible egiteko adineko jendearen borondatea ere behar da. Jendea ez dagoela prestatuta, kontzientziazatuta, uste dut. Egun transmisiorako dauden aukera eta erraztasunen berri ere ez dakit ba ote duten".

### Bailaran posible?

Iparraldean jasotako esperientziak Antzuolara eta Debagoienara ekartzea posible dela dio Oianguerenek: "Dena hitz egitea da, herentzia eta transmisioa ez da etxeko tabua izan behar, ezta inguruko artean ere. Baserriarrak gogoeta egin behar du ea familiako norik hartuko lukeen bere lekukoa zehaztuz, eta gero, hori senideei helaraziz. Zuzenbide zibileko legea aldatu berri da eta orain herentziaren banaketan aukera asko dago. Ez badago ondorengorik, agian, inguruko norbait ezagutuko du; eta hori horrela ez bada, Deba Garaia Landa Garapen Elkartera gerturatu daiteke, aholkulariak jasotzera eta gazte batekin kontaktuan jartzeko aukerak jasotzera. Eta nola, ez, instalatu nahi duten gazteek ere guregan hurbildu daitezke horien egitasmoak elkarbanatzeko. Behin bi aldeak harremanetan jarriz, elkar ezagutzearen prozesua irekiko litzateke eta poli-poli bakoitzaren nahiak eta desirak elkarbanatuko lirateke. Hala, transmisioaren oinarriak ezarriko lirateke".

## PSE-EEK elikagaien bankua laguntzeko proposamena egin du

Udalak modu aktiboan konpromisoa hartzea eta hezkuntzan eragitea proposatzen dute sozialistek

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Miren Gallastegi zinegotzi sozialistak kaleratu duen prentsa oharrean, elikagaien bankuari laguntza emateko bideak sustatu gura ditu. Hala, proposamen horiek jasotzen duen mozioa

abenduaren 12ko ohiko osoko bilkurara eroango dute sozialistek, alderdi guztien onarpena izan dezan.

Alderdi Sozialistaren arabera, salmentarako atzera botata dauden elikagai asko egoera onean

egon ohi dira eta propietate nutritiboak mantentzen dituzte, gainera. Horregatik, talde sozialistak planteatzen duena da herriko ostalaritzan eta dendetan saltzeko atzera botata dituzten elikagai horiek batzea (betiere, egoera onean dauden elikagaiak). Era berean, proposamen honek gura du Antzuolako Udalak ere konpromisoa hartzea. Modu aktiboan elikagaien kontsumo arduratsuen gaineko kontzientziazio kanpainak bultzatzea eta hezkuntzan eragitea.

### PSE-EEren mozioa

Antzuolako Alderdi Sozialistak abenduaren 12ko, asteleheneko, osoko bilkuran aurkeztuko duen mozioak bi puntu jasotzen ditu nagusiki: batetik, gura du Antzuolako Udalak kanpaina aktiboan bitartez konpromisoa hartzea eta hezkuntzan eragitea; bestetik, elikagaien bankuarekin elkarlanean, herriko ostalaritza eta komertzioekin elkarlanean jardutea ere proposatzen du Alderdi Sozialistak astelehenean aurkeztuko duen mozioan.

## Euskarazko musikagintzaren bidaia Torresoroan

*Baga, biga, higa* Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta musikarien proiektua abenduaren 18an, domeka, 18:30ean, Torresoroan izango da. Emanaldiak, euskal musikaren iragana, oraina eta etorkizuna jasotzen du. Eta, eskarazko musikagintzaren transmisioa eta sustapena ditu helburu iaz abiatu zuten *Baga, biga, higa* proiektuak.

# "Familian edo kuadrillan ospatzeko festa da orain"

**GARAZI LARREA** KIROL ZINEGOTZIA

Aurten ere abenduaren 26an San Esteban eguneko krosa egingo da. Izena abenduaren 16ra arte eman daiteke liburutegian, liburu dendan eta udaletxean

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Urte askoan galduta egon da San Esteban eguna Antzuolan. Iaztik baina, beste buelta bat eman eta berriro festa giroa indartu dute. Hala, kirola oinarri, aurten ere kros herrikoia antolatu dute abenduaren 26rako. **Garai batean San Esteban, egun handia zen Antzuolan. Zer ospatzen zuten antzuolarrek?**

Egun hau txikiteroen eguna dela esan daiteke. Egun handia izaten zen garai batean, eta, aisialdirako denbora laburra egoten zenez, meza ondoren tabernaz taberna ibiltzeko eguna izaten zen. Etxean entzunda daukat Pikunieta baserrian zegoen tabernak bere eguna ospatzen zuela erromeriarekin eta herri kirolekin. Urte askoan galduta egon da eta badira urte batzuk herriko tabernariak berreskuratu zutela egun hau, doako txikiteoa eskainita.

**Zergatik nahi izan zenuten iaz berreskuratu?**

Herrian azken urte hauetan korrika egiteko zaletasuna piztu da. Herriar askok egiten du korrika. Gabon inguruan kirol ekitaldi asko izaten dira ondoko herrietan eta guk ere horrelako ekitaldi baten beharra ikusten genuen. Hori dela eta, egun hau aproposa izan zitekeela iruditu zitzaigun. Txikiteoa egin aurretik kirol pixka bat egitea.

**Festa kirolarekin uztartu duzue.**

Aurreko urtera arte festa arratsaldeko zazpitan hasten zen txikiteoarekin batera. Festa luzatzea egokia zela pentsatu genuen eta gaur egun 16:30ean hasten da ospakizuna. Horrez gain, txikiteoaren festa helduen festa zen bakarrik. Ekitaldi honekin, ordea, 5 urtetik gorako guztien festa bilakatu da. Bakarka, familian edo kuadrillan ospatu daitekeen festa bat.

**Iazkoa arrakastatsua izan zen.**

Bai. Iazko balorazioa oso positiboa izan zen. Uste baino jende



Garazi Larrea, iaz, kroseko dortsala esku artean daukala. MAIDAR ARREGI

## "LEHEN, SAN ESTEBAN TXIKITEROEN FESTA HANDIA ZEN; KIROLA ETA ERROMERIA ERE EGOTEN ZEN"

gehiagok parte hartu zuen eta horrek aurten ere antolatzeko indarrak ematen dizkigu. Oso polita izan zen txikienak korrika eta familiak animatzen ikustea. Mozorrotuta ere irten ziren batzuk eta jai giro polita sustatu zuten.

**Zein egitarau prestatu duzue?**

Hiru txanda egongo dira lasterketa egiteko. 17:30ean, 5-7 urtekoak; 17:45ean, benjaminak, alebinak eta infantilak; eta 18:00etan, kadeteak eta helduak. **Kirol Sailak herrian festa kirolez indartzeko apustua egin du.**

Herrian kirola sustatzeko modu bat bezala ikusten dugu. Horrelako ekitaldiak antolatuta, herrian jendea korrika edo kirola egiten ikusten da. Bizitza aktiboa izateko bultzada izaten da.

**Zein da urte hauetako balorazioa?**

Balorazioa oso positiboa da, herrian antolatu diren ekintza

guztiak arrakastatsua izan dira. Areto futbola, olatu morea, San Esteban krosa... herritar askok hartu du parte bai ekintza antolatzen, egunean bertan boluntario moduan eta baita kirola egiten ere. Jendearen babesa izan dugu eta eskertzekoa da.

**8 Miliak egiteko arazoak daude. Egingo da?**

Aseguruekin daude arazoak. Baina ahalegin guztiak egingo ditugu bertan behera ez gelditzeko. Herrian egun polita izaten da, goizean goizetik ateratzen da jendea kalera eta herritar guztientzako egun guztiko festa izaten da. Pena izango litzateke horrelako ekintza bat ez egitea. **2017rako ze proiektu?**

Orain arte antolatu diren ekintzak antolatzen eta babesten jarraituko ditugu. Horrez gain, kirol elkarteek antolatzen dituzten ekintzak bultzatu eta babestuko ditugu. Ideiak diren arren, datorren urtean Ariznoa gimnasia erritmikoak, Lokatzak eta beste talde batzuek ekintzaren bat antolatzeko asmoa dute. Proiektu zehatzik ez dugu, baina ideia batzuk bai: kirol egun bat Antzuolan, gazteentzako kirol udalekuak...



XABIER GOROSTIDI

## Paseorako "toki ederra" txukun

Urri amaieran egin zuten San Jose ingurua txukuntzeko lehen ekinaldia, auzolanean. Martitzenean, askorentzat jaieguna zela ikusita, hainbat antzular batu ziren bigarren saio baterako. Hainbat boluntario eta udal langile sastrakak kentzen aritu ziren. "Toki ederra da paseorako eta orain txukun dago inguruaz disfrutatzeko", azaldu zuten.

## EH Bilduren ibilbideaz eta etorkizunaz jardun dute

Abenduaren 3an Antzuolako EH Bilduk egindako batzarra "beharrak eta errepikatzen dukoa" izan zela ondorioztatu dute partaideek. Hala, azaldu dutenez, jasotako edukia ordenatu eta forma emateko asmoa dute datozen asteetan.

Batzarrean 50 lagunek parte hartu zuten. Pello Urizarrek eman zion hasiera, alderdiaren

eta hura osatzen duten talde zein gizabanakoen historia errepasatuta. Ezker soberanistaren azken urteetako gorabeherak ere aztertu zituen Urizarrek.

"Azken 40 urteen errepaso interesgarria eta hunkigarria ere izan zen entzungai; herritarrek militantzia izandako bizipen pertsonalak eta motibazioak azaldu zituzten. Elkarrekin enpatia izatea lortu genuen. Aurrera begirakoaz aritu ginen, eta ditugun erronkez", azaldu du Antzuolako EH Bilduk.

MUJKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



# Frankismoaren Elgetako biktimen lekukotasunak

Elgetako Udalak urtarrilaren 16tik otsailaren 17ra zabalduko duen Testigantzen Bulegoan herriko biktimen lekukotasunak jaso gura dituzte. Txostena osatzea eta erantzuleen aurka epaitegietan salaketa ipintzea ditu helburu Udalak

**Larraitx Zeberio** ELGETA

Uztailean egindako osoko bilkuran erabaki zuen aho batez Elgetako udalbatzak frankismoaren aurka Argentinan zabalik dagoen kereilan kereila-tzaile moduan aurkeztea. "Horrek esan gura du kereila hori osatzeko eta salaketa aurkezteko lekukotasunak jasotzea dagokigula orain", adierazi du Iraitx Lazkano alkateak. "Pauso bat gehiago da. Urtez urte askotariko ekimenak antolatu ditugu: errekreazioa, bisita gidatuak, omenaldiak, memoria jardunaldiak... Arrakastatsua izan dira eta balio izan dute gertatuko berri emateko, sozializatzeko. Helburua, orain, frankismo garaian Elgetan gertatutako giza eskubideen aurkako urraketak jasotzea da erantzuleen aurkako salaketa aurkezteko".

Biktimen edo horien senitartekoen lekukotasunak behar dituzte horretarako. Alkateak azaldu du Udalak baduela ze-

rrenda bat, nahiko luzea, frontean hil zituzten herritarrena edo gerra ostean biktima izandakoa. "Gerra urteekin oso lotutako kasuak dira, gehienbat, eta ke-reilarako denak dira baliagarriak, baina ahalegin berri honetan dei egiten diegu baita ere diktadura urteetan biktima izandako herritarrei. Frankismoa 40 urtetik gorako garai beltza izan zen, eta epealdi luzeagoan gertatutako giza eskubideen aurkako urraketak ere jaso gura ditugu oraingoan", adierazi du Iraitx Lazkanok.

## Lekukotasunen garrantzia

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak garrantzitsutzat jo du Elgetako Udalak hartutako erabakia. "Herri honek egia guztiak ezagutu nahi baditu, ezinbestekoa da nork bere lekukotasuna ematea", esan du plataformako kide den Goldatu elkartearen Josu Ibargutxik. "Biktima askoren

lekukotasunak oraindik ere jaso gabe daude, eta besteek beharrezko guk geuk eraikitako memoria historikoa osatu nahi badugu, lekukotasunak jasotzea nahitaezkoa da".

## Prozedura

Testigantzen bulegoan 1936tik aurrera Elgetan gertatutako giza eskubideen aurkako urraketen gaineko lekukotasunak jasotzeko dituzte hilabete barru. Lekukoei eskatutako zaiak nortasun agiria, gertatutakoaren gaineko kontakizuna egitea eta, balego, gertaera haien gaineko dokumentazio ahalik eta zehatzena. "Norberari gertatutakoa edo etxean entzundakoa kontatu behar da eta etxeko armairu guztiak arakatu behar dira ahalik eta dokumentazio gehien aurkezteko", azaldu du Ibargutxik. "Kereila honek ez du inolako gasturik ekarriko, bultzatzaileak zein abokatuak boluntarioak garelako".



Orain dela bi urte Elgetan egindako jostailu truke azoka. L.Z.

## Berrerabilpena sustatzeko azoka deitu dute hilaren 18rako

Jostailuak trukatzeko eta bigarren eskuko gauzak zein artisautza produktuak saltzeko aukera izango da bertan

**L.Z.** ELGETA

Gabonak ate-joka ditugun honetan, hiru azoka antolatu dituzte batean, Elgetan. Abenduaren 18rako deitu du Udalak eta jostailuak trukatzeko zein bigarren eskuko gauzak saltzeko edo erosteko aukera izango dute bertan herritarrek. Artisautza produktuen salmenta ere egongo da. "Gauzen berrerabilpena bultzatu gura dugu; izan ere, guretzako erabilerarik ez duen gauza batek izan dezake beste batendako", adierazi du Janire Lazkano zinegotziak. Truke azokarako jostailuak egunean ber-

tan eraman beharko dira plaza. Egoera onean daudenak bakarrik onartuko dituzte. Bigarren eskuko materiala edo artisautza produktuak saldu gura dituzten herritarrek, berriz, mahaia eskatu behar dute udal-letxean eguaztenerako, hilak 14.

## Eskulan erakusketa

Hilaren 23an, berriz, herritarren eskulanekin erakusketa zabaldu gura du Udalak. Eskulanen bat erakutsi nahi izanez gero interesatuek abenduaren 16an eraman behar dute buztin gelara, 17:30etik 19:00etara.

## Zein berrikuntza dakar ekimen honek?



**IRAITX LAZKANO**  
ELGETAKO ALKATEA

"Pauso bat gehiago da. Egia ezagutzeko bidean edozein ekarpen da balekoa. Dokumentatuta egonez gero, sinesgarritasun handiagoa du. Testigantzak jaso, txostena osatu eta erantzuleen kontra salaketa ipintzea da helburua. Orain da momentua gertatutako gauzak kanpora ateratzeko".



**JULIA MONGE**  
INTXORTA 1937 KULTUR ELK.

"Balio juridikoa jasoko dute lekukotasunek. Omenaldi publikoak egin ditugu, baina biktima batzuek, akaso, nahiago dute instituzio baten aurrean lekukotasuna eman halako oihartzun publikoa izan gabe. Gainera, udal batek jasoko ditu, eta beste entitate bat ematen dio horrek testigantzari".



**JOSU IBARGUTXI**  
GOLDATU ELKARTEA

"Herri honen memoria historikoa eraikitzeaz ari garen heinean, aukera handia da honako hau. Ardura ere bada, neurri handi batean. Egia guztiak ezagutu nahi baditugu, garrantzitsua da nork bere egia plazaratzea. Lekukotasunak ematera animatu nahi ditut herritarrek".

## Urtean gutxienez 4.000 euroko aurrezkoa argiteria publikoan

Energia kontsumoan eragiteaz gain, kontratatutako potentzia jaisteko aukera ere emango du LED sistemak

**L.Z.** ELGETA

Udalak amaitutzat eman ditu argiteria publiko LED sistema-egokitzeko lanak. Urteko inbertsio handienetakoa izan da eta bi helburu nagusi izan ditu: argiaren kalitatea hobetzea eta sistema berriarekin dirua aurrezte. Iraitx Lazkano alkateak adierazi du aurreikuspena dela energia kontsumoan, urtean, 4.000 euro inguru aurrezte. "Berritu behar dugu baita ere kontratatutako potentzia. Jaitsi egingo da, eta aipatutako diru aurrezkoa handitzea ekarriko

du horrek. Orain hasiko gara kontratu horiek berrikusten".

Kataitik Bergara aldera dauden kaleetan egin ditu Udalak egokitzapen lanak: Domingo Iturbe eta San Roke kaleetan, eskola inguruan, Torrealdea kalean, Mendizaleen eta Andra Mari plazetan eta Salvador eta Lasao kaleetan.

Bolatokiko parkea argitzeko proiektore bat ipini dute eta hilerri osteko parke berrian martxan da eguzkiaren energia-ekin argitzen duen farola fotovoltaiko autonomia.

# Euskararen Egunean hartutako konpromisoak

Euskaraz bizi nahi dutela adierazi dute elgetarrek. Herriko hamar talderen parte hartzearekin osatu zuen ibilbidea mezu ezkutua zeraman lekukoak. Bertaratutakoek, elkarrekin, euskararen erabileran aurrera egiteko konpromisoa berritu zuten

## Larraitz Zeberio ELGETA

Ekintza sortarekin jantzi dute aurten ere Euskararen Eguna Elgetan. Bezperan, eskolako umeek margolan erraldoia egin zuten ikastetxe ondoko aparkalekuan, eta askotariko ekintzak egin zituzten jarraian. Arratsaldean txokolate-jana eskaini zuen guraso elkarteak eta liburutegiak antolatutako ipuin kontalari saioa izan zuten elgetarrek.

## Lasterketa berezia

Euskararen Egunean herriko hamar elkarte hartu zuten parte Euskara batzordeak antolatutako lasterketa berezian. Xalbadorpe erretiratuen elkarteko kideak abiatu ziren lekukoarekin plazatik eta eskutik eskura berriz itzuli zen mezu ezkutua plazara. Ekimenean parte hartu zuten taldeak dira: Xalbadorpe elkarte, Elgetan Berbetan eki-

mena, gaztetxea, ipuin kontalarien taldea, Goibeko Euskaltzaileen Topagunea, Elgetako kantu zaleak, Kantsatzeke Mendi Taldea, Elgetako Udala, Maala Guraso Elkarte eta Herri Eskola. Udaletxeko balkoian zabaldu zuten lekukoak zekarren mezua. Hamarretakoa egin ostean puzzle erraldoia egin zuten herritarrek plaza erdian. Argazkia atera zuten amaítutakoan.



Bego Alabazan udal liburutegian Euskal Herriko kondairak kontatzen. L.Z.



Kantuzaleen taldeko Valentín Elorza lasterketa egiten lekukoak eskuan. L.Z.



Arkaitz Errasti eta Pedro Mari Ubera lekukoak zekarren mezua erakusten. L.Z.



Euskararen Eguneko ekintzei amaiera emateko puzzle erraldoia egin zuten herritarrek plazan. L.Z.

## Antzerkia eta dantzaldia, gaur, Espaloia kafe antzokian

Gaztelekuan, berriz, bi herritar izango dira protagonista domekan. Ditzuten lanbideak azalduko dizkiete gazteei

### L.Z. ELGETA

Erretiratuen Kultura Astearren barruan, gaur, barikua, Oñatiko Ikusi Makusi taldeak *Sala de espera* antzezlan egingo du Espaloia kafe antzokian, 17:00etan. Sarrera doan izango da. Dantzak

hartuko du lekukoa 20.30ean; izan ere, Herrixa Dantzan saio berezia egingo dute Escamot Catala taldearen zuzeneko musikarekin.

Gaztelekuan, berriz, Gabon kantak prestatuko dituzte zapa-

tuan, eta domekan Fernando Albeniz eta Daniel Gillegi elgetarrek beraien lanbideen berri emango dute gaztetxoaren aurrean. Suhiltzailea da bata eta basozaina bestea. Ate irekiak egingo dituzte gaztelekuan, ekitaldia neska-mutiko guztiei zabalik egoteko. Ate irekiak egingo dituzte baita ere ludotekan, baina asteleheneretik barikura. Zerbitzua ezagutzera emateko ekimena da.

Eta martitzenerako Alai taldearen kontzertua dago iragarrita antzokian, 18:00etan.

## PILOTA TXAPELKETA

### EMAITZAK, 7. JARDUNALDIA

A. Elorza - O. Sarasua /	
M. Beretxinaga -	
I. Unzetabarrenetxea	<b>12-18</b>
J. Mañarikua - B. Arabaolaza /	
E. Garate - E. Maguregi	<b>18-08</b>
H. Gallastegi - O. Sarasua /	
A. Telleria - A. Ibarluzea	<b>18-17</b>
O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta /	
E. Ormaetxea - A. Valle	<b>12-18</b>

### PARTIDUAK, 8. JARDUNALDIA

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

A. Elorza - O. Sarasua /
E. Ormaetxea - A. Valle
J. Mañarikua - B. Arabaolaza /
D. Cantabrana - T. de Vega
O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta /
M. Beretxinaga -
I. Unzetabarrenetxea



# Aurrekontuak lantzen ari dira EH Bildu eta EAJ

Aurtengoa baino %10 txikiagoa izatea da EH Bilduren proposamena, inbertsioetako kopurua jaitsiz eta gastu soziala mantenduz. EAJ herritarrengandik heldutako ekarpen eta proposamenak lantzen ari da aurrekontuetan eta batzordeetan sartzeko

## Oihana Elortza OÑATI

Abenduaren 22an egingo den osoko bilkuran aurrekontuak eztabaidatuko eta bozkatuko ditu udalbatzak, eta EH Bildu eta EAJ horiek lantzen ari dira.

Udal Gobernuaren proposamena 2017ko aurrekonturako 17.871.000 euro da, aurtengoa baino %10 txikiagoa. Inbertsioak %37 jaitsiko direla eta gastu sozialak mantenduko direla azpimarratu du Udal Gobernuak bidalitako prentsa oharrean. Gehitu du aurrekontua orekatua izango dela eta sarrera arruntek gastu arrunta estaliko dutela, emaitza positiboa lortuta.

## Inbertsioak

Datorren urtean egin gura dituzten inbertsioen artean, "Eltzia pareko gunean ur jolas eta aisialdi gunea egokitzea eta Etxaluzeko parkearen egokitzapena" jaso dute. Baita Olakuako jabe-kideekin batera egingo duten urbanizazioa ere.

Ekonomia zein finantza egoerak "osasuntsuak" direla dio Udal Gobernuak, baina ziurgabetasun batzuk badirela energiarekin lotutakoak. Zorpetzea bi miloi euro izango dela esan du, "azken hamarkadetako baxuena". Gaineratu du euren asmoak abenduaren 5ean jakinarazi zizkiontela EAJri, eta "proposamen guztien ekarpenak kontuan hartuta aurrekontua aho batez onartzea" dela euren nahia.

## Ekarpenak

Alderdi jeltzaleak ere aurreratu du aurrekontuen lanketa. Diote ekarpen eta proposamen asko jaso dituztela herritarrengandik, eta horiek lantzen ari dira. "Partida ekonomiko berezia behar dutenak aurrekontuetan jasotzeko proposatuko ditugu, eta besteak urtean zehar egingo diren batzordeetan aurkeztuko", dio Lourdes Idoiagak, EAJren udal bozeramaileak.



Eltzia pareko berdegunea egokitu gura du Udal Gobernuak 2017an. GOIENA



Plazako jolasgunean argi gutxi dagoela esan diote herritarrek EAJri. GOIENA

Herritarrengandik ekarpenak zein kezak jaso dituztela adierazi du Idoiagak: "Adibidez, TAoren aurka herritarrak zein merkataria azaldu zaizkigu, eta guk egindako planteamenduekin bat datozela esan digute. Zabor bilketa edukiontziz egitea ere eskatu digute, eta argiteria eskasa dagoen tokiak zeintzuk diren esan. Kale Zaharrean prozesu parte-hartzailerik ez dela egon jaso dugu eta zaratzen mapa eta bizikleten erabi-

lera txarra aipatu digute. Herriko paretak zikintzen dituztenei isunak jartzeko eskatu digute eta jolas parkeetan gutxituendako kanastak jartzea. Baita parrokiako kanpaiak gauetan berriz jotzea ere".

Lourdes Idoiagak adierazi du ardatza kexa eta proposamen hauei erantzutea izango dela eta adin guztietako herritarrak hartzea kontuan. Ekarpenean jasotzen jarraituko dutela ere esan du, "aurrez aurre zein mailez".

## Jostailu egokiak nola aukeratu azalduko dute eguaztenean

Eguaztenean da hitzaldia, 18:00etan, Euskaldun Berria gelan. Adibide praktikoak erakutsiko dituzte

## Oihana Elortza OÑATI

Jostailuen bidez transmititu daitezkeen balioez ohartu eta jostailu egokiak aukeratzeko laguntzeko hitzaldia antolatu du Txaloka ludotekak. Hitzaldia Txatxilipurdi elkarteak kide Itsaso Pagoagak emango du. Eguaztenean, abenduaren 14an, izango da, Euskaldun Berria gelan, 18:00etan. Zaintza zerbitzua egongo da.

## Aukeraketa

Jolasez eta jostailuez berba egingo du Pagoagak eta adibide praktikoak eramango ditu azalpenak emateko. "Jostailuen katalogoak, argazkiak eta iragarkiak eramango ditut jostailuez eta euren bitartez zabaltzen diren mezuez berba egiteko", azaldu du Itsaso Pagoagak. "Jostailu bat aukeratzeko orduan, garapen etapa



Itsaso Pagoaga. GOIENA

bakoitzean zer jolas mota egiten den hartu behar da kontuan. Baita umearen testuingurua ezagutu ere, sexualitatea eta hizkuntza ahaztu gabe", dio Pagoagak. Galderendako tartea ere egongo da.

## Aparkatzeko txartela: onartuen eta ez onartuen zerrendak

Abenduaren 15ean sartuko da indarrean erdigunean araututako aparkaleku sistema berria. Kale horietako egoiliarrek txartelak eskatu behar izan dituzte udaletxean, eta onartuen eta ez onartuen zerrendak publikatu dituzte datorren astean. Martitzenetik aurrera egongo dira ikusgai kontzejupean.

## Zubikoako gimnasioa itxita egongo da hurrengo astean

Zaharkituta dauden aparailuak kendu eta berriak ekarriko dituzte kiroldegiko gimnasiora; indarra eta aerobikoa lantzeko makinak izango dira berriak. Aretoa margotu eta argiteria ere berrituko dute, baita leihoa aldatu ere. Lan horiek guztiak egiteko itxita egongo da gimnasioa 12tik 18ra. 19an zabalduko dute berriz zerbitzua.

## Basoaren, gaitzen eta laguntzen gaineko hitzaldia egingo dute

Baso jardunaldiak egingo dituzte hurrengo astean Oñatin. Basoa zer den, nola zaindu, gaitzei nola aurre egin edo zer-nolako laguntzak dauden azalduko dute, besteak beste. Aditu bat baino gehiago etorriko dira hori guztia azaltzeko. Astelehenean dira jardunaldiak, Santa Anan, 15:00etatik 19:00etara.

## Tomax eta Konpainia datoz hilaren 17an Urgainek gonbidatuta

Tomax eta Konpainia pailazoak etorriko dira Oñatira abenduaren 17an. Urgain Errekaldeko guraso elkarteak gonbidatuta etorriko dira eta *Hiru ipuin* pailazo ikuskizuna eskainiko diete herritarrei Zuazola institutuko aretoan, 16:30ean eta 18:00etan. Sarrerak salgai daude Mizke eta Kiku gozoki dendetan eta Txokolateixian.

# Egileak nortzuk izan daitezkeen susmoa dute

Aurretik ere egon dira erasoak Oñatin emakumeen eskubideak aldarrikatu dituzten mezuen kontra, eta herriko sare feministak hor kokatzen du muralaren erretzea. Diote parekidetasunaren alde egin behar dela lan, nork bere tokitik

## Oihana Elortza OÑATI

Azken bizpahiru urte hauetan eraso bat baino gehiago gertatu dira, Oñatin, emakumeen eskubideak aldarrikatu dituzten mezuen kontra. Adibidez, herriko bi sarreretan dauden panel handi horietan *matxista* hitza tapatu egin dute. *Feministen erasoei erantzun* eta *Emakume asanblada = talde enbrista* moduko pintaketak ere agertu dira. Joan den urteko jaietan, *Hetero-patriarkatuari tanto, gurea da sarea* zioen mezua jarri zuten plazako frontoian eta *sarea*-ren lekuan *zakila* jarri zuten.

Errekalde eta San Lorentzo auzoak lotzen dituen tunelean azaroaren 26an jarritako muralaren erretzea testuinguru hor kokatzen du herriko sare feministak. Gertatutako erasoak aztertu eta jarraipena egin dietela ere adierazi dute, eta egileak identifikatzeko zantzuak badi-tuztela esan.

## Parekidetasuna

Azken eraso honek sortutako mina handiagoa izan dela diote sare feministako kideek, "azaroaren 25aren bueltan herritarren artean egindako lana zelako, batetik, eta, bestetik, erretzeak baduelako beste esanahi bat, sinbolikoki indar handia duela-



Herritarrek, udalbatza eta sare feminista, eraso salatzeko agerraldian. EKAIN MUÑOZ

ko". Azken eraso honetan, gainera, herritarren artean haserrea eta harridura nabaritu dutela diote sare feministako kideek: "Jende askori entzun diogu esaten ez dutela ulertzen zergatik erre duten mural hori, ulertezina zaiela".

Herrian izandako eraso hauen guztien aurrean egiten duten irakurketa da oraindik lan asko dagoela egiteko parekidetasunaren alde. "Herri mailan egin beharreko lanketa" bat dela uste dute, eta "nork bere tokitik egin dezakeena".

Eraso gehiago ez izateko, kontzientziazioa eta prebentzioa zabaldu behar direla uste dute, eta hezkuntza formal zein ez formalean parekidetasuna landu behar dela. Gehitu dute maskulinitateari buruzko tailerrak edo autodefentsa ikastaroak antolatu daitezkeela, adibidez.

Erreta agertu den mural hori garbitu eta lehengo tokian jartzea da asmoa. "Herritarrok eza gutzen dugu inguru hori. Argitasuna eman gura diogu, eta gura dugun tokitik gura dugunean ibiltzeko eskubidea aldarrikatu".



NIRE USTEZ

XABIER ETXEBARRIA

## Punkak oporretan Disneylanden

80ko hamarkadan iritsi zen punka Euskal Herrira, RRV deitu zioten. Musikaz gain, izugarritzko eztanda sozial eta politikoa suposatu zuela diote. Gaur egun arte irauten duena. Apurtzailea izan omen zen. Baina sistemak guztia irensten du eta punkarekin berdina egin zuelakoan nago.

Edukia hustu eta etekina bilatu. Horrela, emoen, punken edo haur batzuen urtebetetze festa berdina bihurtzen da. Batzuetan jagermaisterra, bestetan garagardoa eta haurren festan goxoki poltsa. Zaran Ramones edo Sex Pistolsen kamisetak. BBK Live, Gaztelekua edota Feverra. Sarrera ordaindu eta Disneylandeko barraketan jolastu, Donald ahatearekin argazkia ateratzen duzun bitartean, berdin izan zitezkeen kaskamotz bat edo krestadun bat. Tierno Galvanek "¡Rockeros: el que no está colocado, que se coloque!" oihukatu zuen, Patxi Lopezek *Sarri, sarri* dantzatu du eta edozein kultura zinegotzik listua botako dio punk abeslari bati.

80ko hamarkada izugarria izango zen, baina kaka hutsa bihurtzen ari garelakoan nago.

## Fundazioan aldaketak izan dituzte Elkar Hezi ikastetxean

Ereitten Fundazioa du izena orain eta elkar hezi eta ikas komunitatea indartuz lan egiteko proiektua dute

## Goiena komunitatea

Elkar Hezi / OÑATI

Fruitu egoki eta ugariak jasoko badira, herri edo komunitate osoa inplikatu behar da heziketan. Bada, proiektua, erabakimena eta jabetza partekaturik, ardura-kidetasuna eta berdintasuna oinarri, Ereiten Fundazio zibila sortu dugu bide horretan sakonduz. Gobernu-organoan, Patronatuan (10 pertsona), Oñatiko Parrokiako eta Beneditarren ordezkariekin batera, orain-egokiz Ikasleen Gurasoen Elkar-

teko eta Langileen Elkarteko ordezkariak parte hartzen dute erantzukizun eta esku-men bereberekin. Bere helburu nagusia "hezkuntza, kultura eta gizarte sustapena" da, "haurren eta gazteen zerbizura, bereziki Oñatin eta Debagoienean", "kalitate gorenez", eta "prestakuntza integralera bideratua", euskara eta euskal kultura zein Nazaretoko Josuren balore gaurkotuak zutabe. Informazio gehiago [www.elkarhezi.eus](http://www.elkarhezi.eus) atarian duzue.

GABON HAUETAN GURE MENUAK  
ZURE ETXEAN IZAN DITZAKEZU



Informa zaituz! 943 781 306 restaurante@zelaizabal.com





**Oihana Elortza** OÑATI

Aurten 50 urte dira, Luis Mari Etxebarría buru zela, gazte koadrila batek Aloña Mendiko Txirrindularitza Saila ofizialki sortu zuela, ordura arteko ibilbidean beste pauso bat eginda.

Geroztik, txirrindularitzari loturiko makina bat istorio, bizipen eta anekdota izan dira gure herrian.

**Lau presidente**

Mende erdi honetan, lau presidente izan dira sailean: lehenik, aipatutako Luis Mari Etxebarría egon zen presidente karguan, 1966tik 1981era. Ondoren, Juanjo Diaz de Monasteriogurenen txanda izan zen. Hura hamar-kadaren bukaerara arte izan zen presidente, Pedro Irurzun *Naparra*-k ordezkatu zuen arte. Azken horrek 2013. urte amaieran Kepa Umerez egungo presidenteari utzi zion kargua, 28 urtez presidente izan ostean.

**311 txirrindulari**

Guztira 311 txirrindulari igaro dira Aloña Menditik, kategoria ezberdinetan.

**Hainbat babesle**

Horrez gain, nabarmentzekoa da urte hauetan guztietan saileko taldeek izan duten babesle kopurua. Izan ere, asko izan dira diruz lagundu duten elkarre edota enpresak; besteak beste, Ulma, Lizarralde Kirolak, Arrikruz eta Iberdrola.

# Herrigintzan ondutako 50 urte

Mende erdia betetzen du aurten Aloña Mendiko Txirrindularitza Sailak; borondatez, auzolanean eta bueltan ezer espero gabe egindako lan eskergan oinarritutako 50 urte izan dira, kirol honek herrian daukan garrantzia eta zaletasuna nabarian utzita



1971ko San Migel proba. Txirrindulariak Sieteventos bidegurutzea zeharkatzen. KUTXATEKA

**Lasterketa ugari**

Asko izan dira mende erdi honetan Oñatin antolatu diren lasterketak: San Migel Proba,

Arantzazuko Igoera, Oñati Saria, Olakuako lasterketa, *Circuito Urbano* eta ziklo-kros lasterketak, besteak beste.

**Borondatezko lana**

Azkenik, kirol honekiko herrian egon den borondatezko lana azpimarratu behar da.



JAGOBA DOMINGO

## "Esperientzia handia eman dit lan honek"

**ENEKO AZURMENDI**  
LIBURUAREN IDAZLEA

Sail honek 50 urtetan egindako ibilbide luzea batzen duen liburu idatzi du Eneko Azurmendik.

### Nola suertatu zitzaizun liburu hau idazteko aukera?

Imanol Arkauz saileko kidea laguna dut eta hura etorri zitzaidan, 50. urteurrena dela-eta liburu bat idaztekotan zebiltzala eta zeukaten informazioari forma emango zion norbait behar zutela. Nik Kazetaritzako gradua bukatu berri nuen, ez neukan lanik eta aukera egokia iruditu zitzaidan unibertsitatean ikasitako praktikan jartzeko. Beraz, onartu egin nuen.

### Lan handia izan al da?

Egia esan, urtebete baino gehiago eman dugu. Imanol Arkauzek egin du dokumentazio lana, Mari Mar Teran eta Lino Urzelai arduratu dira argazkiak bilatu eta ordenatzeaz, Kepa Umerezek elkarrizketak egiten lagundu du eta ni izan naiz liburuari forma eman diona. Elkarlanean aritu gara, eta horrela askoz errazagoa da guztia. **Zer eman dizu liburu hau idazteak?** Esperientzia handia eman dit lan honek. Uste baino lan handiagoa dauka, baina herriaren aurrean aurkezten duzunean sentitzen den poztasuna handia da.

## "Urteurren borobila izan da"

Kepa Umerezek eta Imanol Arkauzek, Txirrindularitza Saileko presidentek eta kideak, urteurrenaren balorazio positiboa egin dute.

Antolakuntza mailan, ohikoak ez diren bi lasterketa antolatu dira Oñatin, urteurrena ospatzeko. Batetik, Gipuzkoako Klasika eta, bestetik, eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa.

Sailaren 50 urteko historia batzen duen liburuarekin ere oso gustura gelditu dira. "Liburu oso ondo gelditu da, polita eta bisuala. Horrez gain, liburuak batzen duen materiala Aloña Mendirendako baliagarria izango da aurrerantzean, artxibo modura, edozein", dio Umerezek.



Umerez, Azurmendi eta Arkauz, liburuaren aurkezpen egunean. A.T.

Urteurrenako bazkaria ere egin zuten, urri amaieran, kiroldegiko pilotalekuan 175 pertsona inguru batu ziren, gaur egungo eta lehenagoko txirrindulariak, kirol zuzendariak, presidentek, eta

abar. Horrek eman zuenarekin ere oso gustura azaldu dira saileko kideak. "Jende ugari batu ginen eta oso giro polita egon zen bazkarian. Oro har, egun guztiko festa izan zen, ez

bazkaria bakarrik", adierazi du Arkauzek.

Kirol mailari dagokionez ere urte oparoa izan da, emaitza onak eskuratu dituzte-eta Aloña Mendiko txirrindulariek.

**Aitortza**

50 urte bete dituela eta, Gipuzkoako Kirol Prentsaaren Elkarteak aitorten sari bat emango dio Aloña Mendiko Txirrindularitza Sailari, abenduaren 27an Donostian egingo den ekitaldi batean. "Ibilbide luze honen aitortza modura emango digute sari hau. 50 urte ez dira egunero betetzen, eta horrelako gauzak eskertzen dira", zehaztu du Umerezek.



Xabi Murgiondo, Uzarragako lasterketa irabazi ostean. ENEKO AZURMENDI

## Gazteen denboraldi emankorra

Kirol mailari dagokionez, esan bezala, oso emaitza onak lortu dituzte Aloña Mendiko txirringulariek.

Bereziki azpimarratzekoa izan da gazte mailako taldeak eman duen maila ona. Zazpi txirringularik osatu dute taldea, lau oñatiarrek, arrasatear batek, bergarar batek eta antzuolar batek. Taldekako sailkapena hiru alditan irabazi dute –Agurainen, Zarautzen eta Mutrikun– eta taldekako erlojupekoan hirugarren sailkatu ziren, Zumaian.

Gehien nabarmendu den txirringularia Xabi Murgiondo izan da. Izan ere, lau lasterketa irabazi ditu –Deban, Aizarnazabalen, Mendaron eta Antzuolan, Uzarragan– eta bigarren postuan ere hainbat alditan sailkatu du. Oro har, Junior Mailako Federazioen Ranking-ean lehenengo postuan bukatu du denboraldia.

"Taldeak sekulako denboraldia egin du eta haien artean ere, oso giro ona eduki dute. Beti elkarri laguntzeko prest egon dira eta horrelako gauzak nabarmentzekoak direla uste dut. Ziklista askok hain emaitza onak lortu ez dituzten arren, ikusten ez den lan handia egin dute lasterketa guztietan eta hori aipatzekoa da", adierazi du Umerezek.

Azkenik, Julen Oterok kadete mailan eta Aimar Erostarbek infantil mailan eman duten maila altua azpimarratzekoa da. Azken honek lehiatu dituen lasterketa guztiak irabazi ditu –12–.



Hasieran aureskua egin zieten txirringulariei. XABI GOROSTIDI

## Gipuzkoako klasika

Espainia mailako jubenil mailako txirringulari onenak batu zituen lasterketa honek apirilaren 24an. Umerezek esanetan, "jende asko egon zen, parte-hartze handia egon zen eta ibilbidea ere, gogorra izan arren, polita gelditu zen. Gustura gelditu ginen emaitzarekin".

# Jabier Erostarberen marrazkiak ikusgai

Tintarekin, errotuladorekin eta akuarelarekin egindako 70 erretratu bilduko ditu astelehenean zabalduko duen erakusketan. Askotariko gaiak, herrialdeak eta pertsonak oinarri dituzten margolan horiek 60 eta 100 euro bitartean salduko ditu

**Aitziber Aranburuzabala OÑATI**

Marraztea betidanik izan du gustuko Jabier Erostarbek. Ilustratzailea eta diseinugilea da ogibidez. Orain dela bi urte, koaderno txiki baten hasi zen marrazkiak biltzen. Kanean egiten dituzten *sketchcrawl* ekimenetan moduan, marrazketa azkarra erabilia egiten ditu; baina kanean beharrenean, Erostarbek etxean edo bulegoan sortzen ditu. Arkitektura gaiko irudiak eta erretratuak marrazten ditu.

Erretratuen koadernoan kanpora zabaltzea erabaki du orain; astelehenean abenduaren 30era arte, handik "lapurtutako" orriak Oñatiko Kultura etxean izango dira. "Pena eman dit liburua apurtzeak, baina, marko eta guzti ikusita gero, politikak daude", dio Erostarbek.

**Anonimoak gurago**

Erakusketako marrazkirik handiena Selma Huxley ikerlaria-



Jabier Erostarbe marrazkilaria. J.E.

ri eskainitakoa da. "San Juan baleontziaren aurkikuntzaren irudi batzuekin osatu dut erretratu hori. Hala ere, pertsonaia famatuak baino, nahiago dut herritar arruntak marraztu. Nire gertukoak edo ezagunak

dira batzuetan; eta, bidaietan ateratako argazkietan oinarritutakoak, beste hainbat. Oso gustuko dut etnia ezberdinetakoa marraztea: Australiako aborigenak, Errusiako biztanleak, Afrikako leinuetakoak, euskal kulturarekin lotutakoak ere badituzte... Era berean, badira beste margolan batzuk, garai bateko egunkarietan azalduko albisteetan oinarritutakoak; albiste-orri horiek nire artxiboan gorde, eta urte batzuk geroago marrazki bihurtu ditudanak. Irudi bakoitzari azalpen txiki bat idazten diot".

**Ingalaterran ere bai**

Herriko erakusketaz gain, Ingalaterrako Kent Konterrian ere Erostarberen lanak ikusteko aukera dago. "Southamptongo galerista batzuen proposamena jaso nuen Folkestone liburutegiko erakusketa kolektiboan parte hartzeko. Zortzi marrazki eta akuarela eraman ditut".

## Donostiako Eraul taldea eta Elena Setien bakarlaria, Oñatin

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen *Katapulta Tour Gipuzkoa* zirkuitua gaztelekura iritsiko da bihar

**A. A. OÑATI**

Artista gazteei euren lanak erakusteko aukera eskaintzeko eta, era berean, kultur programazio egonkorra duten espazioak ezagutzera emateko helburuarekin abiatu zuen Foru Aldundiak egitasmoa.

Oñatiko Udalak bat egin du ekimenarekin; hori horrela, udan egin zuten moduan, aste-buru honetan eta hurrengoan, bina emanaldi egingo dituzte gaztelekuan. Bihar, zapatua, pop, folk eta blues estiloen nahasketa egiten duen Eraul seiko-

tearen musika malenkoniatsua eta urte askotan kanpoan bizi izan den Elena Setien donostiarrenaren pop esperimentala entzuteko aukera izango da. Emanaldia 22:30ean hasiko da eta doako sarrera du. Datorren astean, Frank eta Pet Fennec taldeak igoko dira gaztelekuko taularen gainera.

**Talde berriei eskaintza**

Datorren urteko programa osatzeko deialdia zabaldu dute orain; interesa dutenek *gaztemaniak.eus* atarian dute informazioa.

## Altxatu eta Hibakusha taldeen berrienak Antixena gaztetxean

Nafarroako taldeak dira biak ala biak, eta martitzenean amaitu zen aurtengo Durangoko Azokan lan bana aurkeztu dute: Irunberriko Altxatu hirukoteak *Hegalen indarraz aintzina* izena duen hirugarrena, eta Iruñerriko boskoteak, berriz, bigarrena du oraingoa: *Oihu Isilak*. Egiten duten musika estiloari begiratuta, antzekotasun gutxi aurki daitezke bi taldeen artean: metal doinuak ditu oinarri Hibakushak, eta punk-rock estiloan kokatzen da, berriz, Altxatu.

Bi talde horien labetik atera berri diren kantuak eta aurreko lanetakoak entzuteko aukera izango da gaur, 22:30etan hasita, Antixena gaztetxean.



# "Munduko onenak etortzen ziren herrira"


**GORKA ETXABE** KAZETARIA

**ZIKLO-KROSA** UDAREN 70. urteurrena borobiltzeko, Aretxabaletak lokatz gaineko ziklismoarekin izan duen harreman estua erakusten duen dokumentala egin dute

**Xabier Urzelai** ARETXABALETA

Gaur, egubakoitza (19:30), aurkeztuko dute, Arkupen, Aretxabaletako ziklo-krosak bizi izandako urrezko urteen gaineko dokumentala –hurrengo emaldiak 21ean eta 26an–. Artemaneko Gorka Etxabe kazetariak burutu du lana; UDAko zuzendaritzako kide ere bada Etxabe. **Ze helbururekin egin duzue lana?** Aretxabaletako Nazioarteko Ziklo-krosak sekulako oihartzuna izan zuen 60ko hamarkadaren amaieratik 1990era arte Europa osoan. Munduko txirrindulari onenak etortzen ziren Aretxabaletako lasterketara eta TVEk zuzen-zuzenean eskaintzen zuen. Urrezko urteak izan ziren UDA taldearen Txirrindularitza Sailarentzat, eta aurten, klubaren 70. urteurrenean, moduren batean edo bestean ziklo-krosa berreskuratu beharra geneukala pentsatu genuen. Aukerarik aproposena dokumental historikoa egitea iruditu zitzaigun. **Gaitza izan da garai hartako material grafikoa lortzea? Zer da gehien kostatu zaizuen?**

Ez pentsa. Argazki asko daude eta irudiak ere eskuratu ditugu. TVEk 1970ean eginiko emaldiaren irudiak lortu ditugu *YouTube* sareari esker, Arrasate Telebistak 80ko hamarkada



Dokumentalaren egile Gorka Etxabe. ARTEMAN

amaieran grabatutakoak ere eskuratu ditugu, eta argazki zein beste era bateko dokumentu grafiko asko digitalizatu ditugu. Era berean, Abel Saez aretxabaletarrak grabatutako irudiak ere eskuratu ditugu. Aipatu nahiko nuke herritar batek baino gehiagok eman dizkigula irudi eta argazkiak: Joserra Intxauspe, Abel Saez, Aitor Antxia, Txusti, Manolo Zubillaga, Otxoak...

**Zelan osatu duzue dokumentala?** Dokumentalaren haria orduko protagonisten adierazpenak dira,

ziklo-krosaren sustatzaileen adierazpenak. Gainera, bi txirrindulari handiren adierazpenak ere grabatu ditugu. Jose Maria Basualdo arabarrak Aretxabaletan Espainiako Kopako lasterketa irabazi zuen eta Iñaki Maiora ormaiztegiarrak ere irabazi zuen Aretxabaletan, Nazioarteko Kriteriuma irabazteko gai izan zen euskal txirrindulari bakarra bilakatuta. Adierazpen horiek guztiak josi ditugu kronologikoki eta irudiak gaineratu dizkiegu.

**Ikustekoa da Aretxabaleta moduko herri txiki batean zelako indarra hartu zuen kirol horrek. Erreferente bilakatu zen Estatuan. Zein izan zen motiboa?**

UDA taldeko txirrindularitza saileko pertsonak aitzindariak izan ziren. Eloy Uriarte, Manolo Zubillaga eta haien kolaboratzaileek sekulako lana egin zuten. Lasterketa erreferente bilakatu zuten, bai Estatuan eta baita European ere. Arrazoiak asko izan daitezke, baina azpimarratuko nituzke bereziki, lan egiteko modua, antolakuntza gestionatzeko abilezia, TVE n egin dako gestioak, Europako Federazio ezberdinekin izandako harremanak... txirrindularitza modalitate hori masa espektakulua izan zitekeela ulertu zuten eta tentuz eta mimoz eginiko lanak emaitza bikainak izan zituen.

**Oker ez banabil, 50eko hamarkada hasierara (1952) egin behar da atzera Aretxabaletako lehenengo ziklo-kros lasterketaren berri izateko.**

Guk ez dugu hain atzera egin historian. Aretxabaletako Nazioarteko Kriteriuma izan da gure dokumentalaren hari nagusia. 1966an, UDAk sustatuta, Espainiako txapelketa antolatu zuten; hurrengo urtean, 1967an Nazioarteko lehenengo kriteriuma eta ordutik 1990era bitartean Nazioartekoa egin zen ia beti. 1992an Munduko Txapelketa erakartzeko asmoak zapuztu zirenean bertan behera geratu zen dena. Aretxabaletak asko galdu zuen, ezbairik gabe.

**Beste maila batean bada ere, posible litzateke ostera ere kirol jardura hori herrian errekuperatzea?**

Gaur egun txirrindulari profesionalak ez dute ziklo-krosik egiten errepideko denboraldia prestatzeko, eta Belgika, Holan-

da edo Alemaniako espezialistak gurera erakartzea ez da batere erraza. Euskal Herriko zenbait herritan ari dira maila altuko ziklo-krosa berreskuratu nahian, baina ez da batere samurra. Ormaiztegi, Asteasu, Igorre... Arrasaten ere bigarren edizioa egin berri dute, euskal zirkuitu barruan. Gure asmoen artean, oraingoz, ez dago ziklo-krosa berreskuratzea.

## "Mila esker Aretxabaletako herriari"

Agurtzane Elkorok idatzitako lerroak, UDAko zuzendaritzaren izenean: "70. urteurreneko ospakizunetatik UDAko zuzendaritzakook herria aipatuko genuke, Aretxabaleta. Duela bi urte plan estrategikoa egin genuenean, UDA, herri *sentimendua* izena jarri genion. Eta urteurrenaren ospakizunetan erabat bete da, ehunka aretxabaletarrek ospatu dugu, edo antolakuntzaren parte izan gara egin ditugun ekintza guztietan; ereserkia, BTT irteera, Euskadiko Karate Txapelketa, Gipuzkoako Futbol sala txapelketa... Ezin ditugu denak aipatu, GOIENA bat beharrea bi beharko genituzke eta. Eskerrak eman nahi dizkiegu aretxabaletar guztiei eta horrela jarraitu dezaten animatu, UDA kirol elkarte babesten".

### **TXAKUR-KROSA** Fernando Cobosendako brontzea Sorian

Joan den astean jokatu zituzten Sorian –Olvega herrian– Espainiako Txakur-kros Txapelketak. Eta, 40 urtetik gorakoen kategorian Fernando Cobos bergarra hirugarren sailkatu zen, *Gari* txakurrak lagunduta. Zapatuan 4,4 kilometroko lasterketa izan zuen (14.39) eta domekan, 6,3koa (22.16).

### **PILOTA** Mendizabal Altunaren ordez, eta hilaren 16an Oñatin

Jokin Altuna ordezkatuz, Aitor Mendizabalek Xabier Tolosarekin –Barriolaren ordez– jokatu du gaur Donostian, Artolaren eta Albitsuren kontra. Hilaren 16an, berriz, Oñatin jokatu du, Barriolarekin, Irribarriaren eta Rezustaren aurka. Sarrerak, Aloñan, Izarraitzen, Arranon eta Txokolateixan, 20 eurotan.

### **MENDIKO BIZIKLETA** Bilbao Downhill Cup proban Jon Fernandez onena

Antzuolako rider gaztea joan den asteburuan egin zuten Bilbao Downhill International Cup-en nabarmendu zen; hau da, mendiko bizikletekin egingako muturreko jaitsieren txapelketan. Eta, antzuolarra kadete mailako riderri onena izan zen. Guztira 100 lagun inguruk hartu zuten proban parte.

### **ESKUBALOIA** Ford Mugarri eta Izarraitz Muñoz, kanpoan

Euskadiko Txapelketa barruan etxetik kanpo jokatu dute Ford Mugarri Arrasatek eta Izarraitz Muñoz Aloña Mendik. Oñatiarrek kontrario gogor baten kantxara egingo dute bidaia, Gasteizko Corazonistas laugarren dago eta. Arrasatearrek Tolosan jokatu dute gipuzkoarren arteko derbia.

### **ZIKLO-KROSA** Oñatiko lasterketa egingo dute hilaren 18an

Euskadiko zirkuituaren barruan, abenduaren 18an egingo dute Oñatiko ziklo-krosa, eta lasterketa hori izango da Aloña Mendiko Ziklismo Sailaren 50. urteurrena ospatzeko egingo duten azken ekimena. Oraingo asteburuan, berriz, nazioarteko probak egingo dituzte Elorrioren –zapatuan– eta Igorren –domekan–.



Joan den asteburuan moduan –argazkian– oraingoan ere Mondrak eta UDAk elkarren kontra jokatuko dute, preferente mailan. i.s.

# Bi jardunaldi Gabonetako ebaluazioaren aurretik

**FUTBOLA** Gabonetan hiru asteko atsedendialdiarekin gozatu ahal izango dute ibarreko futbol taldeek, baina, aurretik, azken bi partiduak geratzen zaizkie; urtea amaitzerakoan ligako lehen ebaluaziorako oso garrantzitsuak izango diren sei puntu daude jokoan

**Xabier Urzelai** ARRASATE Azarora ez da Ohorezko Erregional mailan lehian dabilzan bai-larako futbol taldeendako oso ona izan. Aloña Mendi da salbuespena, hasiera txar baten ostean hilabete horretan atera dituelako emaitzarik onenak –bi garaipen jarraian–, baina, abendua iristearekin batera, Martu-

teneren kontrako porrotarekin (1-0) liga hasierako mamuak azaldu ziren osterara ere: ezintasuna berdegunean.

Mondrak eta UDAk, berriz, atzerapausoa egin dute azaroan, eta joan den asteko derbian puntuak banatzearekin konformatu ziren bi taldeetako ordezkariak. Aurrealdekoen borrokak, baina,

zegoenean jarraitzen du, aurrealdean ziren bost taldeetatik bakarrak irabazi zuen-eta aurreko jardunaldian; Hernanik.

Hala, Gabonetako geldialdiaren aurretik jokoan dauden sei puntuek dezente alda dezakete ligako lehen balorazio serioa. Hala, talde oñatiarrarendako garrantzitsuak izango da atsedendaldira

jaitsiera postuetatik kanpo ailegatzea. Ligako 34. jardunaldiko sailkapena da garrantzitsua, horrek balio du, baina Gabonetan eskertuko dute patxada apur bat.

## UDAK eta Aloñak etxean

Hain zuzen, sei puntu horietako hiru izango dituzte jokoan asteburuan. Aloña Mendik indartsu dagoen Hernaniren bisita izango du domekan (16:30) –hiru garaipen jarraian daramatzate– eta Aretxabaletak, zeharka bada ere, mesedea egin diezaioke Oñatiko taldeari, etzi Ibarra (16:30) egongo den Hondarribia ere atzealdeko postuetan murgilduta dago eta; kostaldekoek urriaren 9a ezkeror –zortzi jardunaldi– ez dute partidurik irabazi.

Mondrak, berriz, etxetik kanpora jokatuko du bihar (16:00), zortzigarren dagoen Touringen

zelain. Errenteriakoei kosta egiten zaie partiduak irabaztea, baina iraila ezkeror ez dute lehiarik galdu.

## Bergara eta Antzuola, lider

Erregional preferentean Bergarak mailaz igotzeko hautagaitza serioa aurkeztu du hasiera-hasieratik –joan den astean 7 gol sartu zituzten–, eta Mikel Jauregiren mutilak lider daude. Domekan Getarian jokatuko dute (16:00) sailkapenaren erdialdean dagoen taldearen kontra. Kategoria berean, berriz, joan den asteko derbia errepikatuko da: Mondrako eta Aretxabaletako bigarren taldeek indarrak neurtuko dituzte, Mojategin (domeka, 16:30). Erregional mailan, azkenik, Antzuola ere lider dago, baina asteburuan atsedena dute.

## FUTBOLA Bergarak eta Mondrak derbia dute Ipintzan, domekan

Bederatzigarren dagoen Bergarak eta bosgarren dagoen Mondrak derbia jokatuko dute etzi (15:30) Ipintzan. Bergararek jokatutako hamaika partiduetatik bakarra irabazi dute –Eibarren kontra– eta lau berdindu dituzte; hala, zuri-moreen kontra saiaturiko dira ligako bigarren garaipena eskuratzen.

Arrasateko taldeak, berriz, lau garaipen eskuratu ditu orain arte eta beste hiru partidu berdindu ditu. Eta, joan den astean biek ala biek berdindu egin zituzten norgehiagokak. Kategorian Arizmendik jarraitzen du lider sendo, oraindik ez du-eta partidurik galdu; Zumaiian jokatuko du bihar (16:00).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREG.

##### UDA-Hondarribia

Domeka. 16:30. Ibarra.

##### Touring-Mondra

Zapatua. 16:00. Fanderia.

##### Aloña Mendi-Hernani

Domeka. 16:30. Azkoaga.

#### E. PREFERENTEA

##### Mondra-UDA

Domeka. 16:30. Mojategi.

##### Getariako-Bergara.

Domekan. 17:00. Orio.

#### ERREGIONAL MAILA

##### Aloña Mendi-Eibartar.

Zapatua. 16:30. Azkoagai.

##### Arizmendi-Urki

Zapatua. 18:00. Ibarra.

##### Bergara-Soraluze

Domekan. 17:30. Ipintza.

#### OHOREZKO GAZTEAK

##### Euskalduna-Aloña M.

Zapatua. 15:30. Andoain.

##### Bergara-Trintxerpe

Zapatua. 16:30. Ipintza..

##### Aretxabaleta-Mondra

Zapatua. 16:00. Ibarra.

#### EMAKUMEZKOAK

##### Zumaiako-Arizmendi

Zapatua. 16:00. Zumai.

##### Bergara-Mondra

Domeka. 15:30. Ipintza.

##### Amaiak Bat-Mondra

Zapatua. 18:30. Deba.

#### ARETO FUTBOLA

#### EUSKADIKO TXAPELKETA

##### Erandiotar.-Eskoriatza

Zapatua. 16:45. Altzaga.

##### Aretx. UDA-Kukuyaga

Eguena. 12:00. Ibarra.

#### SASKIBALOA

##### EBA

##### MU-Santurtzi

Zapatua. 18:30. Iturripe.

#### ESKUBALOA

#### EUSKADIKO TXAPELKETA

##### Corazonistas-Aloña M.

Domeka. 10:00. Gasteiz.

##### Tolosa-Ford Mugarri

Domeka. 12:00. Usabal.

#### PILOTA

##### Bergaran

Egubakoitza. 19:30.

Bergara 2 - Ormaiztegi 1

Etxaniz-Izeta (kadeteak)

Gartzia-Alberdi (gazteak).

##### Oñatin

Zapatua. 16:00.

Aloña M.-Aretxabal. (inf.)

Aloña M.-Aretx. (inf.)

## Euskal Selekzioaren Ekipamendua

### ASTORE ETXEAREN ESKUTIK:

Euskal Selekzioaren hiru ekipamendu ditugu zozketatzeko, umeentzako.

8, 10 eta 12 urteko umeentzako ekipamenduak ditugu aukeran!

Animatu eta parte hartu zozketan!



### PARTE HARTZEKO (ABENDUAREN 13RA ARTE):

E-postaz: kluba@goiena.eus

WhatsApp: KLUBA [euskal selekzioa] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketara honen helburua bakarra da indararen dagoen sustapena gertatzea. Eskubidea izango duzue datuak sartzea, hasi edo zuzentzea edo ezabatzea, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazte, denok irabazte!



# "Egin esfortzua gauza berriak probatzeko"

**AITOR FURUNDARENA** HAUSPOZ ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Nazioarteko 24. Arrasate Hiriaz eta 37. Gipuzkoako akordeoi lehiaketaz gainera, 29. Gipuzkoako Akordeoi jaialdia egingo dute gaur hasi eta domekara bitartean Arrasaten

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Akordeoiaren soinu banda nagusi den asteburua izango da oraingoa. Profesionalak izateko bidean dauden eskarmentudun nazioarteko akordeoilariak eta askotariko musika eskoletako ikasleak batuko ditu aurtengo edizioak ere. Amaia antzokian, Kulturaten eta Arizmendi Ikastolan izango dira emanaldiak.

**Zer moduz hasi duzue?**

Ilusioarekin, baina errespetu apur batekin ere bai. 400 parte-hartzaile izango dira aurten; horien artean, atzo heldu ziren nazioarteko 28 lagunak. Orain arteko kopuru handiena da; horregatik diot, pozik bai, baina horrenbeste jende kudeatzeak dakarren ardura handiarekin ere bai.

**Nazioarteko Arrasate Hiria lehiaketara aurten nondik datoz?**

Europako herrialde askotatik -Italia, Serbia, Kroazia, Polonia, Frantzia, Suedia, Errusia, Finlandia, Eslovenia, Portugal..., eta baita Txinatik ere. Horieta-tik sei bat inguru aurrez gurean egondakoak dira.

**Lehiaketa horrek zer dauka horren urrutitik etortzeko?**

Profesional izateko bidean dauden ikasle guztiek izaten dute lehiaketetan parte hartzeko garai bat, eta, gehienetan, goi mai-



Aitor Furundarena, Hauspoz elkartearen lehendakaria. A. F.

lakoak aukeratzen dituzte; eta gurea maila horretakoa da. Txapelketa batek duen maila dituen epaimahaikideen arabera neurtzen da, bereziki. Beste edizio batzuetan izandakoak dira aurtengoak, urtetik urtera txandakatzen joaten gara eta: Vojin Vasovic (Serbia) eta Friedrich Lips (Errusia) antzeko eskola-koak dira; Norvegiako Geir Draugsvoll eta Finlandiako Matti Rantanen ere antzekotasunak dituzte euren artean; eta bosgarrena Musikeneko Iñaki Alberdi euskalduna da. Vasovic ira-

kasle handia da; Lips azkeneko 50 urteetan mundu mailako akordeoiaren erreferentzia handia da; Draugsvollen ibilbidea ere izugarria da; eta zer esanik ez, Mattin Rantanena. Laburbilduz, bada: bi erreferentzia historiko, Vasovic eskarmentu handiko irakaslea eta mundu mailan aski ezagunak diren bi kontzertista handi. Era berean, alde gizatiarretik ere oso ezaguna da gure lehiaketa; asko eskertzen dute gertuko tratu beroa. **Zelakoa izaten da parte hartzaile horien eguneko plana?**

Arrasateko eta ondoko herrietako hotel eta hostaletan banatzen ditugu. Orokorrean musika topera izaten da beraiek dauden hoteletan; etengabe praktikatzen ari dira. Atzo egin genuen lehiaketeko ordenaren zozketa, eta jo arte ikasi eta ikasi ibiltzen dira. Lan hori egin eta gero, elkarrekin egon eta elkar ezagutzeko aprobetxatzen dute egonaldia; polita izaten da kideen artean sortzen den harremana.

**Harreman horiek Arrasatekin kanpo ere irauten dute?**

Lehiakortasun eta presio handia izaten da txapelketan, baina lagunak ere egiten dira, bai. Gaur egun guk nazioartean ditugun harreman asko parte hartu dugun txapelketetan egindakoak dira. Elkarrekin egiteko proiektuak ere sortzen dira askotan, baina ez dira berehalakoak izaten, urte batzuk pasatuta sortzen dira gehienetan.

**Gipuzkoako txapelketaz, Arrasateko lehiaketa zaharrenez, zer diozu?**

Distira nazioartekoak ematen dio, baina, guretako, ezinbestekoak dira Gipuzkoako txapelketa eta jaialdia kontuan hartuta ikuspuntu pedagogikotik antolatzen dugula guztia. Joera dago gizarte honetan eliteari begira egoteko, baina ahaztu egiten zaigu eliteria ezin dela inor heldu, aurrez oinarrian egon barik. Hogeita hamar parte hartzaile izango dira Gipuzkoako txapelketan eta 332 lagun jaialdian; horien artean, Debagoieneko musika eskoletakoak daude.

**Kanpotik begiratuta, baina errespetuz esanda, akordeoiaren soinua gogorra da.**

Ulertzen dut diozuna, eta badaikit gaur egun dauden musika ohiturentzat ez dela erraza; uste dut funtzionamenduz gizarte oso atzerakoian bizi garela, eta

nik ere gizarteari errespetu osoz diot. Duela 50 urte proba eta esperimentu gehiago egiten ziren. Gauza askotan atzerapausoak egin ditugu; eta aipatzekoa da garai honetan artistikoki musika estilo batzuetatik bizi dugun diktadura. Badakit ez dela erraza, baina denok egin beharko genuke esfortzua gauza berriak ikasi eta probatzeko. Horrelako musika entzutea jabetxe batera joan eta ezagutzen ez ditugun plater berriak probatzea bezala da.

**Herritar guztiei egiten diezu gonbidapena, beraz.**

Duda barik; akordeoi kontuetan aritua edo aditua izan, edo ez. Akatsa da pentsatzea, estilo bat gustatzeko ulertu egin behar dugula. Ala entzuten dugun musika dena ulertzen dugu?

**Matti Rantanen masteclass-a ere aipatzekoa da.**

Luxua da horrelako irakasle bat gurekin izatea; astelehenean eta martitzenean Kulturaten izango da. Parte hartu gura duenak idatz dezala [info@hauspoz.org](mailto:info@hauspoz.org). helbidera.

**Hauspoz elkarteak antolatzen badu ere, hainbat laguntzaile dituzue.**

Bai, horixe; Arrasateko Udala, Foru Aldundia, SGAE Fundazioa eta, nola ez, ezinbesteko laguntzailea, SUDC elkarte. Beste behin ere, eskerririk asko guztio!

**Ekitaldien gaineko informazio gehiago 15. eta 20. orrietan**

**"NIRE USTEZ, AKATSA DA PENTSATZEA MUSIKA ESTILO BAT GUSTATZEKO ULERTU EGIN BEHAR DELA"**

## 'Marikixkur' ipuin klasikoaren haurrentzako antzerki musikatua

Intimitaterako eta elkarbizitzarako eskubideei buruzko hausnarketarako gonbidapena, Glu Glu taldearen eskutik

**A. A. ARETXABALETA**

Ile kizkurra eta urre koloreduna duen neskatila bihurria da Marikixkur. Igande batean gurasoekin haserretu da, gurasoek bere egunerokoa irakurri dutela uste duelako. Ihes egin eta

basoan galduko da eta zuhaitzen artean dagoen hiru hartzen etxea aurkituko du. Horixe da Glu Glu taldeak urrian estreinatu zuen lanaren abiapuntua. Arkupe kultura etxean eskainiko dute, etzi, domeka, 12:00etan.

**Publiko familiarrantzat**

Aurreko lanetan moduan, musika eta dantza, komedia eta antzerki jolasarekin uztartzen dute. Taularen gainean lau aktore izango dira: Itsaso Quintana, Ylenia Baglietto, Andrea Covadonga eta Ugaitz Alegria.

Publiko familiarrantzako proposamena da; lau urtetik gorako haurrentzako gomendatzen dutena. Norbanako bakoitzaren intimitaterako eta elkarbizitzarekiko eskubideen gaineko hausnarketa bultzatzen du.



'Marikixkur' antzerkiaren une bat. GLU GLU

# Kulturaren plaza, aurten ere, emankorra eta bizia

Durangoko Azokaren "balorazio positiboa egin du" Gerediaga elkarteak kopuruei eta nolakotasunei dagokienez. 'Bizitzekoa DA!' leloa aintzat hartuta, bisitarien kopuru orokorra iazko antzerkora izan da, egunez egun begiratuta irregularrak izan den arren

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE  
Asko izan dira aurten ere kulturaren plazan izan diren debagoiendarrak. "Urteroko zita izaten da guretzako Azoka. Produktu berriak bertatik bertara ezagutu, horietako batzuk erosi eta egun-pasa ederra egin dugu oraingoan ere", kontatu dute *Debagoiena zuzenean* saioan elkarrizketatutako bisitariak.

Hainbat hedabidetan argitaratutako datuen arabera, Toti Martinez de Lezea eta Kirmen Uribe izan dira gehien saldu duten idazleak. Musikari dago-kionez, Gatibu, Xabi Solano, Vendetta, Ruper Ordorika eta Huntza taldeak izan dira salduenen artean aipatu dituztenak.

**Debagoieneko idazleak gustura**  
Egubakoitzean, Ikasleen Egunarekin abiatu zen Azoka, eta John Andueza Arrasateko idazleak gazteendako *Lepoan hartu* liburua atera berri duela-eta argi zuen hura zela egunik po-

toleena. "Sentsazio oso onarekin itzuli nintzen etxera; ale asko saldu nituen eta elkarrizketa asko izan nituen irakurle gazteekin. Ederto pasatu nuen", kontatu du Anduezak.

Standaren barrualdean lehenekoz izan da Bergaran jaiotako Patxi Larrion, *Feriatzaileak* eleberriarekin. "Irakurri dutenek komentatutakoa golkoan gorde-ta daramat. Asko eskertu dut jasotako loreak eta kritikak. Aintzat hartuko ditut hurrengo lana idazterakoan", esan zuen Larrionek Azoka Telebistan.

Josune Murgoitio arrasatearra ere gustura da Autoekoizleen gunean izan duen *Colores prohibidos* eleberriaren harrerarekin.

**HUNTZA TALDEA ETA RUPER ORDORIKA AURTENGO AZOKAKO SALDUENEN ARTEAN AIPATU DITUZTE**

"Uste baino gehiago saldu eta sinadura bota ditut. Holandako editore batekin egoteko aukera ere izan dut. Neketsua, baina, duda barik, emankorra izan da Azoka niretzat", dio Murgoitio.

**Musikari berriak eta betikoak**  
Juan Karlos Irizarrek, urtero moduan, stand propioa izan du. "Pozik jaso ditut zaleen berrakadak eta zorion agurrak", dio Irizarrek. Handik gertu zegoen Ruper Ordorika herrikideak ere makina bat disko sinatu zuen gustura asko zapatuan.

Mauka Musikagintzako Igortz Iturbek zera kontatu du: "Jende gutxiago baina salmentak onak izan dira. Gurean salduenak: Huntza taldearen *Ertzetatik*, Skakeitan-en *Galera* eta Egurra ta Kitto-ren *Gure ordua*".

Horiez gainera, Arrasateko Dirty Brothers eta Aretxabale-tako Igor San Juan ere Azokan gustura saltzen izan dira. (Ikus 15. eta 20. orriak).



Juan Karlos Irizar Oñatiko musikaria standean. A. A.



Ruper Ordorika 'Guria ostatuan' lana sinatzen. A. A.



Huntza taldea Mauka Musikagintza standean. MIREIA BIKUÑA



Josune Murgoitio arrasatearra Autokoizleen gunean. A. A.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubean, hilero sariak!



**PHILLIPS 32" TELEBISTA**  
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

**'LEPOAN HARTU' LIBURUA**  
Jon Anduezen 3 liburu. Parte hartze izena: Lepoan hartu

**SARRERAK**  
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartze izena: Arrikutz

**OTARREA**  
Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartze izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**  
E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.  
Eskubidea izango duzute datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

### Irabazi bi lagunendako otordua

**ETXEAUNDI JATETXEARI ESKER**  
Begiratu *Puntua* aldizkariako *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

**Arrasateko Udalarri esker**  
Benito Lertxundiren kontzerturako sarrerak ditugu.  
Amaia antzokian. Arrasate. | Abenduaren 23an, 19:30etan.

**AED Elkarteari esker**  
Santamasetako Bertso jaialdirako sarrerak ditugu.  
Amaia antzokian, Arrasate. | Abenduaren 21ean, 20:00etan.

**PARTE HARTZEKO:**  
E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "benito / bertso jaialdia"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.  
Eskubidea izango duzute datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



**Puntua** aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2016 + 2017 osoa: 55 euro.  
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!





ESKER ONA

**Luciano Jauregi Ezkurra** 

2016ko abenduaren 6an hil zen, 86 urte zituela.

Emaztea: Miren Bidaburu; seme-alabak: Iñaki, Pedro eta Amaia; anai-arrebak: Juanito (†), Mari eta Espe; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenikigutenoien eskerrik asko, sendikoen izenean.

Helbidea: Iztegi baserria (Garagartza auzoa). Arrasaten, 2016ko abenduaren 9an.

ESKER ONA

 **Txomin Garitano Arrieta** 

2016ko abenduaren 6an hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2016ko abenduaren 9an.

ESKER ONA

 **Bixente Iturricastillo Gorosabel** 



2016ko abenduaren 1ean hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2016ko abenduaren 9an.

ESKER ONA

 **Antonio Murua Anduaga** 

2016ko azaroaren 19an hil zen, 63 urte zituela.

*Baserritar bikaina Mendizale amorratua Perretxiko biltzaile aparta.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, abenduaren 10ean, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Aurrez mila esker bertaratuko zareten guztioi.

Oñatin, 2016ko abenduaren 9an.

ESKER ONA

**Jose Ramon Olariaga Jauregialzo** 

'Paiko'

2016ko azaroaren 26an hil zen, 59 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.


Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, abenduaren 10ean, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko abenduaren 9an.

HILETA

**Kontxi Urcelay Lasa** 

Moises Palomoren alarguna

2016ko abenduaren 7an hil zen, 76 urte zituela.

*Begiak itxiz, gertu sentituz. Gero arte, ama. Muxu bat, amama.*

Haren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokiaren.

Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Eskoriatzan, 2016ko abenduaren 9an.

URTEURRENA

**Alberto Larrañaga Igartua** 

2015eko abenduaren 1ean hil zen, 76 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiaren.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2016ko abenduaren 9an.

URTEURRENA

**Mari Carmen Zubizarreta Guridi** 

2015eko abenduaren 12an hil zen, 68 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, abenduaren 10ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiaren.

*Faltan zaittugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2016ko abenduaren 9an.

URTEURRENA

**Mari Carmen Tirapu Remondegui** 

2015eko abenduaren 8an hil zen, 66 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 11n, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko amaren parrokiaren.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Elgetan, 2016ko abenduaren 9an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

<b>ARRASATE</b>	<b>ETXEBERRIA</b>
Egubakoitza, 9	ALBERTO AZKOAGA
Zapatua, 10	M. FCA. AZKOAGA
Domeka, 11	CORCUERA
Astelehena, 12	IRIZAR
Martitzena, 13	AMEZUA
Eguaztena, 14	ESPAÑOL MORALES
Eguena, 15	
<b>BERGARA</b>	<b>OIARBIDE</b>
Egubakoitza, 9	ESTELLA
Zapatua, 10	ESTELLA
Domeka, 11	ALVAREZ-MOZOS
Astelehena, 12	URRUTIKOETXEA
Martitzena, 13	ZABALA
Eguaztena, 14	OIARBIDE
Eguena, 15	
<b>ORATI</b>	<b>JULDAIN</b>
Egubakoitza, 9	JULDAIN
Zapatua, 10	JULDAIN
Domeka, 11	JULDAIN
Astelehena, 12	ANDUAGA
Martitzena, 13	ANDUAGA
Eguaztena, 14	IGARTUA
Eguena, 15	IGARTUA

<b>ARRASATE</b>	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
	M. FCA. AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri kalea 1 / 943 79 22 26
	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
<b>BERGARA</b>	<b>OIARBIDE</b> : San Antonio 5 / 943 76 11 05
	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
	URRUTIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
	URRUTIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
<b>OÑATI</b>	<b>ANDUAGA</b> : San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
	Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2016ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
	Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen araberak ( <a href="http://www.cofipuzkoa.com">www.cofipuzkoa.com</a> ).

HILDAKOAK

- Bixente Iturricastillo Gorosabel.** Bergaran, 1ean. 85 urte.
- Juan Carlos Loidi Arregi.** Bergaran, abenduaren 3an. 78 urte.
- Gregorio Uribeetxebarria Abarrategi.** Arrasaten, 3an. 83 urte.
- Victor Irazola Altuna.** Bergaran, abenduaren 3an. 94 urte.
- Jose Maria Badiola Uribe Etxebarria.** Arrasaten, 5ean. 86 urte.
- Pablo Abad Monge.** Bergaran, abenduaren 5ean. 89 urte.
- Txomin Garitano Arrieta.** Bergaran, abenduaren 6an. 82 urte.
- Luciano Jauregi Ezkurra.** Arrasaten, abenduaren 6an. 86 urte.
- Juan Aranburu Etxebarria.** Arrasaten, abenduaren 7an. 86 urte.
- Kontxi Urcelay Lasa.** Eskoriatzan, abenduaren 7an. 76 urte.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
BERGARA



## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Olentzeroren etxera**

Joan den zapatuan, abenduaren 3an, Aretxabaletako Algara ludotekako lagunek Izenaduba basora irteera egin zuten. Guztiek ederto pasa zuten iratxoekin, sorginarekin eta beste pertsonaiekin jolasean. Gainera, Olentzerorekin egoteko aukera ere izan zuten, baita gutunak emateko ere! Ea hemendik eta abenduaren 24ra bitartean jasotako eskutitz guztiak irakurtzeko astia izaten duen; lanpetuta ibiliko da Olentzero egun hauetan! Hurrengo urtean ere bisitan joateko asmoa dute Aretxabaletako gaztetxoek.

**2. Azoka TB**

Aurten ere Goienak egin du Azoka TB, Durangoko Liburu eta Disko Azokan aurkeztutako berritasunak eta egon den giroa erakusteko. Idazleei eta musikariei elkarriketak egin eta kontzertuak ere eskaini ditu, *streaming* bidez, azokak iraun duen bitartean. Argazkian agertzen direnak dira han lanean ibili diren kazetari eta teknikarietako batzuk.

**3. '10 bitxiak' saria**

Gipuzkoako hamar merkataritza-enpresa esanguratsuenak saritu ditu Gipuzkoako Bazkondeak *10 bitxiak* izendapenaren barruan, eta horietako bat jaso du Oñatiko Maibi dekorazio eta ehungintza dendak. Ama-alabak joan dira saria jasotzera, Maribi Arregi eta Argiloain Perosterena. Debagoieneko saria eraman du Oñatiko Maibi dendak.

**4. Felix eta Maria**

Felix Zufiria eta Maria Errasti oñatiarrak 1966ko azaroaren bukaeran ezkondu ziren Arantzazun. Urrezko ezteiak bete dituztenez, "zorionik beroenak eta muxu handi bat, familia osoaren partetik!".

## #DIOTENEZ

**SURFISTAK ELURRETAN**

Mallorcako Txisko eta Ros surfariak dira eta Zarauzko eta Sopolako olatuak hartzera etorri ziren duela aste pare bat. Mendi puntetan elurra ikusi eta Aizkorriko puntara joateko gogoak etorri zitzaizkien. Mendi eta arroiletan eskarmentu handia duen Arrasateko *Menditxik.com* atariarekin harremanetan jarri, eta Aizkorri aldera joan ziren joan ziren azaroko azken egubakoitzean.

Asko disfrutatu zuten eta leher eginda iritsi ziren Goiko Benta ostatura. Hango goxotasunarekin ederki berrindartu ziren. Ordu honetan etxean izango dira berriz, Costa Ricatik bueltan.

**INUZENTE EGUNEAN**

Oñatiko Txuleton's taldeak Antixena gaztetxean joko du Inuzente egunean. Karmelo Alberdi, Fernando Mugarza, Xabi Arregi Arrillaga, Jabi Egaña eta

Roberto Zabarte musikariak oholza gainera igoko dira enegarren aldiz abenduaren 28an. Ona tabernan makina bat aldiz jo dute, beti data berean. Joan den urtean ere egun horretan izan ziren Oñatiko gaztetxean, eta iazko esperientzia ona errepikatu egingo dute aurten. Mitikoak ez dira oraindik erretiratu eta duela hamarkada bat baino gehiago hartu zuten ohiturari eutsi gura diote.

**MOTIBAZIOA**

Oñatiko Aloña Mendiko futbol taldeko jokalariek eurei buruz egindako bideoekin berrindartu egin direla dirudi. Lehenengo partiduetan emaitza txarrak izan zituzten eta prestatzaileek pentsatu zuten jokalariek bakoitzaren ingurukoren batek bideo pertsonalizatua egitea bakoitzari, animo mezuak bidalita, hain zuzen ere. Horregatik edo ez, baina kontua

da Gotzon Urzelaireren taldeak irabazi egin dituela harrezkero jokotuta dituzten hiru partiduetatik bi.

**BISBALEN ESTILISTA**

Maialen Fernandez de Arroia David Bisbalen estilista izan da. Hain zuzen ere, *Duele demasiado* izeneko bideoan Estatuko abeslari ezagunak erabili duen look-a da Arrasateko kazetari eta estilistak egin duena.

## ZORION AGURRAK



OÑATI  
**Leire Guridi Agirre**  
Abenduaren 15ean, 9 urte. Zorionak, Leire! muxu handi-handi bat etxeko danon partetik eta ondo pasatu zure egunean!



BERGARA  
**Malen Aretxaga Arabaolaza**  
Abenduaren 12an. Zorionak, Malentxo! 4 urte! Zu bai handixa! Zelako ondo ospatuko dogun zure eguna! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



ANTZUOLA  
**Eneritz Zubikarai Aguado**  
Abenduaren 12an, 5 urte. Zorionak, Eneritz! Ondo pasatu zure eguna, printzesa. Muxu potolo-potolo bat, etxekoan partetik.



ARAMAIO  
**Paule Avila Hernando**  
Abenduaren 12an, 2 urte. Zorionak, txikitto! Maddiren besarkada potolo bat eta muxu pila, zure familiaren partetik! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean!



BERGARA  
**Iratzi Castro Trompeta**  
Abenduaren 11n, 5 urte. Zorionak, Iratzi! Patxo handi bat Malenen, Maialenen, Aimarren eta Laiaren partetik!



ANTZUOLA  
**Andoni Sanchez Sanchez**  
Abenduaren 8an, urtebete. Zorionak, maitia! Jada urtebete egin duzu! Ondo ospatu zure eguna, Nagorerekin eta etxeko guztiekin.



ARRASATE  
**Luken eta Uxue Urrutia Abarrategi**  
Abenduaren 8an, 10 urte. Zorionak, bikote! Heldu da eguna! Ondo pasatu, zuen lagunena eta familiaren partetik!



BERGARA  
**Alaitz Garai Zenitagoia**  
Abenduaren 8an, 5 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu erraldoi bat, etxeko danon partetik.



ARAMAIO  
**Eñaut Garai Gutierrez**  
Abenduaren 7an, 7 urte. Zorionak, Eñaut! Etxeko danon partetik patxo handi bat eta oso ondo pasatu zure egunean.



ESKORIATZA  
**Aner Ortiz Esnaola**  
Abenduaren 7an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Zure urtebetetzean ondo-ondo pasatzea opa dizugu. Familia osoa eta, bereziki, Aimar, aitaxo eta amatxo.



OÑATI  
**Oihan Elorza Zabala**  
Abenduaren 6an, 3 urte. Zorionak, Oihan, txapeldun! Txoko marrubizko patxo pilo bat familixako danon eta, bereziki, Intzaren partetik. Asko maitte zaittugu!



BERGARA  
**Aimar Anakabe Iturbe**  
Abenduaren 6an, 7 urte. Zorionak, Aimar! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bana etxeko guztien eta, bereziki, Unaxen partetik.



OÑATI  
**Maier Urteaga Zubia**  
Abenduaren 9an urtebete. Zorionak, maitte! Ondo pasatu zure eguna. Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA  
**Peru Maure Azkarate**  
Abenduaren 4an, 5 urte. Zorionak, mutikote. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta topera ospatu lagunekin eta etxekoekin. Muxu handi bat, maite zaitugun guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Oier Kortazar Lasagabaster**  
Abenduaren 3an, 7 urte. Zorionak, mutikote! Bazoiez handi einixaz! Ondo pasatu, etxeko danon partetik!



OÑATI  
**Laia Korta Urkia**  
Abenduaren 2an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako. Muxu potolo bat, etxeko guztien partetik.



OÑATI  
**Laia Aramendi Urkia**  
Abenduaren 2an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako. Muxu potolo bat etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Benja Ramos**  
Abenduaren 2an, 34 urte. Zorionak, aitaxo! Oso ondo pasatu zure eguna! Ilargiraino maite zaitugu! Patxo handi bat!



BERGARA  
**Ainara Revilla Urrutia**  
Abenduaren 1ean, 7 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetzea! Patxo pilo bat, etxeko danon partetik!



BERGARA  
**Xanet Aranburu Kareaga**  
Azaroaren 30ean, 4 urte. Zorionak, Xanet! Azkenian 4 urte handi, maitte. Laztan handi bat, danon partetik. Bereziki, amama Mariajek eta aitiitta Robertok. Segi jator eta alai!

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 9

### ARRASATE Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa

Nazioarteko lehiaketako kanporaketa faseak (09:00 eta 15:00) eta Gipuzkoako lehiaketako senior mailako kanporaketak (16:00) jokatu dituzte. *Amaia antzokian, aipatutako orduetan.*

### OÑATI Eskulanak neska-mutikoendako

8-12 urte artekoendako ekintza, aste bukaeran. Gaurtik domekara arte egingo dituzte. *Kuboan, 17:00etan.*

### ANTZUOLA Aratusteetako dantzak lantzeko ikastaroa

Gaur, abenduak 9, da izena emateko azken eguna Oinarinen lokalean. 2017ko Aratusteak otsailaren 26an ospatuko dira. *Izen-ematea aipatutako lekuan.*

### ELGETA 'Sala de espera' antzezlan

Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen taldearen eskutik. Gaztelaraz. Sarrera irekia. *Espaloian, 17:00etan.*

### BERGARA Pintura erakusketa

BEART taldeko kideen lanak ikusteko aukera egongo da hilaren 18ra arte. Gaur, abenduak 9, egingo dute irekiera ekitaldia. *Aroztegin, 18:00etan.*

### ARETXABALETA 'Aretxabaletako ziklo-krosa' dokumentala

UDAREN 70. urteurrena ospatzeko ziklo-krosaren gainean egindako dokumentala aurkeztuko dute. *Arkupen, 19:30ean.*

### ARRASATE The Hans Blues Band taldea

Blues doinuekin gozatzeko aukera egongo da. *Irati tabernan, 20:00etan.*

### ESKORIATZA Izaki Gardenak akustikoan

Inkernu tabernaren XIII. urteurrenako emanaldia egingo du Jon Basagurenen taldeak. *Inkernun, 23:00etan.*



GOIENA

### ELGETA Herrixa Dantzan, Escamot Catala taldearekin

Bira egiten dihardu Kataluniako taldeak eta geldialdia egingo du Elgetan, folk dantzaldia egiteko. Bestalde, Eko Taloak enpresak ipiniko ditu jatekoak eta edatekoak. Sarrera doan. *Gaur, egubakoitza, Espaloian, 20:30ean.*



IMANOL SORIANO

### OÑATI Altxatu eta Hibakusha taldeak

Bi taldeak nafarrak dira eta disko berriak aurkeztuko dituzte. Altxatuk *Hegalen indarrez aitzina* delako lana, eta Hibakushak *Dihu isilak* lana. Sarrerak, bost euro. Langabeek, bi euro. *Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.*

## ZAPATUA 10

### ARRASATE Gipuzkoako akordeoi jaialdia

Askotariko emanaldiak, adinaren arabera, Amaia antzokian, Kulturaten eta Arizmendi Ikastolan. *Aipatutako lekuetan, 08:30ean.*

### BERGARA Bergara Bizi

Haur eta gaztetxoendako ekimenak Bedelkar elkartearen eskutik. *Seminarioko karpan, 11:30ean.*

### ARETXABALETA Ipuin kontalaria

Amaia Elizagoienaren eskutik *Ameli eta xirikituen jostunak* ipuina. *Liburutegian, 11:30ean.*

### ARRASATE Nazioarteko akordeoi lehiaketa

Azken faseko emanaldiak egingo dituzte. *Amaia antzokian, 15:00etan.*

### ARETXABALETA Akordeoi kontzertua

Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketako iaizko txapelkun Janne Valkeajoki-ren kontzertua. *Arkupen, 19:30ean.*

### OÑATI Elena Setien eta Eraul

Katapultatua Tour Gipuzkoa zirkuituko kontzertua. Sarrera doan. *Gaztelekuan, 22:30ean.*

### ARAMAIO Demoded Quartet

Txirritola Euskara Elkartearen eskutik. *Arkupen, 19:30ean.*

## DOMEKA 11

### ARRASATE Nazioarteko akordeoi lehiaketa

Azken faseko emanaldiak egingo dituzte. *Amaia antzokian, 09:00etan eta 15:00etan.*

### ARRASATE Gipuzkoako akordeoi lehiaketa

Junior (09:00) eta senior (15:00) mailetak azken fasea egingo dute. *Kulturaten, aipatutako orduetan.*

### ESKORIATZA Mendi irteera

*Eskolore pausuz-pausu: makila eskuen eta ibili basuen* ibilaldia: Alberja-Nebera-Ganboralde-Apotzaga. Hiru ordukoa izango da. *Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.*

### BERGARA Bergara Bizi

Haur eta gaztetxoendako ekimenak Bedelkar elkartearen eskutik. *Seminarioko karpan, 11:30ean.*

### ARETXABALETA 'Marikixkur eta hiru txerri txak' hiru txerri txak'

Glu Glu taldearen antzezlan. Marikixkurrek gurasoekin haserretu eta etetik ihes egingo du, basora. Han, hiru txerri txak etxean sartuko da eta... Sarrerak, hiru euro. *Arkupen, 12:00etan.*

### ELGETA Lanbideak, gaztelekuan

Gaztetxoei bi lanbide erakutsiko dizkiete: Fernando Albeniz suhiltzailea da eta Dani Gillegi

basozaina. Euren lanbideen gainean egingo dute berba umeekin. *Gaztelekuan, 16:00etan.*

### ARAMAIO Papargorri Eskolania

Kontzertua egingo du Gasteizen. *Printzipal antzokian, 18:00etan*

### BERGARA Miriam Cepeda organista

Stoltz-Freres organoaren alde. *Santa Marinan, 19:00etan.*

### ARAMAIO 'Mairuelegorreta, iluntasunetik argitasunera'

1963. urtetik Gorbeian egiten den euskal jaiari buruzko dokumentala. *Kultura etxean, 19:00etan.*

### BERGARA 'Koaderno zuri' antzezlan

Ama hil berritan, 20 urteren ostean, atzera ere elkartzeko Begoña eta Arrate ahizpak. Hika Teatro taldearen antzezlan. Sarrerak, zortzi euro. *Zabalotegin, 19:00etan.*

### ARRASATE Nazioarteko akordeoi txapelketa

Azken ekitaldia eta sari banaketa. *Amaia antzokian, 20:00etan.*

## ASTELEHENA 12

### OÑATI Baso jardunaldiak

Askotariko hitzaldiak. *Santa Anan, 15:00etan.*

### ARAMAIO Sukaldaritza tailerra

Erretiratuendako *Janari osasungarria sukaldatzen ikasi*

delako tailerra egingo dute abenduaren 12an, 13an eta 14an. *Alaiak elkartearen, 17:00etan.*

### BERGARA Magia eta ilusionismo erakustaldia eta tailerra

Iñaki Almandozekin. Izena emateko 943-76 93 94 telefonora deitu behar da. *Irizarren, 18:00etan.*

### OÑATI Martutenerako material bilketa

Gaur hasiko dira presoendako materiala batzen: Garoa aretoan (18:00-20:00), eta Irizar estankotan, Hirukarren eta Silleron, zabalik daudenean. *Hilaren 16ra arte, aipatutako lekuetan.*

### ARRASATE Margo taldekoen erakusketa

Akuarela, olio eta beste teknika batzuk erabiliz egindako 22 lan ikusgai, abenduaren 21era arte. *Kultureteko klaustroan.*

### OÑATI Mahai-jokoan txapelketak

Debagoieneko txapelketarako herri mailako sailkapen fasea jokatu dute. *Pake Lekun, arratsaldean.*

### OÑATI 'Bizilagunak'

Jabier Erostarbe oñatiarrak errotulagailuekin eta akuarelekin egindako erretratuak ikusgai. Gaur, abenduak 12, zabalduko da erakusketa, hilaren 30era arte. *Kultura etxean, 18:00etan.*

## MARTITZENA 13

**ARETXABALETA Santa Lutzia eguna Basotxon**  
90 urteko bazkideak omenduko dituzte, besteak beste.  
*Erretiratuen elkartearen, 17:00etan.*

**OÑATI Erretinosi pigmentarioaz berbetan**  
Gipuzkoako Begisarerren eskutik.  
*Ikusmen murriztua dut kanpaina aurkeztuko dute.*  
*Kultura etxean, 17:00etan.*

**ELGETA Alai taldea**  
Bergarako taldearen emanaldia.  
Sarrera irekia.  
*Espaloian, 18:00etan.*

**BERGARA 'Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa' erakusketa**  
Soinuaren eta irudiaren bitartez, Artzeren unibertso poetikoan zehar zentzumene gidatutako bidaia, urtarilaren 8ra arte.  
*Laboratoriumen.*

**OÑATI Irakurketa kluba**  
*Don Quijote de la Mancha* liburuari buruzko tertulia egingo dute Ruben Ariasekin.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**OÑATI 'Olaran paisaia' egitasmoaren aurkezpena**  
Iñaki Segurok egingo du berba.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 'Mairuelegorreta, iluntasunetik argitasunera'**  
1963. urtetik Gorbeian egiten den euskal jaiari buruzko dokumentala.  
*Arkupen, 19:30ean.*

**BERGARA 'Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa' erakusketa**  
Soinuaren eta irudiaren bitartez, Artzeren unibertso poetikoan zehar zentzumene gidatutako bidaia.  
*Arkupen, 18:00etan.*

## EGUAZTENA 14

**ARETXABALETA Erorikoak saihesteko ikastaroa**  
*Atxabalta Mugi* egitasmoaren barruan, 65 urtetik gorakoendako.  
*Arkupen, 10:00etan.*

**BERGARA Baso jardunaldiak**  
Ikastaroa eta mahai-ingurua.  
*Udaletxean, 15:00etan.*

**BERGARA Kafekonpon**  
Tresna txikiak konpontzeko tailerra.  
*San Joxepen, 16:00etan.*

**ANTZUOLA Gimnasia erritmikoko erakustaldia**  
Lehen hiru hilabeteko erakustaldia egingo dute.  
*Pilotalekuan, 16:30ean.*

**OÑATI 'Jostailuak nola aukeratu?'**  
Itsaso Pagoagaren berbaldia.  
*Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.*

**OÑATI Literatur tailerra**  
Euskal Herriko indarkeria politikoaren biktimei buruzko bigarren saioa Irene Gantxegirekin.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**BERGARA 'Ez Dok Amairuren garaia: hurbilketa bat'**  
Ana Gandararen eskutik.  
*Laboratoriumen, 19:00etan.*

## EGUENA 15

**ESKORIATZA Gabonetako argien piztuera**  
Askotariko ekintzak egingo dituzte Gabonei ongietorria emateko.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 17:00etan.*

**ELGETA Bingoa**  
Erretiratuendako.  
*Ozkarbin, 17:00etan.*

**OÑATI Ostegun kontalariak**  
Saioa Aizpuruarekin.  
*Liburutegian, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Argazkizkiak' lehiaketaren sari banaketa'**  
Loramendi elkartearen eskutik.  
*Udaletxe zaharrean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Ilunabar literarioa'**  
Idazle Eskolako kideen eta herriko sortzaileen eskutik.  
*Irizarren, 19:00etan.*

**ARRASATE Belako**  
Kooltur Ostegunak.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Aliados**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.  
**Peppa Pig**  
Zapatua: 17:00.  
Domeka: 12:00, 17:00.

#### ARETXABALETA

#### ARKUPE

**La chica del tren**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.  
**Peter y el dragon**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

#### EIBAR

#### COLISEO

**Villaviciosa de al lado**  
Zapatua eta domeka: 17:00.  
**Igelak**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**El ciudadano libre**  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

#### ANTZOKIA

**Vaiana**  
Zapatua eta domeka: 17:00.  
**Villaviciosa de al lado**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

#### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Vaiana**  
Egubakoitzik domeka: 12:00, 16:30, 18:30.  
**Hasta el ultimo hombre**  
Egubakoitzik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.  
**Animales fantasticos...**  
Egubakoitzik eguenera: 17:30.  
**La reina de España**  
Egubakoitzik eguenera: 20:00.

**Villaviciosa de al lado**  
Egubakoitzik domeka: 16:45, 20:15, 22:30.  
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.  
Martitzena: 17:30.

**Animales nocturnos**  
Egubakoitzik eguenera: 17:30, 22:30.

**Los exámenes**  
Egubakoitzik eguenera: 20:00.

**Igelak**  
Egubakoitzik domeka: 16:30.  
Astelehena, eguenera: 22:30.

**El editor de libros**  
Egubakoitzik domeka: 18:15, 20:15, 22:30.  
Astelehena, eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
**1898, los ultimos de Filipinas**  
Egubakoitzik domeka: 17:30, 22:30.  
Astelehena, eguenera: 17:30.

**Bar Bahar**  
Egubakoitzik

domekara: 18:30.  
Astelehena, eguenera: 20:00.

**Aliados**  
Egubakoitzik domeka: 20:15, 22:30.  
Astelehena, eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Paterson**  
Egubakoitzik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El ciudadano ilustre**  
Egubakoitzik eguenera: 20:00, 22:30.

**Peppa Pig**  
Egubakoitzik domekara: 12:00.

**Cigüeñas**  
Egubakoitzik domekara: 12:00.

**Trolls**  
Egubakoitzik domekara: 12:00.

#### BOULEVARD

**Hasta el ultimo hombre**  
Egubakoitzik eguaztena: 19:10, 22:00.  
Zapatua eta domeka: 16:15.

**Fiesta de empresa**  
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.  
Egubakoitzik eguaztena: 17:00, 19:15, 21:30.

**Vaiana**  
Egubakoitzik eguaztena: 17:00, 18:05, 19:20, 20:25.

**Vaiana 3D**  
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Villaviciosa de al lado**  
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.  
Egubakoitzik eguaztena: 17:45, 19:45, 21:45.  
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Animales fantasticos...**  
Egubakoitza, domeka,

astelehena, martitzena eta eguaztena: 16:00, 18:45, 21:30.  
Zapatua eta domeka: 16:00, 23:15.

Egubakoitzik eguaztena: 17:00, 19:45, 22:20.

**Animales nocturnos**  
Egubakoitzik eguaztena: 20:00, 22:30.

**La reina de España**  
Egubakoitzik eguaztena: 17:00.

**1898, los ultimos de Filipinas**  
Egubakoitzik eguaztena: 19:35, 22:15.

**La llegada**  
Egubakoitzik eguaztena: 17:40, 20:10, 22:40.

**Aliados**  
Egubakoitzik eguaztena: 18:30, 21:00.  
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.  
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Trolls**  
Egubakoitzik eguaztena: 18:00.  
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Un monstruo viene a verme**  
Egubakoitzik eguaztena: 21:40.

**Marea negra**  
Egubakoitzik eguaztena: 22:45.

## KRITIKA

**La doncella** ★★★★★

**Zuz.:** Park Chan-wook **Herr.:** Hego Korea (2016). **Aktoreak:** Kim Min-hee, Kim Tae-ri, Ha Jung-woo.

## Sedukzio jokoak

ANTONIO ZABALA

Aurreko astean *Amor y amistad* aipatzerakoan, maitasun norgehiagoka bat zela esan genuen. Han sortzen zen jokoan, burua erabiltzen zen protagonistak nahi zuen helburua lortzeko. Aste honetako *La doncella*-n beste sedukzio joko batzuk sortzen dira. Baina kasu honetan erabilitako plana ederki pentsatuta badago ere, buruarekin sena eta irrikak nahasten direnean, egindako kalkuluak pikutara joan daitezke. Park Chan-wook-en istorioa hiru ataletan banatzen da. Iruzurrez betetako istorioa. Nahiz beste pertsonaia batzuk tartean egon, gizon baten eta bi emakumeren arteko joko da. Inguruak engainatzen ari direla pentsatzen duten arren, iruzur horren atzetik beste bat ezkutututa egon daiteke, eta



COMPOSTIMES

engainatzaile papera betetzen ari dena, agian, engainatuta izaten ari da. Askotan, ikusi nahi duguna bakarrik ikusten dugu eta ez gara aurrean dugun egiaz jabetzen. Eszena batzuk behin baino gehiagotan ikusten ditugu eta denak lotuta, iruzurren artean egia sortzen ari dela ohartuko gara.

Park Chan-wooken zinematik Paul Verhoevena gogoratzen dit. Garrantzi handia ematen dio sentsualitateari. Irrikak pertsonaien portaera zuzentzen du. Hala, agertzen diren pertsonaia eta istorioak sutsuak izan arren, zuzendariaren begirada dibertigarria eta trufaria daramate.





AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

**Bi emakume**

Bi emakume elkarrizketatu nituen behin. Egun berean, toki berean. Zahar egoitza batean. Lehenengo bata, gela batean. Ondoren bestea, beste batean. Ez zeukaten elkarren berririk. Baina herri berekoak ziren. Egoitzatik aparte herri batekoak. Eta egoitza hartako euskaldun bakarretakoak, gainera. Adineko euskaldunen bila bainenbilen ni, kontuak jasotzeko.

Egoitza handia zen.

Emakumeetako batek -A deituko diot- denbora gutxi zeraman han. Besteak -B izango da- gehiago. Horregatik ez ziren elkarrekin egon. Ni iritsi arte.

A-k kontatu zidan bere aita gudari ibili zela gerran. Eta lau urte egin zituela kartzelan, herriko batek salatuta. "Gosea pasatu genuen", esan zidan. Lau ume txikirekin geratu zen ama, bizimodua aurrera atera ezinik. Etxeak eta eskailerak garbitzen. Eta berak laguntzen zion, 9 urterekin.

B-ren familian karlistak ziren. Zaurituta zegoen soldadu bat ezkutatu zuten baserrian. Milizianoek harrapatu zuten. Hil egin zuten. Eta B-ren jertse gorria bandera moduan jarri zuten teilatuan. Ahizpa, berriz, kartzelara eramane zuten, 18 urterekin. "Herriko gudari batek, ezagunak".

Zer gertatuko zen A-k eta B-k topo egitean? Ezagutuko zuten elkar? Eta ulertu? Ez dut sekula jakin.

## BUKATZEKO

**Gabonetako zuhaitz artifiziala ala naturala?**

Gabonetako apaingarrien artean zuhaitza izan ohi da garrantzitsuena, baina zalantza sor daitezke aukerarik egokiena erabakitzeke. Bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu; irizpide asko kontuan har daitezke bataren edo bestearen aldeko hautua egiteko

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

Gabonetako ospakizun familiarretan era askotariko eztabaidak sortu ohi dira, eta artikulu hau aproposa eta sasoikoa izan daiteke horiek sustatzeko. Aukeraketa egiteko faktore ekonomikoak, erosotasunarekin lotutakoak edo ingurumenarekin erlazionaturakoak izan daitezke, besteak beste.

**Zuhaitz artifizialak**

Horien alde egiteko argumeturik ohikoena naturalak baino merkeagoak direla da. Merkeagoak izateaz gain, hainbat urtez jarraian erabili daitezkeenez, egin beharreko inbertsioa askoz murriztagoa da. Ez dute inongo mantentze-lanik eskatzen, eta erosotasun ikuspegitik ere aukerarik onena izan daitezke.

Baina naturalen aldean hainbat desabantaila dituzte. Orokorrean, petroliotik ateratako erretxinekin egiten dira. Era horretako ekoizpenak oso kutsakorrek dira ingurumenarentzako, kaltegarriak diren substantzia kutsakorrek isurtzen dituztelako. Horri, birziklagarriak ez direla ere gehitu behar zaio.

Era horretako zuhaitz gehiekin txinatar jatorria izaten dute.

**ARTIFIZIALA**

MERKEAGOA  
URTEK URTERA ERABILI DAITEKE  
EROSOAGOA

KUTSAKORRA  
KANPOAN EKOITZIA  
EZ BIRZIKLAGARRIA

**NATURALA**

IRAUNKORRA  
BERTAN EKOITZIA  
BIRZIKLAGARRIA

GARESTIAGOA  
URTERO BERRIA EROSTEKO BEHARRA  
UREZTATU BEHARRA

Hango lan baldintzek sortzen dituzten zalantza eta bertatik hona garraiatzeak sortzen duen kutsadura ere kontsumitzaileak baldintzatzeko arrazoiak izan daitezke.

**Zuhaitz naturalak**

Artifizialen aldean, naturalak askoz iraunkorragoak dira. Bi edo hiru urte egoten dira haztegiatan saldu aurretik. Ekoizpen prozesuan karbono dioxidorik ez isurtzeaz gain, denbora tarte horretan karbono dioxidoak murrizten dituzte.

Usain goxoa uzten dute eta, gainera, bertako ekoizleen lana babesteko baliagarriak dira. "Azkenaldian gainbeheran dagoen arren, duela 20 urte era horretako zuhaitzen ekoizpen garrantzitsua izaten zen Goierrri eta Azpeitia aldean. Ikaslea nintzenez, horiei buruzko doktore tesiak ere egiten ziren", azaldu du Peio Garaik, Arrasateko Udako Ingurumen teknikariak.

Hala ere, badituzte aurkako arrazoiak. Ureztatu beharra eta urtetik urtera berriro erosi beharra dira nagusiak, eta, horrez gain, badaude natura zati bat etxeko apaingarri bezala erabiltzearen aurkako iritziak.

**Hirugarren aukera**

Bi aukera horien inguruan galduta, hirugarren bat planteatzeko du Peio Garaik.

"Zuhaitz naturalak eta artifiziaiak kontsumo produktuak dira. Gabon garaian sortzen den kontsumismoaren aurrean, sormena erabiliz kartoizko zuhaitzak egin ditzakegu familian elkarlanean. Aukera dibertigarria eta aberasgarria izan daiteke beste bien aldean".

**EROSKI**

ARRASATE

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30**ABENDUAK 10** Soilik bazkideentzat**ELIKADURAN eta  
PRODUKTU FRESKOETAN****BEZa\***  
oparituko dizugu(lurrindegia, drogeria eta parafarmazia barne)  
Produktu hauetan **50€-tik gorako** erosketetan

\* Kufxatik pasatzean sartuko dizugu erositako produktuen BEZA EROSKI Club txartelean. Adibidez: %21eko BEZa daukan 100€-tik gorako erosketetan batengatik 17,35€ sartuko dizkizugu EROSKI Club txartelean.

- Sustapen baldiduna EROSKI hipermerkatu honetan  
- Gainerako baldintzak salmenta-puntuak kontsultatuZure **EROSKI** club txartelean itzuliko dizugu hurrengo erosketetarako.